

+  Liztor beltza da bertako espezieen etsaia
 Mikel Oribe sexu hezitzaileari elkarriketa



ARTEA TRENBIDEAN

Lehengo Vasco-Navarro trenbideko hainbat zatitan artelanak egiten dihardute / 40

Ekimenean parte hartzen ari diren hainbat artista eta Kultur ACT elkarteko kideak, Eskoriatzako saihebidetunetara azpiko tunelean egiten ari diren horma-irudiaren aurrealdean. XABIER URZELAI



Astehenean Aretxabaletan egindako elkarretaratzearen une bat. MIRARI ALTUBE

Kataluniako buruzagien aurkako epaiagatik protestak ibarrean / 4



GEHIGARRIA BARRUAN / 23

SINADURAK

 IKER AGIRRE / 6	 MANEX ARRIOLABENGOA / 15
 AIMAR URIBESALGO / 8	 MARTIN BERRIZBEITIA / 16
 ENEKO FERNANDEZ / 11	 ONEKA ANDUAGA GARAI / 34
	 ANDERE ETXEBERRIA / 48

SKODA KODIAQ

45J 4595

DISFRUTATU TEKNOLOGIAZ!

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 30 • ARRASATE • 943 71 18 70



Pentsioak aldarrikatzera Debagoienetik Madrilera

Bailarako pentsiodun batzuk Madrilen izan dira eguaztenean, "pentsio duinak" eskatzen. Hiriko Sol plazatik Diputatuen Kongresuraino egindako manifestazioan parte hartu zuen oñatiar talde batek, baita Arrasateetik eta Bergaratik joandako taldeek ere

Maialen Santos OÑATI

Herenegun, eguaztenean, pentsio duinen alde manifestatu ziren pentsiodun asko eta asko: Madrilgo Sol plazatik Diputatuen Kongresuraino ibilbidea egin zuten, aldarrikapenak eginez. Debagoieneko pentsiodunen ordezkaritza ere izan zen Espainiako hiriburuan: hain zuzen, Oñatiko hemezortzi pertsonako taldea eta Arrasate eta Bergarako bi talde txiki ere izan ziren.

Goizeko bostetan abiatu ziren, autobusez, eta mobilizazioaren ostean itzuli ziren Debagoienara. "Nekatuta" baina "oso pozik" egin zutela bueltako bidaia azaldu du Oñatiko pentsiodunen taldeko Marilo Unzurrunzagak, eta nabarmendu nahi izan du beraien "eskubideak aldarrikatzera" joan zirela Madrilera: "Borrokatzeko asko dugu oraindik, gugatik eta gure ondoren datozen belaunaldiengatik". Gaineratu duenez, egoera "berreziki" zaila da emakume eta alarguentzat, baina egindako bidaiak borrokan jarraitzeko gogoia areagotu diola azaldu du.

Manifestazioan, oztopoak

Eguaztenekoa bigarren protesta eguna izan zen, Cadiztik eta Bilbotik abiatutako erretiratuen zutabeak martitzenean iritsi



Oñatiko pentsiodunak, Madrilgo manifestazioan. OÑATIKO PENSIODUNAK

baitziren hiriburura. Hurrengo egunean, beraz, autobusez iritsitakoak batu ziren protestara.

Besteak beste, KPIa igotzea, 1.080 euroko pentsio minimoa ezartzea, emakumeen ea gizonen arteko arrakalak ezaabatzea eta pentsio publiko duinak eskatzeko baliatu zuten hitzordua, Xabier Oregi pentsiodun oñatiarrak esan duenez.

Manifestazio guztian zehar giro "ezin hobea" izan zutela gaineratu du, baita elkartasuna nagusi izan zela ere. Hala ere, manifestazioaren amaierara,

Kongresura, ezin izan zirela iritsi argitu du Unzurrunzagak, polizia "bidea eragotzi" zielako: "Mobilizazioan parte hartzen ari zen pentsiodunen talde txiki batek soilik lortu zuen Kongresura iristea", argitu du, penaz.

Madrilgo aldarrikapenak egin da, gustura eta "itxaropentsu" azaldu da Oregi, baina protestek jarraipena izango dutela azaldu du: "Borrokak jarraitu egingo du, eskubideak bermatuta izatea baitugu helburu". Are gehiago, astelehenero elkartzeko jarraituko dute erretiratuek.

Abian da dagoeneko gripearen aurkako txertaketa-kanpaina

65 urtetik gorakoei, gaixotasun kronikoren bat dutenei eta haurdun dauden emakumei zuzenduta dago

M.S. DEBAGOIENA

Txertoa jartzeko unea da eta badakizu leloarekin, asteon abiatu du aurtengo kanpaina Osakidetza. Nekane Murga Osasun sailburuak kanpainaren hasieran adierazi du txertoa "segurua eta eraginkorra" dela, eta gripearen aurrean dagoen "prebentzio-neurri onena" ere badela. Hala, datozen sei asteetan, arriskutzat jotzen diren taldeek txertoa hartu ahal izango dute osasun etxeetan, gripearen ondorioz sor daitezkeen konplikazioak prebenitzea helburu.

Bereziki, 65 urtetik gorakoei, gaixotasun kronikoren bat dutenei –diabetesa edo bihotzeko, biriketako eta giltzurrunetako gaixotasunen bat– eta haurdun dauden emakumei zuzenduta dago txertaketa kanpaina.

Gripeak urritik apirilera bitartean duela indar handien azpimarratu du Osasun Sailak. Iazko datuak ere ekarri ditu gogora: 1.662 pertsona izan ziren ospitaleratuak, eta, haietatik, 435 larri egon ziren; gainera, 79 pertsona hil egin ziren. Era berean, adierazi du 2018ko gripearen aurkako kanpainan, guztira, 373.878 dosi eman zirela, aurreko urtean baino 1.935 gehiago. Haietatik, guztira 285.335 txerto (%76), 65 urteko edo goragoko adin-taldean eman zen.

Debagoienean non hartu

Bailarako herrietan astelehenero ostiralera bitarte osasun etxeetara joanda hartu ahal

izango da txertoa, horretarako aurrez txanda hartuta. Arrasaten, gainera, zaharren egoitzetan hartzeko aukera egongo da gaur, baita datorren astelehen eta martitzenean ere, 12:00etatik 13:00etara bitartean.

Maskara euskarriak eskura

Kanpaina honetarako, Osasun Sailak 400.000 dosi baino gehiago eskuratu dituela jakinarazi du: "Kopuru hori handitu egin daiteke, beharrezkoa bada. Horretarako, 1,4 milioi euro inbertituko dira, aurreko kanpainan baino % 16 gehiago". Berritasunen artean daude maskara euskarriak; ospitaleetako larrialdien eta etengabeko arreta-guneen itxarongetan jarriko dituzte horiek, gaixotasunaren transmisioa eteteko asmoz. Gaineratu dutenez, osasun-zentroetako itxarongetan ere jarriko dituzte maskarak, datozen asteetan. Eta biztanleei gogora ekarriko diete zein garrantzi duen maskara erabiltzeak, eta eskuetako higiena mantentzeak.

Erizainen Elkargoa, kexu

Gripearen aurkako kanpainaren harira Gipuzkoako Erizaintza Elkargo Ofizialak salatu du erizainek ez dutela jaso txertoak jartzeko "akreditaziorik", Eusko Jaurlaritzak ez duelako egiaztapen prozesua burutu, eta, beraz, txertoak jartzeari ekiten dioten erizaintzako, legearen aurrean "babesgabetsun" egoera sortzen duela honek.

ALKIDEBA

SOLUZIOAK ALOKATZEN DITUGU

MAKINERIA ALOKAIKURUA
ERAIKUNTZARAKO ETA
INDUSTRIARAKO

administracion@alkideba.net

NILFISK-en
banatzaile
ofiziala





Saskibaloi taldearen babeslea **OINTXE!**

Máizaga - Soraluez erepidea.
Tel.: 943 75 15 54 • Soraluez (Gipuzkoa)

Goitondo industriagunea, 3. pabilioa
Tel.: 943 17 13 62 • Mallabia (Bizkaia)

Katxalin, bularreko minbizia dutenen alde

Bularreko Minbiziaren Munduko Egunaren harira, aurrerapausoak ematen jarraitzeko dei egin du elkarteak, minbiziak erasandako emakumeak ikusarazteko eta laguntzeko asmoz. Gaitzari buruzko jardunaldia eta ibilaldi solidarioa antolatu dituzte

Maialen Santos DEBAGOIENA

Bihar, urriak 19, izango da Bularreko Minbiziaren Munduko Eguna, eta gaitza pairatzen duten emakumeak "sentsibilizatzeko, babesteko eta laguntzeko" helburuarekin abiatu dute bularreko minbiziak eragindako pertsonen aldeko kanpaina.

Aurkezpenean, Maite Peña Gizarte Politiketako foru diputatuak aitortza egin nahi izan dio Katxalin elkarteari, urteak daramatzalako emakumei "laguntza eskaintzen"; gaixotasunaren ikuspegi positiboa eskaintzen eta erasandako emakumeen bizitza kalitatea hobetzen, hain zuzen ere.



Bergarako Katxalin elkarteak kideak, udaletxean lazoa jartzen. BERGARAKO UDALA

Katxalin elkarteak lehendakari Txaro Beobidek, berriz, adierazi du gizarte osoaren zeregina dela minbiziak eragindako emakumei "laguntza soziala" eskaintzea.

Horretaz gain, Nekane Murga Osasun sailburuak itxaropen mezu bat bidali nahi izan die bularreko minbiziak pairatzen duten emakumei, eta biziraupenak "gora" egiten diharduela gogoratu nahi izan du, Euskadiko Minbiziaren Erregistroak jasotako datuen arabera.

Hain zuzen, Bularreko Minbizi Goiz Detektatzeko Programa martxan jarri zenetik -1995ean- 9.916 minbizi detektatu dira, gehienak fase goiztiarretan. Eta biziraupen tasa dagokienez, 2000. urtetik 2012. urtera igotzen joan zen biziraupen tasa -2018an egindako ikerketetan ateratako datuak dira horiek-.

Bergaratik elkartasuna

Kanpainaren baitan, minbiziak eragindako emakumei keinu egiteko ekitaldiak antolatu ditu Katxalin elkarteak, eta bi hitzordu nagusi izango dira: hilaren 24an, bularreko minbiziari

buruzko jardunaldi bat egingo dute Onkologikoan; eta hilaren 27an, lau kilometroko ibilaldi solidario batek hartuko ditu Donostiako kaleak.

Elkarteak Bergaran duen ordezkariak ere elkartasuna adierazi nahi izan die gaitza gertutik bizi duten emakumei, eta eskuz egindako lazo arrosa zintzilikatu dute herriko udaletxean. "Elkarlanean egindako lana izan da, sufritutako guztia lazoaren barruan sartu nahi izan dugu", azaldu du Maite Valle elkarteak kideak. Hori gutxi balitz, aldarrikapenak egiteko ere baliatu nahi izan dute lazoa: "Ikerketan aurrerapenak" eskatzeko, hain zuzen. Valleren aburuz, "gizarte osoak" hartu beharko luke minbiziak duten emakumeak laguntzeko konpromisoa.

Herrirako ekintzarik antolatu ez badute ere, Gipuzkoan antolatu diren ekintzetan parte hartzerantz animatu gura dute jendea, eta, horretarako, autobusak antolatu dituzte 27ko ibilaldi solidarioa joateko. Izena eman daiteke Martin Agirre parrokiatxean, Alkabieta kalean.



Uzta berriak ostera Bizkaiko udagoiengan

<p>SONAKAY + IKER LAUROBA BILBO 88k aretoa urriak 26 20:00 sarrera: 10/12 €</p>	<p>ANNE ETCHEGOYEN & LES NOUVELLES VOIX BASQUES BERRIZ kultur etxea urriak 26 20:00 sarrera: 8/10 €</p>	<p>AGUR ETA DOLORE ANTZERKIA-SOLASALDIA PLENTZIA Danontzat Gaztetxea azaroak 9 20:00 sarrera: 3 €</p>	<p>HUNTZA GETXO Muxikebarri Antzokia Arrigunaga aretoa azaroak 15 22:00 sarrera: 8 €</p>	<p>OLATZ SALVADOR + XABI BANDINI BILBO Kafe Antzokia azaroak 28 22:00 sarrera: 10/12 €</p>
--	--	--	---	---

ANTOLATZARLEA:



BABESLEA:



LAGUNTZARLEAK:



SARRERAK:





Kasleen elkarretaratze bat, Aretxabaletan, atzo, eguena. ERNAI

Sententziaren aurka protestan

Espainiako Auzitegi Gorenak astelehenean jakinarazi zituen Kataluniako buruzagi independentistek ezarritako zigorrak, eta Debagoieneko ia herri guztietan egin dituzte mobilizazioak asteon; Gure Esku-k autobusak jarri ditu biharko manifestaziora joateko

Eneko Azurmendi ARRASATE Bederatzi eta hamahiru urte arteko espetxe-zigorrak bete beharko dituzte Kataluniako buruzagi independentistek: Oriol Junqueras, Raul Romeva, Joaquim Forn, Jordi Turull, Josep Rull, Dolors Bassa, Carme Forcadell, Jordi Sanchez eta Jordi Cuixart. Horrek mota guztietako protesta eta mobilizazioak eragin ditu asteon Katalunian.

Debagoienean ere izan dira Auzitegi Gorenaren sententzia gaitzesteko mobilizazioak. Astelehenean bertan, adibidez, elkarretaratze zaratsutsuak egin zituzten bailarako herri guztietan, Leintz Gatzagan izan ezik, *Erreferenduma ez da delitua*, lelopean, eta ehunka herritar gerturatu ziren agerraldietara.

Atzo, hainbat herritan egin zituzten protesta ekitaldiak. Ikastetxe ezberdinetako hainbat

ikaslek, esaterako, geldialdiak egin zituzten egunean zehar.

Lan mundutik ere sententziarekiko desadostasuna agertu dute. Hala, ELA, LAB, Steilas, ESK, Etxalde eta Hiru sindikatuak elkarretaratzeak antolatu dituzte gaurko. Antzuolako, Bergarako, Eskoriatzako eta Oñatiko udaletxe aurrealdeetan 12:00etan egingo dute eta Arrasatekoaren aurrean, 12:15ean. Horrez gain, Arrasateko ospitalean ere egingo dute, 10:30ean. Bestalde, Garay, Arcelor, Elay, Chichurreta eta Polmetasa enpresak protestara batu dira.

GURE ESKU-K DEITUTA MANIFESTAZIOA EGINGO DUTE BIHAR DONOSTIAN, 17:30EAN ANTIGUATIK ABIATUTA

Bihar Donostian manifestazioa Gure Eskuk manifestazioa deitu du biharko. Donostian egingo dute, 17:30ean, Antiguako tuneletik abiatuta, *Erreferenduma ez da delitua* lelopean.


Dinamikak autobusak antolatu ditu hainbat herritatik: Aretxabaletan, 15:45ean irtengo da, Eroski berriko geltokitik –Urbaltz, Dagda eta Gurea tabernetan erosi daitezke txartelak–; Arrasaten, 15:30ean irtengo da, Garibaiko geltokitik –txartelak, Irati tabernan–; Bergaran ere 15:30ean irtengo da, geltokitik –txartelak Pol-pol tabernan erosi daitezke–; Eskoriatzan ere ordu berean irtengo da, erdiko geltokitik –txartelak, Inkernun eta Goxo Txikin–; Oñatin, 16:00etan irtengo da autobusa, postetxe pareko geltokitik –txartelak Gure Eskuren lokalean erosi ahal izango dira gaur, 18.00etatik 20.00etara–.

Zer iruditu zaizu sententzia?



ENEIDA ITURBE KATALUNIAN BIZI DEN ANTZUOLARRA

"Oso esajeratua da sententzia, eta hemen, nire ingurukoek ere hala ikusten dute. Biolentziarik egon ez den prozesu bat izateko, zigorrak gehiegizkoak dira. Azken finean, gizarteak eskatu diena egiteagatik zigortu dituzte. Herritarrak mentalizatuta zeuden sententzia gogorra izango zela, eta kalera irten dira. Ni, orain, bajaran nago, baina nire lankideek esan zidaten ezin izan zirela kontzentratu lanean, eta protesta egiteko antolatu behar zirela. Eta, azkenean, kalera irten ziren mobilizatzerara. Horrez gain, gaurko deituta dagoen grebara ere batuko da nik lan egiten dudana kooperatiba".



JORDI FARRERONS BERGARAN BIZI DEN KATALUNIARRA

"Gogorra izan da sententzia, eta gauza asko, ulertezinak. Desobediencia bat egongo zen, agian, baina horrenbeste urtetako zigorrak gehiegizkoak dira. Mendeku puntu bat ikusten dut, Estatuak ez duelako onartzen batzuek alde egin nahi izatea. Hala ere, asmo asko egon dira, baina ekintza gutxi, eta zigortzeagatik zigortu dituzte. Guztiz beharrezkoak izan dira mobilizazioak. Ildo horretatik jarraitu behar dugu, irudimena erabiliz eta biolentziarik gabe, baina eraginkorrak izaten, oihartzuna edukitzeko. Azken finean, autodeterminazioa eskubide bat da, eta lortu arte jarraitu egin behar dugu".



AITOR MUGARZA KATALUNIAN BIZI DEN OÑATIARRA

"Epaiketa hau eta, ondorioz, sententzia existitu ere ez liriteke egin beharko. Gainera, bi urte pasatu behar izan dira injustizia hau sufritzeko eta sententzia honen berri izateko. Estatuak abisua eman nahi izan dio Kataluniarri, ohartaraziz modu horretan erantzun modu mugimendu independentistari. Badirudi hori dela haien modua arazoak konpontzeko. Ezohiko egoera eduki dugu lanean ere, eta eguaztenara arte ezin izan ginen guztiok elkartu, lankide batzuk ez zirelako etorri. Gaurko, greba dago deituta, baina ikasleak ere, adibidez, eguaztenean hasi ziren mobilizatzen".



SUSANA CAMINALS ESKORIATZAN BIZI DEN KATALUNIARRA

"Bagenekien zigorra gogorra izango zela, eta kontzientziatuta geunden. Hala ere, espero genuena baino gogorragoa izan da sententzia. Beti daukagu esperantza ulertu gaitzaten, eta ez gaitzaten zigortu. Izan ere, politikariei ezarri zaizkien zigorrak gureak balira bezala hartzen ditugu. *Zigor eredugarri* bat jarri digute, bide honetatik jarrai ez dezagun. Jende nagusiak, adibidez, tentsio emozionala bizi du, ezin duelako mobilizazioetan parte hartu edo beldurra duelako. Hala ere, sentimendua partekatu egiten dute. Guk ere hemendik ezin dugu askorik egin; horrek kontsumitu egiten gaitu".



Eugenio Otsoa.

Juanito Bengoa.

Jon Sasiain.

Beñat Agirreurreta.

Garazi Orobengoa.

Udal hauteskundeei begira, zerrenda osatuta

Azaroaren 17an egingo dituzte udal hauteskundeak Leintz Gatzagan, eta, azken orduan bada ere, zerrenda osatzea lortu du Leintz Gatzagako Hautesle Elkarteak: gaur-gaurkoz, haiena da hauteskundeetarako aurkeztu den zerrenda bakarra

Eneko Azurmendi LEINTZ GATZAGA

Hauxe da zerrenda: Eugenio Otsoa, Juanito Bengoa, Jon Sasiain, Beñat Agirreurreta eta Garazi Orobengoa. Astelehena zen zerrenda aurkezteko azken eguna -20:00-, eta Leintz Gatzagako Hautesle Elkarteak azkenengo momentuan lortu du taldea osatzea. "Estu eta larri ibili gara. Domekan 22:00etan lortu genuen zerrenda osatzea", adierazi du Juanito Bengoak, egungo alkateak.

Oraingoz, behintzat, ez da beste zerrendarik aurkeztu. "Egon zen zurrumurruren bat, baina gauza garbirik ez da egon. Oraindik aurkeztu daiteke beste zerrendaren bat, baina, gu aurkeztuta, oso-oso arraroa izango litzateke guk ez irabaztea".

Zerrenda osatuta daukaten arren, oraindik ez dakite bakoitzak ze kargu hartuko duen udal hauteskundearen ostean. Hurrengo egunean, hilaren 24an, bilera egitekoak dira, eta orduan erabakiko dute. "Gure artean apur bat berba egin dugu, eta gutxi gorabeherako bat badaukagu, baina oraindik ez dugu guztiz garbi".

Zerrenda osatzeko arazoak

Ministroen Kontseiluak errege dekretu bidez onartuta, azaroaren 17an egingo dituzte udal

hauteskundeak Gatzagan. Hain zuzen ere, maiatzaren 26an hautagairik izan ez zuten herrietan eman beharko dute botoa egun horretan. Maiatzeko ez zuten zerrenda osatzerik lortu, eta orain ere arazo handiak izan dituzte horretarako. "Herri mailan bi deialdi egin ditugu, eta ikusten zen ez zela ezer irteten. Jendea gerturatzen zen, baina begirale moduan bakarrik, ikusi eta entzutera. Deialdiez gain, herritarrekin aurrez aurre berba egiten ibili gara, eta modu horretan lortu dugu, azkenean, zerrenda osatzea", dio Bengoak.

Egungo alkateak azpimarratu du herritarrek ez dutela horrelako konpromisorik gura. "Jende asko zegoen garbi zeukana ez zuela parte hartu behar honetan. Beste batzuek, aldiz, ez zuten ezezkorik esaten, baina baiezkorik ere ez. Beraz, esperantza bageneukan azken orduan baiezkoa emango zigutela horietako batzuek. Hala ere, jendeak ez du konpromiso hori nahi, kostatzen da. Hemen ez dago

**BOSTETIK HIRUK
ESPERIENTZIA DUTE
UDALEAN ETA BESTE
BIENTZAT, ERRONKA
BERRIA IZANGO DA**

borrokarik kargu horiek hartzeko; alderantziz, beste batek hartzen badu, hobeto".

Gazteentzat, esperientzia berria

Otsoa, Bengoa eta Sasiain nahiko seguruak ziren, eta biren faltan zeuden zerrenda osatzeko. "Nik neuk ere ez neukan jarraitzeko asmorik, baina, ikusita jendea ez zela mugitzen, ni ere animatu nintzen. Azken orduan, gauza oso estu zegoela ikusi zenean, Beñat eta Garazi animatu egin dira", dio alkateak.

Lehenengo hirurek badute esperientzia Udalean, baina bi gazteentzat gauza berria izango da. "Herrian behar bat zegoela ikusita, eta nire kontzientzia sozialak bultzatuta, baiezkoa ematea erabaki nuen. Hasieran, errespetua eman zidan. 24 urte ditut, lanean oraintxe hasi naiz, eta ez dakit lotura hau zenbaterainokoa izango den. Hala ere, gauza berriak egiteko gogoz nago", dio Agirreurretak.

Orobengoak ere onartu du "beldur puntu bat" baduela, sekula ez duelako halako kargu bat izan. Hala ere, gogoz dago. "Herrian beharra zegoela sentitu nuen, eta animatu egin naiz. Sentsazioa daukat asko ikasiko dudala lau urte hauetan. Tranquil hartu eta ahalik eta ondoen egiten saiatuko naiz", dio.

Eskolako materiala banatu die Gurutze Gorriak 96 haurri

Bukatutzat eman dute irailean eta urrian zaugarritasun egoeran dauden familiei laguntzeko egindako kanpaina

E.A. ARRASATE

Debagoieneko Gurutze Gorriak bukatutzat eman du eskola materialaren kanpaina -irail eta urri artean egina-, eta zaugarritasun edo bulnerabilitate egoeran dauden familien haurrei eta gazteei 96 eskola-material sorta banatu dizkiela jakinarazi du.

Gurutze Gorriak jakinarazi duenez, banatu dituzten sorta guztiek motxila, koadernoak eta estutxe osoa zituzten -margoak, boligrafoak, arkatzak, gomak...-, besteak beste. Sortak osatzeko orduan, gainera, haurren eta gazteen adina eta ikasturtea hartu dituzte kontuan.

45 eskaerari erantzuna

Debagoieneko gizarte zerbitzuen eta Debagoieneko Gurutze Gorriaren elkarlanari esker, 45 familiaren eskaerei erantzun ahal izan diete. "Kanpainan parte hartzeko, gizarte zerbitzuek

familiekin esku-hartzea izan behar zuten eta hauek matrikulatutako seme-alabak izan behar dituzte Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza, batxilergoan edo erdi/goi mailako moduluetan".

Udal bakoitzetik jaso dituzten eskaera guztiei erantzun ahal izan dietela aitortu dute. Hauek dira izan dituzten eskaera kopuruak, herriz herri: Antzuolan, bi eskaera izan dituzte; Aretxabaletan, hogeitaz; Eskoriatzan, zazpi; Bergaran, 39; Elgetan, bat; eta Oñatin, 27.

Esker mezua guztiei

Bukatzeke, kanpainan parte hartu duten herrietako gizarte langileei haien lana eskertu nahi izan die Debagoieneko Gurutze Gorriak: "Denbora gutxi izan dute familiei abisatzeko, eta kanpaina oso bizkor eta oso ondo kudeatu dute".



Batutako materialaren zati bat. DEBAGOIENEN GURUTZE GORRIA

Kooperatiben arteko lasterketa solidarioa domekan Urkulun

Bosgarren edizioa egingo dute aurten. www.mundukide.org/lasterketa webgunean dago ize-nea emateko aukera, eta baita egunean bertan ere, 09:00etatik 10:00etara, Otxalorako aparkalekuan. 15 euro da, eta kamiseta oparitutako dute, zozketarako aukera eskaintzeaz gain.

Bi modalitate egongo dira: oinezkoa eta *nordic walking*-a.

10:30ean hasiko dute. Horrez gain, talde lasterketa ere egongo da, eta hor, kooperatiba bereko hiru laguneko taldeak osatuko dituzte. 11:00etan hasiko dute. Hiruretan, 6,3 kilometroko ibilbidea egingo dute.

0 dortsala eskuratzeko aukera ere badago. Hala, lasterketan parte hartu gabe, Mozambikeko proiektuari lagundu ahal izango diote herritarrek, Laboral Kutxako 3035 0001 59 001 013 0683 kontura 15 euroko ekarpena eginda -kamiseta opari-.



ZABALIK

IKER AGIRRE

Elkartasun tsunamia

Zer gertatuko da 3-9 urte bitartean Altsasuko familia hauek biziko dutenarekin? Denok dakigu, eta beraiek ere badakite, neurrigabea dela gazteei ezarri dieten kondena. Baliteke aste hauetan beraien min eta injustiziagatik enpatia garatzea eta mobilizazioen parte aktibo izatea. Egunak aurrera joan ahala, aldiz, mobilizazioak gutxitzen joango dira, eta ekintzak oroimen bilakatzen. Hori ez gertatzeko, ezinbestekoa da egun hauetan ikusi ditugun elkartasun tsunamiei eutsi, eta egunerokoan txikiagoak badira ere horiei eustea.

Herriak herria behar du helburu, baina, horretarako, behar-beharrezkoa du kaleak berreskuratu eta herritarrak kalera ateratzea. Ondo baino hobeto dakigu historikoki arituak izan garela euskal herritarrak.

Baina, ordea, gaur egun, eroso bizi gara norberaren zilbor eta poltsikoari begira.

ARGI GELDITU DA KORRONTE JUDIZIALEK EZ DUTELA HERRI TXIKION ALDE EGIN

Kaleek ez dute garai batean zuten distira. Ez al dago eskubide urraketarik? Lan baldintza duinak al daude guztiontzat? Gure hizkuntza

normalizatua al dago? Kartzelak hutsik al daude? Eta pentsioak neurrikoak al dira? Zer gertatzen da emakumeek emakume izateagatik egunerokoan dituzten oztipoekin? Nola bizi dugu hau guztiau gure tripatan?

Azken urteetan atzerrian ezagun egin den herrialdea eta oso gertuko sentitzen duguna adibide gisa jarritz, beraien leloa *els carrers sempre seran nostres* dena oinarri harturik bete dituzte kaleak. Argi utzi dute pertsonaz pertsona bete daitezkeela kaleak, itsasoa tantaz tanta betea dagoen bezala. Politikaren korrante horretan kaleak lehen lerroa hartu du eta urte gutxian geldi zegoen ur mantso hori indarberitu.

Aste hauetan argi gelditu da korrante judizialek ez dutela herri txikion alde egin, baina horrek ez du geldiaraziko kaleak hartu eta elkartasun tsunami mugagabeak sortzea.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Hitz merkeak

AITZOL ATUTXA GURTUBAI

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Hitz eta pitz dihardugu gure egunerokotasunean, jakituria mugatua dugun gaitetan jakintsuaren papera betetzen.

Dihardugu diot, ez garelako bakar bat bera ere kanpoan geratzen.

Baina bai, arrazoi duzue, lagun talde, lankide, familia edo dena delako talde guztietan aurkitzen dugu guztion gainetik dagoen norbait.

Txikia nintzela, gogoratzen dut medikuak zekiela osasunari buruz, mekanikariak zure autoari zer gertatzen zitzaion, sukaldariak

errezeta bakoitzak zein osagai zeraman.

Eta horrela igarotzen ziren egunak, asteak eta urteak.

Edozein arazo, duda edo minen aurrean lagun batengana edo bestearengana jotzen zen.

Esaera zahar batek dioen moduan, zenbat buru hainbat aburu.

Baina, gaur egun, buru baino aburu gehiago daudela ez al duzue uste?

Ondo dago gauza jakin batez iritzi bat edukitzea, baina gauza guztien gainean ezin daiteke iritzi kritiko bat eduki, jakituria minimo bat existitzen ez bada, behintzat.

Noski, jakituria sakelan daramagu, mugikorra hartu

eta duda guztiak uxatzen dituen intelgentzia artifiziala erabiltzen dugu gure burua balitz bezala.

Honen harira, beti zera pentsatu izan dut.

Eta egun mugatuak ditugun bezalaxe, hitz mugatuak edukiko bagenitu?

Pentsatu ezazue bizitza osorako hamar milioi hitz – zerbait esatearren–.

Zenbat hitz aurreztuko ginituzke, zenbat pentsatuko genuke hitz egin aurretik, zenbat eztabaida murriztuko lirakeke.

Laburbilduz, hitzak ez lituzke haizeak eramango.

Post gehiago 9. orrialdean.

goiena[“]
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

Publizitatea

Mireia Larrañaga,
Amaia Mundiñano,
Ziortza Martin.
Administrazioa
Ane Bereziar,
Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooparatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailetako arduradunak
Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Modu justuan ekoiztutako produktuak bere prezioa du"

MARIAN PORCEL HARREMAN DENDAREN KOORDINATZAILEA

Eneko Azkarate Laspiur ARRASATE Txokolate dastatzea egingo dute zapatuan Arrasateko Harreman denda. Gobernu kanpoko erakundeak Hiper Eroskin duen denda, txokolatea dastatzeaz gain, elikagaien ekoizpen justuaren gainean jardungo dute. **Urteroko hitzordua da txokolate dastatzea sasoi honetan?**

Bai; urriaren 17an Pobreziaren Aurkako Eguna dela baliatuz antolatzen dugu. Helburua da bidezko merkataritza zigilua duen txokolate gozoa probatzeaz gain, beste lurralde batzuetan bizi diren errealitate gordinak azaleratzea. Kakao kopuru ezberdineko txokolatea saltzen dugu eta jendeak asmatu beharko du, dastatzearen bidez, txokolate bakoitzaren kakao kopurua.

Kakaoaren produkzioaren gainean jarduteko balio izango du dastatze saioak?

Bai; errealitate gordina dago kakao produkzioaren atzean, eta hori jendeak ezagutu



Marian Porcel, Goiena telebistako platoon, martitzenean. ENEKO AZKARATE LASPIUR

dezala nahiko genuke. Kontsumitzaileok hori jakin behar dugu.

Zein da errealitate ez horren gozo hori?

Kakaoak inpaktu handia dauka mundu mailan;

lehengai estrategikoa da, ingurumenaren edo gizartearen ikuspegitik. Industria indartsua dago horren atzean. Kakaoaren %90 Afrikatik dator, batik bat, Boli Kostatik eta

Ghanatik, nahiz eta kontsumitzaile gehienak Europan egon. Kakao produktore nekazari irabazien %5 heltzen zaie. Ondorioz, pobreziatik ezin atera dauden herrialdeak dira, lan esplotazio handia izaten da; batez ere, haurren esplotazioa. Landa eremu zabaletan, matxetearekin dabiltza lanean adingabeak. **Txokolatearekin bezala, beste hainbat elikagairen ekoizpenarekin ere gertatzen da?** Hirugarren mundua deitzen dugun horretan, multinazionalak aprobetxatu egiten dira hango egoeraz. Bidezko merkataritzaren helburua da beste arau batzuk ezartzea merkataritza justuago baten alde, esplotazioan oinarritutako merkataritzaren aurrean. **Bidezko merkataritzaren zigilua edukitzeko ze baldintza bete behar dira?** Garrantzitsuenak dira sozialki baloratzen direnak: ekoizleak soldata justua eta lan baldintza duinak izan behar ditu. Horretaz gain, haurren esplotaziorik edo esklabotzarik ez da egon behar eta epe luzeko harreman komertzialak sortu behar dira ekoizleekin, jarduerari egonkortasuna emateko. Era berean,

parekidetasuna eta ingurumena errespetatzea ere baloratzen da.

Kontsumitzaileok aintzat hartzen dugu zigilu hori ala prezioari bakarrik begiratzen diogu?

Geroago eta kontzientziario handiagoa dago. Europan, batez beste, pertsona bakoitzak 15 euro gastatzen ditu urtean bidezko merkataritzan. Espainian bi eurotara ez da heltzen, beranduago hasi zelako, baina gorantz doa gastua.

Garestiagoak dira bidezko merkataritzako produktuak?

Ekoizpen justuak, esplotaziorik bakoak, bere prezioa du, prezio justua. Behar dena.

Ze beste produktu saltzen duzue Harreman denda?

Gure produktu izarrak dira txokolatea, kakaoa, azukrea eta kafea. Baina, horiez gain, saltzen ditugu kinoa, gaileta bereziak, artisautzako produktuak...

Zertan erabiltzen da harreman dendako dirua?

Ohiko gastuak ordaintzeaz gaiz, zikloa elikatzeke: ekoizleekin harremani eusteko eta haien egoera egonkortzeko.

Zenbat urte daroatzazue lanean?

20 urtetik gora. Boluntario sare handia dugu, txandaka aritzen dira denda.

ITURRI ONETIK

Danbakaren gaineko saioa 15. urteurrenean

Datorren martitzenean, hilaren 22an, beteko dira 15 urte Danbaca Debagoieneko Lehen Musika Lehiaketa hasi zela. Potemkin, Amonal, Jim TNT eta Matxura aritu ziren Elgetako Espaloia kafe antzokiko kontzertu hartan. Lehen edizioa Sharon Stoner taldeak irabazi zuen. Gerora, beste hiru edizio egin ziren, bi urtean behin, laurak arrakastaz. Danbakaren gaineko saio berezi bat prestatzen ari da Goiena telebista, datorren udaberrira begira. Eta ez du baztertzen lehiaketa berriro antolatzea.

ALBISTE IZAN ZEN

2009-10-23

1.200 kilogramo hondakin atera zituzten Debatik

Errekak garbitzeko ekimenak gero eta gehiago dira azkeneko urteetan. Bergaran eusten diote oraindik ere eta oraingo zapatuan egingo dute aurten, 2009an egin zuten moduan. Duela hamar urte, 1.200 kilo hondakin jaso zituzten Deba ibaitik: plastikoa, koltxoiak, erosketakarra... 30 lagunetik gora aritu ziren erreka garbitzen auzolanean. Zaborra San Martin plazan ipini zuten, arazoaren tamainaz kontzientzia hartzeko.



GOIENA

HAU BE BADOGU!

Kataluniako 'tsunamia'

Asteazken zehar traol erabilienez izan da #tsunamidemocratic Euskal Herrian ere:

@Esti96: "Bihotza zatitxuta bidixuekin ta Madrilen eta Catalunyan pasetan dabilenakin #tsunamidemocratic".

@Naroamendizabal: "Kataluniatik iristen ari diren irudiak beldurgarriak benetan... Eutsi Katalunia! #tsunamidemocratic".

@Olgapalahi: "Ez da Montserrat mendia argiz piztuta, baizik eta Oiartzungo Aiako Harria! Gràcies, eskerrik asko! #tsunamidemocratic".



DEBAGOIENA ERALDATZEN

AIMAR URIBESALGO

Sistema sozialak irizpide ekologikoak behar ditu

Mundu mailako krisi ekologiko baten barneraturik gaudela esatea ez da gauza berria, eta gaiak orain hartu duen protagonismoa arbitrarioa da, hein batean. Orain dela 50 urte ere nahikoa arrazoi zeuden gure oinarri biosfikoarekin dugun kontraesanarekin larritzeko eta hemendik 50 urtetara ere egongo dira. Kuantitatiboki gehitzen doazen sarraski ekologikoak eta horien inguruko borroka sozialak biderkatuz joan dira, *modan* jarri arte. Komunikabideek ere zerikusi handia dute, ziurtenik, lehenetsun sozialak inguruko kezken hierarkia markatzen baitute, eta, bide batez, naturzaletasun akritiko bat bultzatu.

Azaleko erantzunak

Hala ere, hemen ez dago benetako erreaxiorik. Aldaketa klimatikoaren gaiak duen dimentsioa eta ematen zaion perspektiba atentzio desbideratze bat besterik ez da. Huts egiten dabilena ez da gizartearen azaleko aspektu bat, baizik eta bere oinarritzko estruktura eta naturarekin dituen harremantzeko moduak. Krisi ekologikoa sortzen dabilen sistemak ez ditu bere oinarriak zalantzan jarri nahi, eta, horregatik, arazoa ikuspuntu estruktural batetik jorratu beharrean –kapitalaren balorizazio etengabeak dakarren hazkunde ekonomikoa naturaren jazarpenaren bidez–, azaleko erantzunen beharra aldarrikatzen da: politikarien borondatea, ingurumen hezkuntza, ingeniariaritz mailako soluzio teknologikoak, ikerketa zientifikoen biderkatzea, etab. Konponbide teknokratak dira, sistemaren logika produktibistak sortzen dituen arazoak sistema aldatu gabe konpontzeko ilusioa zabalduz. Desastrea ekidin baino gehiago, desastrea kudeatzea da egiten dena. Horra hor

zientziaren izenean ideologia; datu enpirikoen atzean, propaganda. Kontua da efektuetan gelditzea baino gehiago kausetara jotzea, nola ase gure beharrak autogestio kolektiboaren bidez. Berrikuntza teknologikoa baino gehiago, berrikuntza soziala behar dugu: boterea modu askoz horizontalagoan banatzeko sistema berri bat.

Krisi soziala oinarrian

Pragmatismoa eta utopismoa uztartu beharra daude, eta, krisi ekologikoa krisi sozialarekin lotuta dagoenez, bigarrena konpondu ezean errealitateari adabakiak ipintzen ibiliko gara. Zeintzuk diren erronkak? Zerrenda larregiko luzea izango litzateke, baina, zerbait esatearren, irizpide ekologikoak merkatu librearen logikaren gainetik jarri beharko liriateke, ekonomian gertatzen den inbertsio pribatuaren –enpresariet egiten dutena– gaineko erabakiak sozializatuz, aberatsak ezabatu eta gehiengoaren araberako jendarte erdua ezarriz; zer eta nola ekoizten dugunaren gaineko erabakia demokratizatuz, azken finean. Azken hori enpresarien interesen kontra doa zuzenean. Auzi ekologikoak badu erlaziorik klase borrokarekin eta sistema sozialaren auziarekin. Bestalde, sistema batek bere herritarren beharrak eta beraien ondorengoak ase nahi baditu, jasangarria izan behar du. Sistema sozial bat epe luzera posible izan dadin, beraz, irizpide ekologikoak kontuan izan behar ditu. Hori guztiori ez da

KRISI EKOLOGIKOAK HARTU DUEN PROTAGONISMOA ARBITRARIOA DA, HEIN BATEAN



MARKUS SPISKE / GMK

kapitalismoarekin bideragarria, kapitalismo berde bat ezinezkoa baita, eredu hori barne dinamika hedakor batek definitzen baitu, baliabide naturalak eta ingurumen espazioak etengabe ustiatuz.

Ingurumen hezkuntzaz

Eta konponbidea ez da erraza, sistema sozialaren auzia ez baita ingurumen hezkuntzarekin konponduko. Izan ere, ingurumen hezkuntzako *adituek* diotenaren kontrara, ez dut uste horren pisua handia duenik arazo ekologikoak errotik konpontzeko orduan. Hori zaila da, agian, hemen ikustea, gure bizi ereduak eragiten dituen ingurumen

BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKOA BAINO GEHIAGO, BERRIKUNTZA SOZIALA BEHAR DUGU

inpaktuak munduko beste toki batzuetara deslokalizatzen baititugu, eta gure aurrezki monetarioen zati handi bat beste herrialdeen kapital naturala agortzetik baitator. Ideien, balioen eta gaitasunen munduan eragiten du hezkuntzak, baina, ondoren, ikasleek beste ideia eta balio batzuen araberako mundu material batera moldatu behar dute: erlazio sozial konkretu batzuetara, non klase sozialen bidezko botere erlazio nabarmenak dauden eta merkatuak botere horien araberako dinamika itsua eramaten duen. Bide horretan natura suntsitzeaz gain, lan indarra saltzen dugunon alienazioa gertatzen

INGURUMEN HEZKUNTZA BERA ELIKATZEN DUEN SISTEMAREN KONPLIZEA DA

da: ekonomiatik eta naturatik deskonektatutako izakiak gara. Ekosistemak suntsitzen dituen ekonomiak ingurumen hezkuntza integratzen du bere barnean. Kontraesankorra dirudi, eta horrela da, kapitalismoaren indarretako bat kontraesanak bere alde erabiltzen dituela baita. Kontraesan horren oinarrian, baina, guztiz koherentea den erlazio bat dago: ingurumen hezkuntzak bera elikatzen duen sistemaren konplizea izanik, muga nabarmenak ditu. Ekologiaren auzia ezin da ebatzi auzi soziala ebatzi gabe. Ekologia, beraz, kontu sozial bat da; politikoa, finean. Kolektibitatea berrasmatu beharra dago, eta oinarritzko balio sozialistak berreskuratu: berdintasuna, kooperazioa, komunitatea, horizontalitatea, zaintza, kultura politikoa... xelebrea badirudi ere, baita arrazoi ekologikoengatik.

GUTUNAK

Bermea**JOSEBA IPARRAGIRRE**
ANTZUOLA

Tresna, makina edo zerbitzu bat erosi duen orok badaki erosketa egin eta denbora tarte baten, dela 12 edo 24 hilabeteko, bermea izango duela. Fabrikazio akatsen bat bada konponketa hori ekoizleari dagokiola; betiere, kontratuko letra txikiak kontutan hartu behar, zer sartzen den eta zer ez jakiteko. Ez zaizu gertatu berme denbora pasatu berri delako tresna hori izorratu, eta zu berarekin? Poltsikotik ordaindu behar konponketa!

Duela hilabete batzuk inauguratu zen Antzuolatik *lapur zubiraino* doan bidegorria. Ez nuen espero halako arrakastarik izango zuenik; izan ere, antzuolar eta bergarar asko ikusten da oinez

zein bizikletaz aldapan gora eta behera.

Kontua da denon poltsikotik *erosi* dugun bidegorria pitzatzen hasia dela Burubiko pare inguruan. Hasieran, asfalto gainean pitzadura txiki bat agertu zen, baina gero eta nabarmenago da lurra hondoratzen doala, eta, horrela jarraitzen badu, laster zulo handi bat ikusi beharrean gara. Ez dakit halako azpiegiturak egiten direnean ekoizleak zein berme eman behar duen, baina izango da heldulekuren bat kontratuan. Arazoaren berri eman nahi dut, ez bada jada ezagutzen, eta, gainera, berme denbora iraungi baino lehen. Ez dadila inor etorri "lehenago esan izan bazenute" eta halakorik esaten. Dagokionari eskertuko diogu neurriak hartzea, kalte handiagoak egin baino lehen; aurrez, mila esker.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Helarazteko: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

HANDIK ETA HEMENDIK

Lehentasunak**JAUME GELABERT**
HTTPS://LABUR.EUS/OUIES
'BERRIA'-N ARGITARATUA

Aitortu behar dut aurreko astean *Maiakeriez* Mikel Tabernari lapurtu diot Iruñeko alkatearen ohiko jarduna definitzeko hitza idatzitakoa berrirakurri ondoren, asterokoa baino lotsa handiagoa sentitu nuela.

Iritzia idatzi nuenetik argia ikusi zuen arte, arreta osoa eskatzen zuten zenbait gertakizun garrantzitsu ezagutu nituen.

Adibidez, tarte txiki horretan Espainiako Auzitegi Gorenak Altsasuko auziaren epai ankerra jakitera eman zuen, Espainiako Estatuaren bidegabekeria sakontzeko beste urrats bat emanda.

Eta, ezinegona handitzeko, nire artikulua ebakitzen ari nintzen bitartean paperezkoak gordetzeko ohitura dut,

hemendik urrun, Rojavan, Turkiako armada herritar kurduak bonbardatzen ari zen gupidagabe.

Hortaz, fribolitate jo nuen -jotzen dut- Maiaren kirtenkeriez idatzi izana.

Lehengo astekoa buruan, honetarako pentsatua nuen gaia aldatzea erabaki dut.

Poztekoa behar zuen berri batez idatz nezake, UNESCOren Hezkuntza saria eman baitiote Nafarroako eskuin ozpindua bere onetik ateratzen duen Skolae hezkidetza programari; baina, hori fribolitatea, Txibite presidenteak jaso du trofeoa Parisen, programa eratu zuen taldea desegin ondoren. Baztertua.

"Herritarrei benetan axola zaiena" esan dute politikari "konstituzionalistek" autodeterminazio eskubidearen gaineko eztabaida eragozteko: adierazpen tranpatiak Kataluniako preso

politikoen epai onartezinaz eta Tsunami Demokratikoaren erantzun eredugarriaz lerrook idazten ari naizen unean, behintzat, gogoeta egitera bultzatu nau.

Baina, horrela egingen banu, ez nuke gure herrian lan istripuan hil den Afrika iparraldeko beharginaz deus ere aipatuko.

Eta artikulua argitaratu baino lehen herritarren intereseko beste zerbait gertatuko balitz?

Zaila da hautatzen.

Argi dudana da hasieran pentsatua nuen kontua inor gutxiri interesatuko zaiola, Nafarroan muturreko bazterketan bizi diren 14.000 lagunak jendartetik kanpo baitziren aurreko asteko artikulua idatzi baino lehen, eta izanen dira heldu den astekoa argitaratu ondoren.

Post gehiago 6. orrialdean.

Salaketa-gutuna
Eskertza-gutuna
Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali **gutunak@goiena.eus** helbidera!

Erantzun-gutuna
Aldarrikapen-gutuna
Kexa-gutuna



Iñaki Maidagan –zuzendaria– eta Maialen Gonzalez –Goikobalu Txikiko zuzendaria– kandlekin, martitzeneko entseguan. X. G.

Arce omentzeko eta 30 kandlei putz egiteko gogoz

Hiru hamarkada pasa dira Goikobalu abesbatzaren sorreratik, eta zapatuan ospatuko dute, San Frantzisko elizan Mozart-en 'Requiem' abestuz. Abesbatzaren sortzaile izandako Jesus Mari Arce asteen zendu da, eta hura gogoan edukita abestuko dute kantu

Xabi Gorostidi ARRASATE

Aste gazi-goza izaten ari da Goikobalu abesbatzako kideentzat. Gozoa, 30 urte betetzen dituztelako, eta hori ospatzeko Mozart-en *Requiem* abestuko dutelako. Baina gazia, astelehenean abesbatzako sortzaileetako bat hil zelako: Jesus Mari Arce. Hala ere, Celia Cruz abeslari kubatarrek zioen legez, abestea da atsekabeak uxatzeko modurik onena, eta, Arcek berak nahiko lukeen bezala, ozen abestuz emango diote merezitako agurra: 20:00etan, San Frantzisko Elizan.

"Batez ere, kontzertu hunkigarria izango da. Arce oso pertsona maitatua izan da koruko lagun artean, eta presente izango dugu oso. Familiako kideekin egoterakoan, esan nien: 'Ziur nago, Jesus Mari ezagu-

tuta, *Requiem*-en kontzertua heldu arte itxaroten egon zela azken hatsa hartzeko", azaldu du abesbatzako zuzendari Iñaki Maidaganek.

SUDCen eskutik jaioa

Goikobalu abesbatza SUDC elkartearen ekimenez jaio zen. Elkarrekin presidentez aldatzen zuten bakoitzean, herriak gabezia kulturalik zuten edo ez aztertzen zuten. Hala, 1989an, abesbatza baten beharra zegoela antzeman zuten.

"Arcek izan zuten abesbatza sortzearen ideia. Lagun talde batekin batera korurako partaideak bilatzeari ekin zioten, eta di-da batean adin guztietako 80 laguneko abesbatza osatu zuten. Goikobalu sortu aurretik, 70eko hamarkadan, Danok izeneko

abesbatza bat zegoen herrian. Baina hau desagertu ostean, Elizako korua zen herriko abesbatza bakarra".

Maidaganek, ia mende laurden

Goikobalu Abesbatzaren lehen zuzendaria Luis Ignazio Ruiz de Alegria izan, eta 1996ean hartu zion lekukoa Iñaki Maidaganek, gaur egunera arte zuzendari gisa aritu denak. "Arrasaten ez genuen lan hori egingo zuten inor aurkitu, eta, *Jimi*-k gure eskaintza onartu zuenez, hura izan zen lehen pausoetan zuzendari rola bete zuena. Nik 1996ean hartu nuen lekukoa, urtarrilean. Abesbatza sortu eta urtebetera abeslari hasi nintzen, eta, handik lauzpabost urtera, zuzendari bilakatu nintzen". Ez da zuzendari konformista horietako

Jesus Mari Arce zendu da asteen

Astelehenean hil zen, 70 urterekin, gaixotasun luze baten ondoren. Arrasateko kulturgintzan arrastoa utzi duen horietako bat izan da Jesus Mari Arce. SUDC elkarte partaide aktibo izateaz gain, 1989an Goikobalu abesbatza sortzen aritu zen buru-belarri. Ez zen horrekin konformatu, eta, handik hiru urtera, Arrasateko Tirikitixa Eskola sortu zuten Antton Zumaldek eta biek. Martitzenean hileta elizkizuna egin zuten, eta elizako koruko lagunekin batera aritu ziren Goikobalukoak ere. "Langile fina izan da. Ezer ez zegoen tokitik 80 laguneko kantu bat sortzeko pertsona klabea izan zen, eta kemen horri esker heldu gara 30 urte betetzera", esan du Goikobaluko zuzendari Iñaki Maidaganek.



Jesus Mari Arce. SAN FELIPE APOSTOL

bat, eta, koruko kideekin urte luzeak daramatzan arren, ez du trabarik izaten hauei zuzenketa konstruktiboak egiteko. "Dauzkan abeslarien mailara egokitzen ahalegintzen naiz, eta gauza zailak baztertzeko ditut. Baina egiten dugun hori ondo egitea gustatzen zait, eta zorrotza naiz koruko kideekin. Entseguetako lehen saiakeretan dena primeran irtetea zoragarria litzateke, baina beti dago zer hobetu. Kontzientzia naiz ez garelako koru profesional bat eta, askotan, kideak nekatuta heltzen direla entseguetara. Baina gauzak gaizki egiten badira, ez da beldurrik eduki behar zuzentzeko, eta ondo ateratzen direnean, ostera, txalotzeko".

Kalitatezko ibilbidea

Abesbatza baten ibilbidearen kalitatea neurtzea ez da gauza erraza, baina bidean pilatutako emanaldi esanguratsuak edo sariak horren adierazle gisa har daitezke.

1992an German Torrellas-en zuzendaritzapean Vivaldiren *Gloria* abestu zutenetik, asko izan dira interpretatu dituzten maisulanak, eta horietako asko, gainera, ospedun orkestrekin batera. Aipagarrienak, hauek: Beethoven-en *9. Sinfonia*, Kiev-eko Orkestra Sinfonikoarekin batera; Karl Orff-en *Carmina Burana*, Errusiako Orkestra Sinfonikoarekin batera; Berlioz-en *Te Deum*, Mozart-en *Requiem*, Faure-ren *Requiem*, Dvorac-en *Te Deum* eta Mozart-en *Missa Solemne*, Leto-

niako Orkestra Sinfonikoarekin batera; Donostiako Musika Hamabostaldien estreinako ekitaldian, *Rachmaninoffen Bezperak* obra, Donostiako Orfeoiaarekin batera.

Sarien zerrenda ere ez da batera makala. Batzuk aipatzearen: Zaragozako Ejea de los Caballeros herriko lehiaketako lehen postua, 1991n; Tolosako Abesbatzen Lehiaketan lehen postua, 1995ean; lehen saria Murtziako Cieza herriko txapelketan; Errioxako Autol herriko txapelketa, 2000n; eta Madrilgo Vaciamadrideko herriko lehiaketa, 2006an.

Arrasatetik harago

Herri abesbatza bat izateko bozkarioarekin jaio arren, Arrasateko mugetatik kanpo asko mugitu izan den abesbatza da Goikobalu. Gehienbat, Euskal Herrian eta Espainian zehar, baina baita nazioartean ere: Galesen eta Ingalaterran, 1991n; Frantzia; Argentinan birritan, 1998an eta 2006an; Italian, 2004an; eta Portugalen, 2016an. Espainian zehar leku askotan aritutakoak dira, baina aipamen berezia merezi du 25. urteurrenean egin zuten *Donejakue Bide kantatu* birak. "Zatika egin arren, bost urteko epean Donejakue bidea egin genuen, geltoki bakoitzean kantaldi bat eginez", azaldu Juan Antonio Barriocanalek.

2009ko otsailaren 21ean Orreagan ekindako bideari Santiagon eman zioten amaiera, 2014ko maiatzaren 2an, leku hauetatik igaro ostean: Orreaga, Iruñea,



X.G.

"Goikobalu nire familia modukoa da"

IÑAKI MAIDAGAN
ZUZENDARIA

1996etik gaur egunera arte koruko gidari izan da.

Zer da Goikobalu zuretzako?

Musika koralarekiko zaletasuna duen lagun talde bat. *Lagun* hitza, letra larriz idatzita.

Zer eman dizu?

Musika munduan sakontzeko aukera: abeslari gisa, zuzendari gisa... Pazientzia zein lagungarria den jakiteko ere balio izan dit, eta lagun kuadrilla, emaztea eta familia modukoa da niretzat.

Hiru hamarkadako ibilbidean, zein kontzertu geratu zaizu iltzatuta?

Kantari bezala, hainbat lehiaketa irabazi genituen, baina Rachmaninoff-en bezperaren lehen emanaldia oso berezia izan zen. Zuzendari gisa, duela hamar urteko *Requiem*-a.



X.G.

"Beharrezkoa zen txikien taldea sortzea"

ANUSKA EZKURRA TXIKIEN
ABESBATZAKO SORTZAILEA

1994an, Txikien Taldeko lehen zuzendaria izan zen.

Zer da Goikobalu zuretzako?

Etaparantzitsu bat. Bertan uztartu ditut musikarekiko zaletasuna eta lagunak, eta nire bizitzan funtsezkoa den nire senarra bertan ezagutu nuen.

Zer eman dizu?

Bidaiatzeko aukera, abesten ikasteko aukera eta baita belaunaldi ezberdinetako lagunak egiteko aukera.

Zergatik sortu zenuten Txikien Taldea?

Taldeak bizirauteko beharrezkoa zen. Rakel Ruiz ez zen zuzendari izan hasieran, baina lan itzela egin zuen taldea sortzeko.

Zapatuan, zer?

Hamar urteren ostean, *Requiem*-a abestuko dut, bakarlari. Arrasaten abestea berezia izango da.



X.G.

"Egindako bidaiek hatsa eman digute"

J. A. BARRIOCANAL
PRESIDENTE OHIA

Azken hamabi urteetan abesbatzako presidente izan da.

Zer da Goikobalu zuretzako?

Lagun talde bat, non denok elkarrekin ondo konpondu garen. Ni Doke antzerki taldean nabilen, eta duela hamabost urte Arcek deitu zidan, abesbatzara batzeko.

Zer eman dizu?

Gehien gustatzen zaidana egiteko aukera; abestea. Eta, horrez gain, hainbat irteera antolatzeke aukera eman dit.

Zein izan da zure ekarpena abesbatzari?

Hainbat irteera antolatu ditut presidente gisa nabilenetik. Kanpora irteteko aukera horiek motibazio iturri dira; hatsa eman digute. Helburu konkretu bat esku artean izan gabe, ez duzu berdin entseatzeko.



NIRE USTEZ

ENEKO FERNANDEZ

Kontraesana

Batzuoi egozten digute, kontraesanez beteta egonik, gure utopien bidea jarraitzen ez dutenekin zorrotzak izatea. Argi dago gizartea eraldatzeko, nagusitasun morala baino gehiago, kritika eta aldaketa txikiak onartzea eta bakoitzak bere etxean eragitea funtsezkoak direla. Egungo kontsumo eta bizi ohiturek inpaktu zuzenagoa dute, gainera, alderdi bat bozkatzeko hutsak edo *Salvados* ikusteak baino.

Era berean, kobazuloan eta astoarekin bizi ez garenok ezin dugula ezertaz iritzirik eman iruditzen zait batzuetan, berdin kritikatu baina ezer eraldatu nahi ez duten ikasiak ugaltzen ari diren bitartean. Berez, *statu quo*-a onartzea joera nagusia bihurtu da, orokorrean eta salbuespen gutxi batzuekin, dagoenarekin konformatzea, eroso.

Hala ere, asteotan Kataluniaz asaldatu egin gara, hau antidemokrazia! Marka da gero, gurean nola jarraitzen dugun erabakitzeke eskubidea ez onartu, edo urtean behin aldarrikatu arren, praktikara eramanez nahi ez dutenen gobernu itun bati babes zabala ematen. Hau bai kontraesana!

Herriko merkataritzan euskarak duen presentzia handitu nahian

Merkatariei zuzendutako zerbitzuen katalogoa berritu du Udalak, euskararen "normalizazioan sakontzeko"

X.G. ARRASATE

Merkataritza sektore "estrategikoa" izanik, euskararen normalizazioan aurrerapausoak eman nahi ditu Udaleko Euskara Sailak, herriko dendari eta tabernariarekin, bereziki. Herri-tarren egunerokotasunean komertzioek indar handia dutela jakinda, saltzaileen eta bezeroen arteko harremanak euskaraz gauzatzeko nahia azaldu dute. Horretarako, Euskara Sustatzeko Ekintza Plana eramatean ari dira aurrera, merkatariei euskararen arloan laguntza eman

eta euren komertzioetan euskararen presentzia handiagotu dadin.

Ekintza horien artean daude: establezimendu berriak ireki aurretik Udalaren hizkuntza zerbitzuen berri ematea, terminologia zalantzak edo testuen zuzenketak egiteko hizkuntza aholkularitza, errotuluak eta irudi korporatiboa euskaraz jartzeko dirulaguntzak, webguneak euskaraz jartzeko dirulaguntzak, edo euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak merkatarientzako eta ostalarientzako.

Burlata, Najera, Santo Domingo de la Calzada, Burgos, Fromista, Carrion de los Condes, Leon, Astorga, Ponferrada, Villafranca del Bierzo eta Santiago.

Huesca eta loteria

Abesbatzak egindako azken bidaietako batean, gauza bitxi bat gertatu zen.

"Huescara joan ginen abestera, bertako koru batekin batera. Kontzertu amaieran, harreman publikoen rola egiten aritu nintzen, bertako koruko lagun

ezagunak agurtzen, eta gogoratzen dut jota bat ere kantatu nuela nik bakarrik. Baina protokolo kontu horietan murgilduta nabilen bitartean, hango koruko lagun batzuk loteria txartelak saltzen aritu ziren, eta, nik eta beste seik izan ezik, Goikobaluko guztiek erosi zuten. Bada, abenduaren 22an Loteriarren Sari Nagusia egokitu zitzaion Huescako zenbaki hari, eta txartel bakoitzeko 82.000 euroko saria jaso zuten. Batzuek hiru txartel erosi zituzten; beraz,

pentsa zer-nolako aurpegia geratu zitzaigun batzuei".

Gaur egungo argazkia

Gaur egun, Goikobalu Abesbatza 100 lagun inguruk osatzen dute. Haur abesbatza 5 eta 14 urte bitarteko 40 neska-mutilek osatzen dute eta helduen taldean, aldiz, 18 eta 76 urte bitarteko 60 kantari daude. Une honetan, Arizmendiko Gaztelupe gunean daude behin-behinean, baina, laster, egoitza berria izango dute Juan Arzamendi Musika Etxean.

Zaldibarrera bisita, zapatuan; domekan, erakusketa amaiera

Asteburuan zehar bi bisita gidatu egingo dira Arrasateko kaleetan. Lehena, bihar, zapatua, egingo dute; 11:00etan, Zaldibar-ko frontoian. Arrasate Zientzia Elkarteak kideek gidatutako saioa izango da, eta Zaldibarrek Arrasateko aisialdi eta kirol eremu bezala izandako garrantziaz mintzatuko dira. Besteak

beste, lur horiek Oñatiko kondeari Doke jokoan irabazita lortuak direla azalduko dute, eta Doke jokoan aritzeko aukera ere izango da.

Bigarren bisita, etzi, domeka egingo da; 12:00etan, Kulturaren *Itzuli Barik* erakusketaren amaierako ekintza izango da. Kulturaren aretotik eta eraikinetik hasi eta aurreko plazan zegoen merkatuaren istorioak ezagutzeko aukera izango dute bisitariek, besteak beste.



Ana Heriz, Unai Agirre, Agurtzane Diez, Nerea Lazpiur eta Amaia Ceciaga, martitzenean egindako agerraldian. A. ARANBURUZABALA

Sagardoa eta sagarrak, azokako protagonista

Hileko hirugarren zapatua izanda, Baserritarren Azoka egingo dute bihar, Seber Altube plazan; orainoan, garaiko produktuen saltokiez gain, 'Sagarra eta euskal sagardoa' ekintza egingo dute, fruta horri buruz asko dakiten adituekin

Xabi Gorostidi ARRASATE

Sagar Eguna egin zuten iaz, eta haren bidetik antolatu du Udalak, Mankomunitateko Turismo Sailarekin eta Debagaraia Landa Garapen Elkartearekin elkarlanean, zapatuko ekintza sorta; orainoan, sagarrari eta euskal sagardoari protagonismoa emanda. "Arrasateko lehen sagardo eguna izango da", esan zuen Amaia Zeziaga zinegotziak aurkezpen ekitaldian, eta zera gaineratu zion Toki eta Garapen Saileko teknikari Nerea Lazpiurerek: "Ohiko azokaren ekintza osagarria izango da, betiere, garaian garaiko produktuak ikustarazteko asmoz, eta sagarrari buruz asko dakiten adituek gonbidatu ditugu; besteak beste, Euskal Sagardoa Jatorri Izen-dapena elkarteko Unai Agirre eta Fruitel euskal Frutazaleen elkarteak".

Erakusketa eta dastaketa

Seber Altube plazan, zapatuan, askotariko sagar motak ikusi

eta dastatzeko aukera izango da, Unai Agirrek gidatuta. "Sagardoa egiteko erabiltzen ditugun sagarrak zeintzuk diren azalduko dugu, eta dastatu, ez dira-eta guztiak berdinak: batzuk garrazak, mikatzak besteak, edo gozoagoak ere badaude. Horrez gain, Euskal Sagardo jatorri izena duten hainbat ekoizle ere izango dira".

Bertoko sagar-zukua

Agirrerren eta Fruitel elkarteko azalpenez gainera, Jakoba Errekondo paisajistarenak jaso gura dituenak ere izango duela aukera azaldu dute antolatzaileek: "Baserritarren postuen artean bere tokitxoak izango du Errekondok, bere liburua saltzeko

SAGAR LANDAKETARI BURUZ GALDETZEKO ETA BERTOKO SAGAR-ZUKUA DASTATZEKO AUKERA IZANGO DA

eta bertaratzten diren zalantzak argitzeko".

Horrez gain, Arrasateko Zaldibar auzoko Lexarra baserriko Joseba Garitaonandiak dolarea eroango du eta sagar-zukua egingo du bertan; dastatzeko aukera ere izango da.

Garitaonandiak aspalditik ditu gustuko sagar kontuak. "Nire amandreak baserri txiki bat zuen, eta haren alboan hartu nituen sagarrari buruzko jakintzak". Aurtengo uzta oparoa izan dela ere azaldu du: "Oso uzta ona izan da. Kopuru aldetik inoiz baino kilo gehiago bati ditugu. Sagarren azukre maila ona da eta dastatu dugun muztioarekin pozik gaude; horrek markatzen du gero sagardoak izango duen kalitatea."

Azoka 09:00etan zabalduko dute, eta sagarrarekin lotutako ekintzak 11:00etatik aurrera eta doan egingo dituzte; ondoren, 12:00etan eusko labeldun pintxoak eta Euskal Sagardoa dastatzeko aukera izango da.



X.G.

Radarra Osiñako bidegurutzean

Saihesbidera sartzeko bidegurutzearen inguruan ibilgailuen abiadura neurtzeko gailua jarriko du Udalak. Ez dute, ordea, 2020a baino lehen martxan jarriko. Egun Araba etorbidean dagoen neurgailua ordezkatzeko asmoz jarriko du Udalak, tarte horretan egiten dabilzan lanak amaitu arte. Neurgailua dagoela ohartarazteko kartelak estalita daude une honetan.

Alde zaharreko zoruan ez labaintzeko, tratamendua emanda

Zurgin eta Olarte kantoietan, Iturriotz eta Olarte kaleetan eta Bizkaia etorbideko igogailuaren sarreran tratamendua egin du Udalak, oinezkoak labaindu ez daitezten. Guztira, 636 metro koa-drotan aplikatu du tratamendua Antideslizantes Ziur enpresak, eta lanek 4.579 euroko kostua izan dute. Herritarren kezak aintzat hartu dituzte horretarako.



Alde zaharreko kantoietan.

OHARRAK

1934an jaiotako bazkaria, urriaren 26an

Hotel Mondragonen egingo dute. Joateko interesa dutenek deitu 943 79 48 45 telefono zenbakira.

1958an jaiotako kintada, azaroaren 9an

Durangoko Lapur Errota jatetxean bazkalduko dute, aurretik Elorrión bisita gidatua egin ostean. Interesa dutenek, sartu 70 euro 3035 0001 50 0011144438 kontu zenbakian.

1963an jaiotako kintada, azaroaren 9an

Arantzazu bisitatzeraz joango dira autobusean eta ostean Zabolain sagardotegian bazkalduko dute. Joateko, sartu 65 euro ES84 3035 0001 58 0011156156 kontu zenbakian azaroaren 1a baino lehen.

1957an jaiotako kintada, azaroaren 9an

Oñatiko Unibertsitatea, parroquia Txokolatexia bisitatu ostean Txopekua jatetxean bazkalduko dute. Bertara joateko, 60 euro sartu beharko dira ES58 3035 0047 10 0471085571 kontuan.

Pentsiodunen elkarretaratzea, astelehenean

Herriko Plazan batuko dira, beti bezala, 12:00etan.



MUGARRI AUTOAK ARRASATE

Urriak 17 eta 18 **EGUN OSOA**

0Km eta Okasiozko
AUTOEN AZOKA

%40 -rainoko
deskontuak



Aukerak bukatzen ari dira!!!



PREZIO OSO BEREZIAK EGUN HAUETAN



GRUPO
EASO
MOTOR

San Andres Kalea, 6
20500 Arrasate
943 79 07 44

www.grupoeasomotor.com



2017an egin zuten lehenengoz Giza Biblioteka. GOIENA

Liburutegiak daukan garrantzia azaleratzera

Arrasatek ere bat egingo du Bibliotekaren Egunarekin urriaren 24an, eta hainbat ekintza antolatu dituzte, "liburutegiaren garrantzia azaleratzeko" helburuarekin; Giza Bibliotekaren hirugarren edizioa izango da jarduerarik azpimarragarrienetako bat

Eneko Azurmendi ARRASATE

1997tik ospatzen dute Bibliotekaren Eguna urriaren 24an, Espainia mailan, eta Arrasaten ere urtero egiten dute bat ekimen horrekin. "Helburua da liburutegiaren garrantzia azaleratzea, irakurleen elkargune bezala, eta formatzeko eta irakurketak partekatzeko tresna bezala. Aldarrikapen puntu bat ere badauka, liburutegiak babestu behar direla eta aurrekontu duinak izan behar ditugula adierazteko", dio Asun Agirianok, Arrasateko Udal Bibliotekako liburuzainak.

Urriaren 2an hasi ziren egun horren bueltako ekintzekin, 5-6 urtetik gorako haurrei zuzendutako ipuin kontaketa ilustratu batekin. Orain, beste hainbat ekintza dituzte aurretik.

Giza Biblioteka, urriaren 24an

Ekintza nagusietako bat Giza Biblioteka da. 18:00etan egingo dute, Kulturateko klaustroan. "Mundu mailako egitasmoa da, baina guk duela bi urte jarri

genuen martxan, eta aurten, hirugarren edizioa izango da. Liburuak pertsonak izaten dira. Beraz, esateko zerbait duten herritarrek gonbidatzen ditugu, eta horiek *liburuak* izaten dira. Euren istorioa liburu da, eta entzule moduan pertsona bat edo pare bat jartzen ditugu; horiek irakurleak dira. Horiek galdetzeko aukera daukate, eta solasaldi bat sortzen da euren artean". Gazteei eta helduei zuzendutako ekimena izango da.

Literatura jolasak haurrendako

Bestalde, Xango-Mango literatur jolasak egingo dituzte urriaren 24an eta 30ean, 11:00etan, lehenengoan Santa Marinako auzo bibliotekan eta bigarrenean

HARKAITZ CANOK ETA MAITE LARBURUK ERREZITALDI MUSIKATUA EGINGO DUTE HILAREN 25EAN

Kulturateko haur bibliotekan. "Lehendik, Saroa Bikandik eman ditu ikastaro batzuk hemen, ume jaioberrien gurasoei zuzendutakoak. Masaje moduko bat da, aldi berean kantatuz eta jolasak ikasiz. Oraingoan ere antzeko jarduera burutuko du. Ume txikiei eta gurasoei bideratuta dago, baina baita aitona-amonei edota zaintzaileei ere".

Musika eta literatura, euskaraz

Urriaren 25ean, 19:30ean, *Fruitu arraroak* errezitaldi musikatua egingo dute Harkaitz Canok eta Maite Larburuk Kulturateko areto nagusian. "Haiek diote fruitu arraroen bilduma bat eskainiko dutela". Martxoan emanaldi bat eskaini zuten, Bilboko Arriaga antzokian, eta bigarren emanaldia Arrasaten egingo dute. "Musika eta literatura, euskaraz. Herritarrei eskatzen diegu, gogoia edukitzeaz gain, kuriositatea piztuta edukitzea, kuriositatea ezagutzaren motorra baita", dio Agirianok.

Bihar egingo dute Mondranbike martxa, Biteri plazatik abiatuta

Berrikuntza modura, hirugarren ibilbide bat jarri dute, Extreme: 40 kilometro eta 1.800 metroko desnibela

E.A. ARRASATE

Bihar, zapatua, 09:00etan izango da irteera, Biteri plazan, eta parte-hartzaileek hiru ibilbide izango dituzte aukeran: motza, luzea eta Extreme. "Azken hau izan da aurtengo beritasuna. Honen ezaugarria da, batez ere, asko ibili gura duenarentzat izango dela. Tellamendi inguruan izango da, paisaia politetan. Desnibela handia da, 1.800 metro inguru, eta pentsatzen dugu kontuan hartzeko desnibela dela, horregatik jarri diogu Extreme izena", dio Aitor Arostegik, antolakuntzako kideak.

Beste biak, luzea eta motza, aurreko urteetako tankerakoak izango dira, Arostegiren esanetan. "Luzeak enduro estiloko jaitsierak ditu, bidezidorretatik, eta teknikoki bere zailtasunekin. Motza ere buelta polita izango da. Luzeko bidezidor horiek ez, beste batzuk izango ditu, guztiek egin ahal izateko modukoak direla iruditzen zaizkigunak eta teknikoki horren zailak ez direnak", azaldu du.

Izen-emateekin, pozik

Eguaztenean amaitu da online izena emateko aukera, eta an-

tolatzaileak pozik azaldu dira. "200 izen-emate inguru ditugu, oraingoan. Aurreko urteetan ez du hainbeste jende izenik eman aurrez. Eguraldia ere nahiko ezegonkorra izango dela dirudi, eta, hori kontuan izanda, oso gustura gaude", dio Arostegik.

300 parte-hartzaile izango dira, gehienez, zapatuan. "Normalean, egunean bertan ere jende askok eman ohi du izena; erdiak, gutxi gorabehera. Aurten, eguraldiak ere baldintzatuko du, agian, baina guk, betiko moduan, aukera eskainiko dugu egunean bertan izena emateko, 300 izen-ematekara iritsi arte".

Antolakuntzak, hainbat ohar

Besaide Mendizale Elkarteko mendi bizikletako sailak antolatzen du. Urtean zehar lauzpabost lagun aritzen dira antolatzen, baina egunean bertan boluntario lanak egiteko sare bat lotuta izaten dute, eta 20 bat lagun aritzen dira laguntzen. Ohartarazi dute Besaideko iturria hondatuta dagoela, eta aurrez ondo betetzeko ura; horrez gain, diote Uarkapeko dutxak 15:00ak arte egongo direla irekita. Amaieran, luntxa egingo dute.



BESAIDE MENDIZALE ELKARTEA

Aniztasuna bultzatzeko asmoz

Besaide Mendizale Elkartek kamisetak aterako ditu elkartearen aniztasuna batzeko asmoz. Elkartek 1.700 bazkide inguru ditu, eta, haien batasuna lortzeko, datozen egunetan 300 kamiseta jarriko ditu salgai. Prezioa 15 eurokoa izango da guztientzat, eta elkartearen lokalean egongo da erosteko aukera, martitzen eta eguaztentean, 19:30etik 20:30era.



Zalgorako bidea. JULEN IRIONDO

Bideen inbentarioaren lanik handiena, amaituta

Hirugarren faseko lanaren emaitza ikusgai dago udaletxean, eta abenduaren 10era arte egin daitezke erreklamazioak. Lierni Altuna alkatearen arabera, "etengabeko" lana da hau, baina, "horrelako formalidadearekin, bloke handiena jasota geratu da"

Julen Iriondo ARAMAIO

2017ko urrian aurkeztu zuen Aramaioko Udalak bide publikoen inbentarioaren lehen faseko emaitza, eta, bi urte geroago, hirugarren fasea burututa, lanaren zati handiena amaituta dagoela azaldu du Lierni Altunak: "Honek ez du bukaerarik. Herri zabala da hau, bide asko dituen; etengabeko gauza izan behar da hau, baina, horrelako formalidadearekin, bloke handiena jasota geratu da. Orain egin nahi duguna da, egindako lanarekin, ahal duguna eta dakiguna kastroan ondo jarri".

Udalaren jabetzakoak diren bideak zerrendatu dituzte, beraz, inbentarioan; eta, hirugarren fase honekin, lanaren zati handiena egina omen; hala ere, alkatearen ohartarazpena: "Honek ez du esan nahi inbentarioan ez dagoena publikoa ez denik: izan daiteke jasota ez egotea...".

Inbentarioaren hirugarren faseko dokumentazioari aho batez eman zion udalbatzak ha-

sierako onarpena irailaren 26ko osoko bilkuran. Orain, udal txeko bulegoan dago ikusgai, eta baita udalaren webgunean ere; abenduaren 10era arte egin daitezke erreklamazioak.

46 bide gehiago

Jon Ugartek 1997an egindako lana oinarritzat hartuz, Sendo enpresarekin jardun du Udalak herri bide garrantzitsuenen inbentarioa egiten. Hogeituz urtean, bideek hainbat aldaketa izan dituzte: berriak zabaldu, ibilbideak aldatu, obren eraginez desagertu...; inbentarioak orduan jasotakoa eguneratu du, beraz.

Horrekin batera, ortoargazkiak eta mapa digitalak erabiliz, bideak berriro marraztu dituzte;

LEHENDIK ZEUDEN 149 BIDEI AUZO SAREKO BESTE LAU ETA 42 BASO BIDE GEHITU ZAIZKIE ORAIN

eta bide bakoitzari fitxa egin diote, datuok: non dagoen, luzera, zabalera, zoru mota, jabetza, erabilera baldintzak...

Lehen zirriborroa egin ondoren, auzo alkateei eta interesa zuten herritarrei aurkeztu die inbentarioa, haien ekarpenak jasotzeko. Hirugarren fase honetan helegiterik baden ikustea falta da orain, zuzendu beharrekoak zuzendu eta udalbatzak behin betiko izaeraz onar dezan.

Orain arte Aramaioko 149 bide zituen jasoak inbentarioak –150 kilometro–: auzo sareko hamar bide, 41 baserri bide eta 98 baso bide. Hauetako beste 46 batu zaizkie orain: auzo sareko lau eta 42 baso bide, 795 metro eta 27,640 kilometro, hurrenez hurren.

Horiez gain, 11 zuzenketa proposatu dituzte fase honetan: "Zuzenketen zergatia ikerketaren sakontasunak ekarritako traza aldatetean oinarritzen da, batez ere: bideren batzuk luzatu edo laburtu dira, eta kasuren batean izena ere aldatu zaie".



ARAMAIOKO UDALA

Jose Reyesena lanik onena

Leioara joan zen kaleko pintura lehiaketako lehen saria. Bigarrena Vianako Yohana Soldevillak jaso zuen, eta Bergarako Ricardo Azkargortak hirugarrena; herriko onena Nuria Altuna izan zen. Gazteetan, Eneritz Kortabarriak, Aimar Etxanizek eta Maier Romerok izan zuten saria. Lanak ikusgai daude gaur –18:00-20:00– eta bihar –12:00-14:00– Sastiñan.

2020an abereek udal mendietan bazka dezaten eskaera

Udal bulegoetan egin behar da eskaera. Horretarako: azienta-ustiatketaren titularra izan behar da; Aldundiko abere-erregistroko agiria eraman behar da eta zehaztu guztien artean zeintzuk izango diren udal mendietan ibiliko direnak; ustiatetik kide bakoitzak egunean izan behar ditu zerga tasa betebeharrak. Azaroaren 21era arte dago epea.

Hilaren 31ra arte aurkez daitezke argazki lehiaketara

Bakoitzak hiru argazki aurkeztu ahalko ditu, gehienez –CD batean edo pendrive batean–, eta aurretik argitaratu eta saritu gabeak izan beharko dute. Sari nagusia 200 eurokoa izango da, eta urtaro bakoitzeko argazki onenen egileek 100 euroko saria jasoko dute. Hurrengo urteko egutegia osatzeko beste zazpi aukeratu dituzte.



NIRE USTEZ

MANEX ARRIOLABENGOA

Idiotak

Azkenaldian, Bilbon mugitzeko, metroa eta autobusa erabili ordez, Bilboko Udalak jarri dituen bizikleta elektrikoak erabiltzen ditut. Erosoak, erabilgarriak eta berriak izan arren, askotan, egoera txarrean aurkitzen ditut, geureak soilik ez diren gauzak ondo zaintzen ez ditugun seinale.

Badirudi guztiz murgilduta gauden bizimodu honetan, geureak propio ez diren gauzak ez ditugula preziatzen eta hauekin guztiz arduragabe jokatzeko tendentzia dugula. Hau da, guztiona dena zaindu ordez, gaizki tratatzen dugula.

Horregatik, gaur egun gizarte hau osatzen dugun gehienok *idiota* hutsak garelako deritzot. *Idiota* hitzak esanahi garbia du bere jatorri grekoan; gai publikoez arduratzen ez denari eta interes propioak soilik jorratzen dituenari egiten dio erreferentzia.

Denbora joan ahala, hitzak bere esanahia beste norabide batera bideratu badu ere, nire ustetan, jatorria errespetatzen jarraitzen du, publikoak edo guztionak diren gauzei eta gaiei uko egiteak tontolapiko bilakatzen baikaitu.

Jarduera fisikoa sustatzen lau urtetik gora

Atxabalta Mugi egitasmoaren ardura hartu berri du Jokin Atxaga oñatiarrak, eta hori indartzea du helburu; hainbat jarduera izaten direla kiroldegian gogorarazi du, eta haurren elikaduraren gaineko hitzaldia eta adinekoen erorikoen ikastaroa egingo dituzte

Mirari Altube ARETXABALETA

Atxabalta Mugi egitasmoa 20015eko maiatzean jarri zuen abian Udalak, hainbat erakunderekin elkarlanean, eta, orduetik, ibilbide luzea egin du. Aurtent, esaterako, 30 erabiltzaile berri gerturatu dira -%55 Osakidetzak bideratuta, eta horietatik %31, sedentarioak- eta lehenengo sei hilabeteetan 385 jarraipen egin dituzte -%69 emakumeak eta %31 gizonak-. Guztira, 180 erabiltzaile ditu Atxabalta Mugik gaur egun.

Athlonek du zerbitzu horren ardura, eta orain, Jokin Atxaga oñatiarra izango da horren buru. "Helburua da herritar ez aktibo izatetik aktibo izatera pasatzea, jarduera fisikoa sustatuta eta elikadura zainduta", adierazi du.

Ikastaroak kiroldegian

Ibarra kiroldegian du aholkularitza bulegoa; astelehenetan (09:30-13:30) eta eguaztenetan (14:30-18:30) izaten da han Atxaga, eta txanda aurrez hartu beharra dago kiroldegian (943 03 98 42). "Jarduera fisikoren gaineko inkesta egiten diegu eta gomendio batzuk eman. Ondoren, jarraipena egiten dugu, eta sei hilabete ingurura berriro baloratzen ditugu, aktibo izatera pasatu diren jakiteko".



Jokin Atxaga, Atxabalta Mugi egitasmoaren arduraduna. MIRARI ALTUBE

Horretan laguntzeko ikastaro bi ematen dituzte kiroldegian: KOI, koordinazioa, oreka eta indarra oinarri dituen -astelehen eta eguaztenetan- eta yoga -martitzen eta eguenetan-. Atxabalta Mugiko edozein erabiltzailek jo dezake horietara -ez da kiroldegiko abonatu izan behar-.

Erabiltzaileen gehiengoa 50 urtetik gorakoa da, eta orain, nerabeen taldeari heldu gura diote. Herriko 4. DBHko ikasle guztiak kiroldegira gonbidatuko dituzte, jarduera ezberdinak ezagut ditzaten.

Elikaduraren gaineko hitzaldia

Era berean, trebakuntza saioak indartu gura dituzte. Martitzen, hilaren 22an, (18:00) esaterako, haurren elikaduraren gaineko hitzaldia egingo du Andere Etxabe nutrizionistak; Ibarra kiroldegiko erabiltzaileei bideratua dago eta aurrez eman behar da izena bertan.

Hilaren 30ean, oster, adinekoen erorikoen gaineko ikastaroa izango da (10:30); teoria eta praktika uztartuko dituzte. Aurrez eman behar da izena, eta azken eguna urriaren 28a da.



NIRE USTEZ

MARTIN BERRIZBEITIA

Belarriak mugitu

Gogoan daukat umetan nola aitari eskatzen genion belarriak mugitzeko. Normalean gustura erantzuten zion eskaerari: aurpegia era barregarrian bihurtzen zitzaion; belarriak aurrera eta atzera eragiten zituen, milimetro batzuk bada ere. Barrez lehertzen ginen gu. Hasieran ikuskizunak berak eragiten zigun barrea. Geroago, nire ustez, aitari xeblekeria eskatu eta berak erantzutean bilatzen genuen plazera.

Honekin lotuta, bertsolari etiketa daukagunok sarritan bizi izan dugu antzerako egoerarik: bertso bat botatzeko eskatzen digute. Gehienetan ordu txikitik, atzetik musika burrundaka daukagula. Gainera, bertso saiorik sekula ikusi ez duen norbaitek eskatuko dizu gehienetan, Xenpelar eta Xabier Silbeira bereizten ez dituen norbait bestela... Bertsozik ez dute entzun nahi, ikusi nahi dutena da beraiantzat arrotza eta irrigarria den zerbait, xeblekeria bat.


Beraz, barkatuko didazue baina, lerro hauek baliatu nahiko nituzke eskaera hauei ezezko borobil eta alde zurreko bat emateko. Ezezkoa, bertso bat entzun beharrean xeblekeria ikusi nahi duenari. Lehenago ikusiko nauzue belarriak mugitzen.



M.A.

"Berritasun asko" dituen Eroski

Eroski City berriak atzo zabaldu zituen ateak, eguaztenez inauguratu ostean. 1.378 metro koadroko salmenta eremua du, 70 aparkaleku, eta 35 laguneko taldeak dihardu lanean. Norberak ordaintzeko lau gune ditu eta iragarri dute Eroski Bidaia agentziaren bulego txiki bat zabalduko dutela laister. 1,8 milioi euro pasa inbertitu dituztela adierazi dute arduradunek.



Iturgintza, gasa eta berogailuak
Zelaikoa Baserria, 20 • Apotzaga auzoa
20540 Eskoriatza - Gipuzkoa
943 71 52 51 / 605 71 66 92

**Bainuontziaren
ordez dutxa
jarriko dizugu
EGUN BATEAN!**

**Galdarak
aldatzen
ditugu**

Komunen eta sukaldeen zaharberritze-lanak • Iturgintza-lanak • Energia berriztagarriak

Agintaldiko plana gertu duela adierazi du EAJK

EH Bilduk "inprobisazioa" leporatu dio Udal Gobernuari agintaldiaren hasieran eta hark erantzun gura izan du alderdi jeltzaleak egindako proposamenean oinarritutako plana izan badutela eta hori gauzatzeko asmoa ere bai

I. Beloki/M. Altube ARETXABALETA

Udal batek plan garatuagoa behar duela adierazi zion Gobernuari EH Bilduk joan den astean. Eta orain, haiek esandakoak argitu gura izan dituzte EAJKo udal taldeko kideek.

"Inprobisatzeaz akusatatu gaituzte berriz. Pasa den agintaldi osoa pasatu dugu hori entzuten, eta argi eta garbi esan nahi dugu badaukagula gure plana, badaukagula gure proiektua, eta hori programan jarri genituen hamar puntutan oinarritzen dela. Maiatzean herritarrek emandako babesari esker aurrera eramateko asmoa daukagu", zioen Unai Elkoro alkateak prentsaurrekoan.

Urteroko plangintza beharrezkoa dela nabarmendu zuen, baina dena batera ezin dela egin gaineratu: "Ez baliabideei dagokienez, ezta antolakuntzari ere". Eta teknikariek elkarlanean dabilzala urteroko plangintza hori lantzen zioen, 2020ko aurrekontuetan islatuko dena. "Urtean zer egingo den jasotzen duen dokumentua dugu, ez bakarrik proiektu izarrak, baita Udalaren eskumeneko alor guztiak ere. Bide batez, lau urterako Berdintasun Plana iaz onartu zen eta urteroko helburuak zehatz azaltzen ditu; eta beste horrenbeste euskararen kasuan".

Eredu "ireki eta gardena"

"Gobernantza eredu ireki eta gardena" dela garrantzitsuena proiektu izarretatik harantzago azpimarratu zuten elkartutakoek. Eta herritarrekin zein elkarrekin "harreman estua" jorratzen jarraitzeko gertu agertu ziren: "Prest gaude herritarren zein EH Bilduren proposamen erakitzaileak gure egiteko, eta, ados bagaude, proiektuan ezartzeko. Esaterako, Santa Kurtzeko bigorrian aldaketa batzuk proposatu dizkigute, zentzuzkoak



Alkatea eta EAJKo zinegotziak. MIRARI ALTUBE

GOBERNANTZA EREDU IREKI ETA GARDENA DELA GARRANTZITSUENA AZPIMARRATU DUTE

iruditu zaizkigu, eta proiektua hobetze aldera txertatuko ditugu", zioen Elkoro.

Fiskalizazioari beldurrik ez

Era berean, fiskalizazioaren beldur ez direla inondik inora argi utzi gura izan zuen Elkoro: "Fiskalizatorako beldurra egotzi digute, eta ez zaigu bidezkoa iruditzen. Izan ere, EH Bilduko bi kide daude Tokiko Gobernu batzordean, hauetako bat jardun osoz liberatuta dago eta kudeaketan ardurak eman zaizkio. Erraztasun osoa eman zaie informazioa lehen eskutik izateko, beraz onartezina iruditzen zaigu beldurra edo gardentasun falta leporatzea guri".

Herritarren alde "gogotsu eta zintzotasunez" lanean jarraituko dutela gaineratu zuten, "astero komunikabideetan irtetea helburu izan barik".

Tasak eta zergak KPIa beste igotzea

2020ko ordenantza fiskalak onartzeko osoko bilkura urriaren 23an egingo du udalbatzak. Udal Gobernuaren proposamena da tasa eta zerga gehienak KPIa beste igotzea, %0,5. Hori aplikatuko diote besteak beste, ondasun higiezinaren gaineko zergari, eraikin, instalakuntza eta obra txikien gainekoari eta ibilgailuenari.

Salbuespenak izango dira zaborra eta ura. Zaborraren kasuan "zerbitzuaren kostuak estaldu" arte igoko dute, hau da, %5. Hortaz, onartuz gero, urtean 127 euro ordaindu beharko dute aretxabaletarrek –orain, 121,15 euro–. Uraren tasa, oster, %2 garestituko da, Ur Kontsortzioak agindutako legez.

Eguzki plakak jartzeko laguntzak gura ditu EH Bilduk

2020ko ordenantza fiskaletan hobariak proposatu ditu, "herritarrek animatzeko horiek teiltuetan jartzera"

M.A. ARETXABALETA

Klima larrialdi egoera onartu zuen udalbatzak irailaren 11n: "Eta adierazpen horretan konpromiso irmo bat hartu zen adierazpenetik ekintzetara pasatzeko", diote EH Bilduko kideek. Hala, ordenantza fiskalak onartzeaz daudela jakinik, horren aldeko ekimena proposatu dute: ondasun higiezinaren gaineko zergaren (OHZ) ezarritako hobarien bitartez dirulaguntzak eskaintzea herritarrei eguzki plakak jartzeko.

%50 arteko hobariak

"Aretxabaletak eguzkiaren energia lortzeko dituen aukerak aprobetxatu nahi ditugu, eta herritarrek gonbidatu haien teiltuetan plakak jartzera", adierazi dute. Hori errazteko, honako proposamen hau egin dute etxebizitzaren kasuan: OHZ-

ren %50eko hobaria 30 urtetan, eta egiten den inbertsioaren %50 –1.500 euro, gehienez, deskontatuta–; hori lortzeko, gutxienez, 1 kW –elektrikoa– eta 4 metro koadro –termikoa– instalatu beharko dira.

Komunitateak ere hartu dituzte kontuan eta konektatuta dauden bizilagunei OHZren %50eko hobaria aplikatzea da proposamena, baita egiten den inbertsioaren %50: 5 kW baino gehiagoko instalazioetan 3.000 euro, gehienez, eta 1 kW eta 5 kW artekoetan, 1.500 euro.

Industriari dagokionez, oster, OHZren %25eko hobaria izango lukete 30 urtetan, eta egiten den inbertsioaren %25 –3.000 euro, gehienez, deskontatuta–.

Proposamen hori eguaztenez, hilaren 23an, eztabaidatuko dute, ordenantza fiskalak onartzeko egingo den osoko bilkuran.

Protagonista izateko aukera eskaintzen du Basotxok

Errespetatua sentitzeko protagonista izatea ezinbestekoa da eta erretiratuen elkarteak horretarako bideak ditu

Goiena komunitatea

Aretxabaleta Lagunkoia

ARETXABALETA

Egiten dugun lanaren berri ematea da Aretxabaleta Lagunkoia-aren helburua. Gai asko lantzen ditugu, eta oraingoan, errespetuaren eta inklusioaren gainean egin gura dugu berba.

Hogei aukera Basotxon

Oinarritzakoa da –guk nagusietan jarri arren fokua– pertsona errespetatua sentitzea, edozein izanda ere haren egoera eta ezaugarriak. Hori, lehenengo, etxean jasotzen dela argi dugu, eta guk, aitaita-amama garen aldetik, badugu zeregina. Hala ere, ikasketxeetan osatu egin behar dute heziketa, maitasun handiarekin eta horretan asmatuta.

Pertsonaren irudiak garrantzi handia duela errespetua lortzerakoan uste dugu, eta irudi hori

protagonismoaren baitan dago; guztiok izan behar dugu geure bizitzaren protagonista, besteak beste, ekarpenak eginaz: protagonismoa oinarritzakoa da. Eta horretan Basotxo erretiratuen elkarteak aukera asko eskaintzen dituela uste dugu; hemen hogei: zuzendaritza batzordea; kantu taldea; dantza taldea; euskal dantzen taldea; Lagunkoia; garbitasun kanpaina; eztabaida mahaiak; hitzaldien antolaketa; irteera antolaketa; joko-txapelketak; plastikoaren aurkako borroka; mendi irteerak; egoitzetara bisita; hausnarketa taldeak; memoria eskolak; pilates; yoga; txakurrekin elkarbizitza; teknologia berriak; eta webguneak.

Interesa izanez gero eman ize-na eta zure intereseko hori bideratzen ahaleginduko gara. Protagonista izateko eta harremanak garatzeko aparteko aukera da.



Oihana Arietaleanizbeaskoa aretxabaletarra Mozambiken AMAIA ZABALA

"Esperientzia polita bezain gogorra izan da"

Mundukiderekin batera Mozambiken izan zen udan Oihana Arietaleanizbeaskoa aretxabaletarra. Aitortu du han ikusitako errealitateak aurretik zituen usteak "askogatik" gainditu dituela, baina aukera "oso aberasgarria" izan dela azaldu du

Jone Olabarria ARETXABALETA

Oihana Arietaleanizbeaskoa Hiruatx gobernuz kanpoko erakunde kide aretxabaletarra Mozambiken izan zen udan, Mundukidek Afrikako herrialde horretan zuzentzen duen nekazaritza programa ezagutzeko. Hain zuzen, Hiruatx elkarte Mundukide elkartearen sortzaileetako bat da, eta baita fundazioaren patronatuko kide ere.

Hain zuzen, lehenengo aldian Arietaleanizbeaskoak Mundukidek zuzentzen dituen proiektuak "hain gertutik" ezagutzen, eta kooperanteek egiten duten lana "izugarria" iruditu zaiola aitortu du: "Esperientzia polita bezain gogorra izan da; batez ere, Mozambique bezalako herrialde txiro bateko bizi baldintzak nik uste baino gogorragoak dira. Mundukidek herrixka txikiak ezagutzeko aukera eman dit, turismotik aldentuta dauden herrixkak ikusteko. Hasierako inpaktua handia izan zen, baina oso aberasgarria izan da".

Mundukideren lana

Hango jendearengan Mundukideren lanak duen inpaktua "oso positiboa" dela azaldu du aretxabaletarrak: "15.000 nekazarirengana iritsi da Mundukideren proiektua; ondorioz, 75.000 bat pertsonarengana. Bizi baldintzak hobetzen laguntzen du".

Kooperazioaren garrantzia

Kooperanteen lana "izugarria" iruditu zitzaioala azaldu du, eta "gogorra" benetan: "Oso lan baktaria da, sakrifizio handikoa eta bizi baldintza exkaxekoa. Bestalde, hango jendearekin kooperatzea, haien proiektuan integratzea eta kontaktu onak izan eta mantentzea ezinbestekoa eta txalotzekoa da".

"PROIEKTUA 15.000 NEKAZARIRENGANA IRISTEN DA, ETA, ONDORIOZ 75.000 PERTSONARENGANA"

"Bidaiak gurean duguna gehiago baloratzen irakatsi dit, adierazi du: "Oinarrizko gauzetatik abiatuz; esaterako, iturri azpian dutxa bero bat hartzetik, oporrak izatera arte".

Kros solidarioa

Bestalde, domekan, hilak 20, Urkulun, Kooperatiben Arteko IV. Mundukide Lasterketa Solidarioa jokatu da; Mozambique, Brasil eta Kolonbiako milaka pertsonaren gaitasun sozioekonomikoa sendotzen jarraitu ahal izateko babesa lortu nahi du Mundukidek kirol topaketa erakargarri honekin. Hain zuzen, lasterketari esker jasotako dirua Mozambiqueko programara bideratuko dute.

Hiru modalitate egongo dira: kooperatibetako kideen arteko lasterketa, hiru pertsonako taldeetan; *nordic walking* erakustaldia; eta oinezko ibilaldia, publiko guztientzat. Probei goizeko 10:30ean emango zaie hasiera, Urkulun.

23. Gastronomía eta Folklore Jaialdia egingo dute domekan

25. Etxeko Patxaran Lehiaketa ere izango da, goizeko hamar eta erdietan hasita, Herriko Plazan

Jone Olabarria ARETXABALETA

Hainbat lekutako produktuak jan eta edateko aukera izango da Aretxabaletako 23. Gastronomía eta Folklore Jaialdian domekan. 10:30ean hasita, desfileak egingo dituzte. 12:30ean, Herriko Plazan, Errioxako Voces Del Ebro taldearen emanaldia izango da, baita Galizia etxeko taldearena eta Gaztela eta Leongo San Fernandorena ere. Goiz osoan zehar, postuak egingo dira.

Etxeko patxarana lehiaketa

Aurten ere patxaranak bere lekua izango du, eta 25. aldiz egingo dute Etxeko Patxaran Lehiaketa. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, parte-hartzaile bakoitzak bi botila aurkeztu ahal izango ditu, gehienez, eta patxaranak norberak egindakoa izan behar du. Kristalezko edo beira



lazo jaialdiko irudia. GOIENA

gardenezko botilan aurkeztu behar da eta botilen originaltasuna ere kontuan hartuko du epaimahaiak. Sariei dagokienez, lehen postua eskuratzen duenak 100 euro jasoko ditu; bigarrenak, 75; eta hirugarrenak, 50. Diruaz gain, trofeoa ere jasoko dute.

Antzerki Hilabetearen baitan, hainbat lan ikusgai Arkupen

Bihar, zapatua, Beheko Larraineren *Manifestu bat* antzezlan izango da Arkupeko Zeraia aretoan, 19:00etan. Kontraesanak abiapuntu nagusizat hartuta, umorea eta kritika izango dira lan honen euskarri nagusiak. Bi elementurekin osatutako eszenografiarekin, publikoak gonbidatuen papera hartuko du, eta giro intimoa sortuko da.

Domekan, *¡Hoy, milagro!* antzezlan hartuko du Arkupek, 19:00etan. Lana publiko guztientzako komedia da, Arantzazuko eta Begoñako ama birjinak protagonista dituen.

Datorren astean, berriz, hilaren 24an eta 26an, 09:15ean eta 12:15ean, hurrenez hurren, Theatre De La Gimbarderen *Kubik* antzezlan izango da Zeraian. Ingurugiroa ulertzeko asmoz esperimendatzen duten umeen jokoetan oinarrituta dago. Sarerra 4 euro da.

Hilaren 17an hasita, haurrentzako gantxillo ikastaroa

Urriaren 17tik abenduaren 19ra arte, haurrentzako kakorraz-lan ikastaroa antolatu du Gu Haziak Gara elkarteak, Udalaren eta Aldundiaren laguntzarekin. Ikastaroak 10 saio izango ditu, ostegunetan, eta 9 eta 14 urte arteko umei dago zuzendua. 70 euroko prezioa du –familia ugariarentzat, 35 euro–, 688 62 37 18 telefonoan izena emanda.

Odola emateko aukera urriaren 21ean eta 28an, plazan

Urriaren 21ean eta 28an, herriko plazan egongo da odola emateko aukera. Autobusa 16:45 eta 20:00 artean egongo da bertan, eta herritarrak gerturatzerantz animatu dituzte. Gogorarazi dute 18 eta 70 urte arteko herritar guztiek eman dezaketela odola –50 kilo baino gehiago pisatzen badute– eta aurretik osasun kontrola egingo dela.

Ezkurtxorekin jolastera Mendiola auzora

Arizmendi Ikastolako Jose Arana gunekoek antolatuta, Ezkurtxo Eguna ospatuko da zapatuan Mendiola auzoan. Udazkenari ongietorria egiteko jaiari begira, egitarau zabala antolatu dute, eta autobusa ere izango da bertara joan eta handik bueltatzeko

Imanol Beloki ESKORIATZA

Udazkenean sartuta, bailarako basoetako paisaiek kolore bereziak hartu dituzte. Poliki-poliki zuhaitzetako hostoak gorritz jantzen eta erortzeko prestatzen hasi dira, eta arboletatik jauzitako ezkurak ere ikusi daitezke bide bazterretan. Hori horrela, urriko hirugarren asteburuan egitea ohitura duten moduan, Ezkurtxo Eguna antolatu dute zapatu honetarako Arizmendi Ikastolako Jose Arana guneko kideek. Aurtengoa 22. edizioa izango da, eta, urtez urte elizate ezberdin batera joateko ohitura izanik, aurtén, Mendiolan egingo dute, udazkenari ongietorria egiteko.

Elizateak ezagutzeko jai

Eskoriatzako zazpi elizateak ezagutzeko – Apotzaga, Bolibar, Gellao, Marin, Mazmela, Mendiola eta Zarimutz– ekimena izateaz batera, euskara eta irakurzaletasuna sustatzeko, fa-



Iaz, Mazmela auzoan ospatu zuten Ezkurtxo Eguna. IMANOL SORIANO

milia eta lagun artean egun ona pasatzeko eta antzinako jolasak ezagutzeko helburuarekin antolatutako jaiak da Ezkurtxo Eguna. Edizioaren batean, Leintz Gatzagan ere egin izan dutena, bertako guraso eta haurrak ere

animatu izan dira parte hartzera. Bereziki, 2 eta 10 urte bitarteko neska-mutiko eta familiei zuzendutakoa da, eta aurtén, Mendiola bertatik bertara ezagutzeko aprobetxatuko dute bertara gerturatzen direnek.

22. edizioa izanda, zenbait bider pasa dira Eskoriatzako zazpi elizateetatik; hirugarren txandean sartuta daude; 2016an, Apotzagan izan ziren; 2017an, Bolibarren; eta iaz, berriz, Mazmelan. Hala, zazpi elizateak ezagutzeko bideari jarraituz, Mendiolan batuko dira zapatuan.

Auzoan zehar ibilalditxo egi-teaz gainera, ipuin baten kontaketa, tailerrak eta jolasak izango dira, eta txokolate goxoa dastatzeko aukera, besteak beste. "Mendiolako San Juan Bataiatzailearen elizaren inguruan egingo dituzte ekintzak. Taldeak egin ondoren, ibilbide zirkular bat egingo dute, bertako txokoak ezagutzeko asmoz eta, bide batez, ibilbidean zehar antzinako jolasak izango dituzte. Gainera, as-tean zehar Jose Arana guneko haurrak txapak eta banderatzokak egiten izan dira, eta *Ezkurtxoren abestia* ere ikasteko tartea hartu dute", adierazi dute Arizmendi Ikastolakoek.

Kantuak, hutsik egin barik

Eguna girotzeko, *Ezkurtxoren abestia* kantatuko dute zapatuan, Mendiolara doazen zenbait haurrek, eta beste batzuek egunean bertan ikasteko aprobetxatuko dute. Honako hau da abestiaren letra: *Ez kur bat, ez kur bi; Udazkena etorri; Ez kur bat, ez kur bi; Saltoka zu ta ni; Aurtengo neguan; Edurra ugari; Ez kur bat, ez kur bi; Zuhaitzetik erori.*



Bi haur aspaldiko Ezkurtxoren irudia atzean dutela. JOSE ARANA IKASTOLA

Autobusa, igo eta jaisteko

Mendiolara autoz, bizikletaz edo oinez igotzeko aukera dagoen arren, autobusez joateko gomendioa egin du Arizmendik, bertan auto gehiegi ez batzeko. Hala, joateko eta gero herrira bueltatzeko autobusa egongo da: 15:30ean, erdiguneko autobus geltokitik irteera; eta itzulera, aldiz, 19:30ean.

Marrazkitik gorputzera

Jose Arana ikastolaren zigilua edo marrazkia ezkur bat zen, eta da. Hortik abiatuta, 2007an, Ezkurtxo pertsonaia sortu zuten; udazkenaren eta ikastolaren identitatearen ikur bilakatu da.

**15:30EAN, AUTOBUSA
IZANGO DA
ERDIGUNeko
GELTOKITIK, BAITA
JAISTEKO, 19:30EAN**

Oier Eskibel da Aldaype elkarteko presidente berria

Pasa den egunean hasi zituzten ehiza postu zozketak, eta azaroaren 17ra bitartean izango dira

I.B ESKORIATZA

Hasi da ehiza denboraldia, eta, horrekin batera, Aldaype Ehiza eta Arrantza Elkartearen ehiza postu zozketak urriaren 10ean hasi ziren, pasa den egunean. Egunero, 18:00etatik 20:00etara bitartean egingo dira postuen banaketak Aldaype elkartearen lokalean, Intxaurtxuetako bederatzigarren atarian, azaroaren 17ra arte bitartean.

Ehiztariek bi lineatako postuak lortu ahal izango dituzte zozketan: lehenengo linean, 88 postu daude –Lete, Apotzaga eta Marin–;



Eskibel, Aldaypeko zozketan. I.B

eta bigarrenean, berriz, 77 –parke naturala, Alabita, Aranguren–.

"Postuen zozketak azaroaren 17ra arte egingo ditugu egunero Aldaype elkartean. Hala, hasi berri, ari da jendea etortzen zozketara, baina oraindik usok agertzeko goiz da. Edozelan ere, esan beharra dago, urtero moduan, asteburura begira jende gehiago etortzen dela aste barruan baino...", adierazi du Aldaype elkarteko Gerardo Canterak.

Aldayperen batzar orokorra

Honekin batera, irailaren azken asteburuan batzar orokorra egin zuten elkarrekin kideek, eta presidentea aldatzea izan zen gaietako bat. Hala, hemendik aurrera, Oier Eskibel eskoriatzarra izango da Aldaype elkarteko presidentea.



I.B

Komun publikoa jarri dute

Irailen ur fekalen hustubidea eta konkretarako ur garbia jartzeko hoderia ezarri ostean, aste honetan jarri dute komun publikoa bidegorrian. Torrebasko industrialdera sartzeko bidea hasten den biribilgunearen alboan, jolas-parketik gertu jarri dute Aretxabaletako eta Eskoriatzako udalek, elkarlanean, bidegorriaren erabiltzaileen eskaerari erantzunez.

Etxeko lanak eginda, hasteko gertu

Gipuzkoako ligako senior mailako emakumezkoen Eskoriatza taldeak denboraldiko lehenengo partidua jokatuko du gaur, Manuel Muñoz kiroldegian. 22:00etan hasiko da neurketa, eta aurkaria Teep Samaniego Orixe Tolosaldea taldea izango da

Imanol Beloki ESKORIATZA

Gaur, jokatuko du aurtengo denboraldiko lehenengo partidua areto futboleko senior mailako emakumezkoen Eskoriatza taldeak. Lehenengo jardunaldian, urriko lehenengo asteburuan, atsedena izan zuten; pasa den astean, berriz, ez zen partidurik izan; eta, hala, gaur hasiko dute denboraldia Ander Romeroren neskek.

22:00etan izango da partidua Eskoriatzako Manuel Muñoz kiroldegian, eta aurkaria Teep Samaniego Orixe Tolosaldea taldea izango da. Denboraldi-aurrean egindako lan gogorak bere fruituak emateko "gogoz" eta "irabazteko asmoz" irtengo direla kantxara adierazi du entrenatzaileak: "Irailiko lehenengo astean hasi ginen denboraldi berria prestatzen, eta, entrenamenduez gain, lagunarteko lau partidua jokatuko ditugu Bizkaiko taldeen aurka. Hiru partidua irabazi ditugu eta beste bat berdindu; beraz, emaitza onekin hasi garela esan dezakegu...", adierazi du Ander Romero entrenatzaileak.

Berrikuntza gutxi

Gipuzkoako ligan, senior mailako emakumezkoetan zortzi talde izan ziren lehen pasa den denboraldian. Aurtengo, berriz, bederatzi izango dira, eta ligan izango den talde berria Tolosala Orbel Taberna taldea izango da. Eskoriatzak ere aldaketa bakarra izango du taldean iaztik hona: jokalaria bat joan da -Ane Caceres-, eta berri bat etorri -Elizabet Flores-. Hala, aldaketa handi barik, partiduz partidua eta pausoz pausoa adierazi du Romerok: "Ligako taldeak ezagutzen ditugu, eta badakigu jokalaria berriak ere egongo direla; hala ere, gure asmoa ahalik eta lanik hoberena egitea izango da, betiko moduan, eta, horrekin ba-



Senior mailako Eskoriatzako emakumezkoen taldea. ESKORIATZA K.E

tera, goiko postuetan mantentzea hasiera-hasieratik. Gero, liga amaieran, sailkapenaren lehenengoak geratzen bagara, ezin hobeto, baina goiz da hori esateko. Lehengo pausoa autoexijentzia sustatzea izango da gure

jokalarien artean. Izan ere, hamar emakumezko ditugu taldean, eta denek jokatuko dituzte partidua, eta hori badakite. Hala, lehenengo jardunalditik jarriko dugu hori praktikan. Ea garai-pena lortzen dugun, denboraldiari hasiera borobila emanaz".

Senior emakumezkoak

Honako hau da denboraldi honetara begira Eskoriatzako emakumezko seniorren zerrenda:

- 1 Amaia Isasmendi
- 2 Mirari Romero
- 4 Goizane Zubizarreta
- 5 Sherezade Moreno
- 6 Marta Garcia
- 8 Elaitz Iregi (kapitaina)
- 9 Elizabet Flores
- 10 Naroa Martinez
- 11 Aitziber Soriano
- 12 Olaia Miguelez

Delegatua: Enrike Iregi
Entrenatzailea: Ander Romero

Gizonezkoek ere etxean

Maila nazionalean aurtengo hasi berri den gizonezkoen Eskoriatzako taldeak, berriz, denboraldiko laugarren jardunaldia jokatuko du zapatuan. Hain zuzen ere, Sasikoa Durango taldea izango dute aurkari Iker Molinaren mutilek, eta, arratsaldeko seietan hasita, partidua Manuel Muñoz kiroldegian izango da.

Orain arte hiru partidua jokatuko dituzte: lehena irabazi, bigarrena berdindu eta hirugarrena galdu egin zuten. Hala, sailkapenean zortzigarren postuan daude, lau punturekin. Zapatuan aurkari izango duten Sasikoa Durango taldeak, berriz, emaitza hobekia lortu dute orain arte. Izan ere, berdinketa batekin eta bi garaipenekin, laugarren postuan dago sailkapenean, zazpi punturekin.



Martitzenean izandako oihal akrobazia ikastaroko talde argazkia. AGURTZANE TELLERIA

Oihal akrobazia ikastaroa beteta, itxarote-zerrenda dago

Aurtengo asmoa erakustaldi gehiago egitea dela adierazi du Agurtzane Telleria irakasleak

I.B ESKORIATZA

Ikasturte berriarekin hasi dira oihal akrobazia ikastaroko ikasleak. Agurtzane Telleriaren gidaritzapean, hamahiru haur daude aurtengo; gehienak urteak daramatzaten ikasleak dira.

"Urriari hasi dugu ikasturte berria, eta aurtengo bete-beteta dago taldea. Izan ere, Joseba Iñurrategi pilotalekuan pertsona kopuru mugatua sartzen da, eta batzuek kanpoan geratu behar izan dute, itxarote-zerrendan", adierazi du Agurtzane Telleria oihal akrobaziako irakasleak.

Erakustaldiak prestatzen

Ikastaroan ikasitakoak, gero, herriari erakusteko gogoz izaten direla ikasleak gaineratu du Telleriak: "Beste urte batzuetan egin dugun moduan, ikasturte amaieran erakustaldia egingo dugu, baina, ondo bidean, eta ikasleak gogoz badaude, erakustaldi gehiago antolatzea da aurtengo asmoa".

Hain zuzen ere, ikastaroak martitzenetan 18:15etik 17:45era eta eguenetan -ordu berean horiek ere- izaten dira Joseba Iñurrategi pilotalekuko gimnasioan.

Urriaren 25eko bertso-afarirako txartelak salgai daude oraindik

Goxo-Txikin eta Inkernun erosi daitezke, 25 eurotan, Egokienan egingo duten bertso-afarirako txartelak

I.B ESKORIATZA

Egokiena elkartean bertso-afaria antolatu dute urriaren 25erako, egubakoitza. Bertan, Haizea Arana, Oihana Arana, Onintza Enbeita eta Unai Iturriaga bertsolariak izango dira bertsoetan eta gai-jartzaileak berriz, Xabier Arenaza izango da.

21:00etan izango da afaria, eta bertara joan nahi duenak txartelak erosteko aukera du oraindik, 25 eurotan, Goxo-Txikin eta Inkernun. Aurretik, 19:30ean, triki-poteoa egingo dute, motorrak berotzen hasteko.

Gainera, Fernando Eskoriatza plazan izango dira bestelako ekintzak urriaren 25ean. Izan ere, bigarren eskuko azoka izango da 18:00etatik 20:30ak arte. Nahi duenak postua jarri ahal izango du, betiere, egoera onean dauden eta bigarren eskukoak diren produktuekin: arropak, liburuak, altzariak, jostailuak... Udalak mahaiak jarriko ditu, baina beharrezkoa da mahai erreserba egitea -943 71 46 88 telefonora deituz-. Honekin batera, Rock Kanean taldea izango da musikaz giroten.



Eskoriatatik Iruña-Veleira bisitan joandako taldea. KRISTINA CARDENAL

35 lagun izan ziren pasa den domekan Iruña-Veleian bisitan

Bi taldetan banatuta ikusi zuten aztarnategia bertara joandakoek, Juan Martin Elexpuren gidaritzapean

I.B. ESKORIATZA

Atxorrotx Kultura Elkartek antolatuta, Araba erdialdean, Iruña Oka udalerrian dagoen Iruña-Veleia aztarnategira bisita gidatua izan zen pasa den domekan. Eskoriatatik 35 lagun joan ziren bertara, eta, bi taldetan banatuta, bata euskaraz eta bestea gazteleraz, bisita gidatua egin zien Juan Martin Elexpuru idazle eta filologoak.

Bisita 11:00etan hasi zuten, eta, aztarnategiko txoko ezberdinak ikusi ostean, zenbait azalpen ere jaso zituzten bertara joan zirenek. Edozelan ere, normalean, solasaldia eta bazkaria egin izan dute aztarnategira joandako bisitetan, baina oraingoan ez dute egin. Izan ere, solasaldia Ibarraundi museoa izan zuten pasa den eguaztenean, eta arrakastatsua izan zen, 30 lagun inguru batu baitziren bertan.

Hushe bailaran egiten den lana ezagutarazteko hitzaldia izango da gaur

Baltistan Fundazioak mendizaletasuna oinarri izanik, Hushe bailararekin (Pakistan) elkartasun lana egiten du, bertako komunitatearen garapenerako. 2001ean sortu zenetik, eskualdeko biztanleei beharrezko gaitasunak eta azpiegiturak eskaintzea izan da egin duena, gizonentzat eta emakumeentzat berdintasunezkoa izango den garapen eko-

Azken bisita gidatua

Urriaren 20an egingo du Elexpuru aurten azkenengo bisita gidatua. Dagoeneko hogeitaz hamar eman dute izena, baina bada lekua oraindik. Gainera, bazkaria eta solasaldia ere izango dira egun horretan. Hala, pasa den domekan joaterik izan ez zutenek aukera izango dute horretarako, bisita.sosirunaveleia@gmail.com helbidera idatzita.

Epaiketa, otsailaren 3an hasita

Arabako aztarnategi arkeologikoko grafitoak faltsutzea leporatzen die fiskaltzak Iruña-Veleian lanean ari zen talde arkeologikoko hiru kideri. Tartean da Oskar Eskribano eskoriatzarra, eta, adierazi duenez, adostasunerako aukerak aztertzen ari dira; hain zuzen ere, zenbait bilera izango dituzte Arabako Foru Aldundikoekin hurrengo asteetan.

nomikoko eredu propio eta iraunkorra sustatu eta kudea dezaten han bertan. Hori horrela, Arrasateko Galartza-Gardoki familiak, 2019ko udan, nazioarteko garapenerako gobernu kanpoko erakundea den Baltistan Fundazioak egiten duen lana bertatik bertara ezagutzeko aukera izan du. Ikusi eta ikasita koaren berri kontatuko dute gaur, Zaldibar antzokian. 19:00etan hasiko da, eta adin guztietakoei zuzendutako hitzaldia euskaraz eta doan eskainiko dute.



Pasa den domekan, Leintz Gatzagan egindako Gatzaren Egunean, plazara jendea iristen hasi zen unea. IMANOL SORIANO

Ezagutza eta salmenta nagusi Gatzaren Egunean

Laugarren urtez antolatu dute gatzaren kultura handitzeko jaiak Gatzagan. Gatz produktuen, produktu ekologikoen eta artisau lan salmentara bideratutako azoka arrakastatsua izan zen, eta antolatzaileak "pozik" daude egunak emandakoarekin

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Pasa den domekan, jende asko batu zen, Gatzaren Egunean, egunerako prestatuta zeuden ekintzetan parte hartzeko. Bi gune izan ziren, eta biak izan ziren arrakastatsua: bai museo ingurukoa, ezagutzarekin lotua, baita plazakoa ere, gatz produktuen, produktu ekologikoen eta artisau lan salmentara bideratua.

Gatzaren kultura indartzeko asmoz antolatutako jaietan, Mendaroko txokolata -Gatzagako gatza daramana- produktu salduena izan zen; gatza ere, bere horretan, asko saldu zen, eta barazkien artean, berriz, tomateak izan zen nagusi.

Ikerketa abiarazi

Bestalde, Jakoba Errekondorekin eta EHUko Iñaki Antiguedad eta Ane Zabaletarekin mendi buelta egin zuten. Gatzaren bueltan zenbait lagin hartu, eta aurrera begira gatzaren ezagutza handitzeko asmoz antolatutako ekintza arrakastatsua izan zen.



Gatz Museoa egindako bisita gidatu batean batutakoak.



Sagar-zukua egiten aritu ziren.



Haurrak egurrezko jolasetan.

"Emanaldi bukaeran galderak sortzen dira"

ROSA MARTINEZ TXOTXONGILOLARIA

Haur eta familiendako txotxongilo ikuskizuna izango da hilaren 27an Olanen etxean, 18:30ean hasita. Ingurugiroaren gaia jarriko du emanaldiak ikusleen ahotan

Maidar Arregi ANTZUOLA

Txotxongiloei bizia emanaz, ikastetxe eta areto ezberdinetan dihardu Rosa Martinezek. Mezua daramaten ikuskizunak eskaintzen ditu eta haurrei eta gurasoei hausnarketarako bidea irekitzen die txotxongiloei esker.

Antzerkia, txotxongiloak, musika, ipuinak... uztartzen dituzu lanean. Bai; azken boladan, gainera, neuk asmatutako ikuskizunak egiten ditut. Egia da taldean egiten dugula lan: musika sortzeko, txotxongiloak margotzeko... nik bakarrik ezingo nuke inoiz aurrera eraman horrelako ikuskizun bat.

Datorren urtean, 20 urte beteko dituzu konpainia propioaz.

Halaxe da; bederatzi urte egin nituen Bihar taldearekin. 2000. urtean, neure konpainia propioa sortu nuen. Hamar antzezlan eta hogeita hamar txotxongilo ditut gaur egun.

Mezua duten ikuskizunak dira.

Didaktikoa izatea baino nahiago dut mezua daramaten ikuskizunak sortu. Balioak lantzen dituztenak, alegia. Emanaldia amaitzen denean, haurrek gurasoei galderak egiten dizkiete, eta hausnarketarako bide izaten dira ikuskizunak. Izan ere, galdera asko sortzen zaizkie. Hori da niri gustatzen zaidana. Adi-



Rosa Martinez, txotxongiloak altzoan dituela. MAIDER ARREGI

"HAMAR ANTZEZLAN ETA HOGEITA HAMAR TXOTXONGILO INGURU DITUT; BAKOITZA BERE BEREZITASUNAREKIN

bidez, datorren urtean 20 urte beteko ditudanez, ikuskizun berria prestatzen ari naiz eta *bullying*-aren gaia prestatzen dihardut buru-belarri. Nire txotxongiloak etxean gaiaz berba egiteko bide direla ere uste dut.

Txotxongilo mostra ezberdinetan parte hartzen duzu.

Oso interesgarriak dira. Tolosan nire lanek harrera polita izan dute, gainera. Ikastaroak ere eman izan ditut. Datorren hilean, Cuencara joango naiz. Topaketa horietan asko ikasten da besteengandik ere. Giro oso polita sortzen da gure artean.

Askotariko teknikak daude txotxongiloari bizia emateko.

Bai, eta teknika bakoitzari esker, txotxongiloari bizia eta mugimendua emateko askotariko aukerak daude.

Antzuolako Haur Dantzarien Eguna ospatuko da domekan

Oinarin taldeak dena gertu dauka domekako egun osoko festarako; 340 bat dantzarik parte hartuko dute

Maidar Arregi ANTZUOLA

Antzuolako Haur Dantzarien Eguna opatuko da urriaren 20an, domeka. Antzuolako Oinarin dantza taldeaz gain, beste sei herritako dantza taldeek ere parte hartuko dute: Arrasateko bi taldek, Aretxabaletakoak, Sorraluzekoak, Legazpikoak, Zumarragakoak eta Oñatiko taldeak, hain zuzen ere. Zortzi dantza talderen emanaldiak izango dira ikusgai.

Izan ere, 210 haur dantzari etorriko dira eta, guztira –Oinarineko haur dantzariak batu-

ta–, 340 haur dantzarik alaituko dituzte herriko kaleak domekan.

Egun osoko egitaraua prest dute antzuolarrek. Hala, 10:30ean, beste herrietako dantzarietara hurrera egingo diete Herriko Plazan. Goizeko hamaikak aldera hasiko da dantza taldeen kalejira herriko kaleetan barrena. Eta 12:45 aldera, Zurrategi plazan goizeko saioa egingo dute.

13:30ean, aldiz, haurrak etxetara bazkaltzera eramango dituzte eta arratsaldeko saio nagusia 17:30ean hasiko da, Herriko Plazan.

Barrua lantzeko saioak eskainiko ditu Jesus Maria Matak

Ikasturte honetan ere *Nigan* doako saioak izango dira Olanen. Jesus Maria Matak gidatuta, hiru saio eskainiko dira. "Ikastaroan parte hartzen duten euren buruarekin bakean bizitzea eta zoriontsu izatea gura dugu. Eguneroko zenbait egoeraren aurrean zein praktika erabili daitekeen erakusten dugu. Ohartu gara gurasoek euren

haurrekin etxean praktikatzeko ere oso ona dela", aitortu du.

Hamabostean behin, neska-mutikoendako saioa egingo da; hilean behin, helduendako has-tapen ikastaroa; eta hiru astean behin, egunerokotasunean landu gura duten helduendakoa.

Urriaren 24an hasiko da haurren saioa, urriaren 25ean has-tapeneko eta urriaren 29an helduena. Izena emateko, bidali mezua 669 13 29 00 telefonora edo mezua idatzi datuekin *nigan@yahoo.com* helbidera.

OHARRAK

EH Bilduren herri batzarra

Urriaren 22an, Olanen batzarra egingo du EH Bilduk, 18:30ean. Udal jardunaren eta aurrekontuen nondik norakoez jardungo dute. Baita Espainiako hauteskundearen gainean ere.

Organo eta abesbatza emanaldia

Oscar Candendo organo-jole antzuolarrak Bergarako Santa Marina parrokian kontzertua eskainiko du bihar, 19:00etan. Emanaldia Nazioarteko Organo Erromantikoaren Zikloaren baitan eskainiko du, Easo gazte abesbatzarekin batera.

Tailer formatuko hitzaldia

Landatxopek, Kontsumobideren eskutik, *Publizitatearen trikimailuak* izeneko hitzaldia antolatu du hilaren 21erako, astelehena. Olanen 17:00etan izango da tailer forma izango duen hitzaldia.

Pentsiodunen elkarretaratzea

Astelehenero jarraituko dute herriko pentsiodunen eta erretiratuaren elkarretaratzeak. Eguerdiko hamabietan, hamabost minutuz batuko dira pentsio duinak aldarrikatzeko antzuolarrak Herriko Plazan.

'Itsasminez' ikuskizuna Olanen

Ingurumena lantzen duen gaia hezuramituko du Rosa Martinezek Olanen hilaren 27an. *Itsasminez* laneko protagonista Argi da, eta itsasoari zerbait gertatzen zaiola sumatuko du. "Oso ausarta da eta laguntzen saiatuko da. Ikuskizun parte hartzailea da. Argi-beltz teknikari esker, gaztetxoei deigarria egingo zaie antzezlan; oso polita da".



Argi txotxongiloa da *Itsasminez* ikuskizunaren protagonista. MAIDER ARREGI

ETXEBIZITZA & DEKORAZIOA

- Etxebizitza berrien sustapena
- Zaharberritzeak eta efizientzia energetikoa
- BIO-instalazio elektrikoak
- Sukaldeen eta gelen joera berriak



○○ bastida
○○ sukaldeak

Bergara · Ibargarai 36 · 943 767 058
Zarautz | Azpeitia | Donostia
bastidasukaldeak.com

20 urte baino gehiago
egia bihurtzen zure
ametssetako sukaldea

2018arekin alderatuta, etxebizitza berrien salmentak zertxobait behera egin du behera aurten Euskal Autonomia Erkidegoan. Hori dio higiezinaren merkatuaren dinamismo-indizeak; Araban 9,1 egin du behera, Bizkaian 3,1 eta Gipuzkoan 7,5.

Baina Debagoieneko agentziek salmentak izaten jarraitzen dute eta egoera positibotzat jotzen dute Grupo Eibar agentziako Ane Miren Goikoetxeak eta Bيبai agentziako Zigor Aginagaldek. "Bankuekin hipotekak ixteko prozesua luzatu egin da azkenaldian, baina, azkenean, salmentak egiten ditugu", dio lehenak. "Urte ona ari da izaten; lehen seihilekoan salmenta asko izan ditugu, eta bigarrenean zertxobait jaitsi dira. Promozio berriak azaldu dira, eta, logikoa den legez, jendeak informazio guztia izan nahi du eskura erabaki aurretik", dio bigarrenak.

Lorentxoko promozioa

Grupo Eibarrek Bergaran duen Loretxoko promozioan azken etxebizitzak geratzen dira saltzeko. "Urte hasieran, Ernai kaleko 21. atariko etxebizitzak

Salmentak bai, baina ez lehen besteko erritmoan

Azken urtean higiezinaren merkatuaren dinamismo-indizeak behera egin du baina etxe koizleek salmentak edukitzen jarraitzen dute; Debagoieneko agentziek eskaintza interesgarriak dituzte promozioak ixteko, eta promozio berriak ere azaltzen hasi dira



Grupo Eibar taldeak Bergaran duen Loretxoko promozioiko etxebizitza pilotua.

eskrituratu ditugu; guztira, 43 etxebizitza izan dira. Eta une honetan, zortzi etxebizitza geratzen zaizkigu", azaldu du Ane Miren Goikoetxeak.

"Bi logelako etxebizitza guztiak salduta daude, eta orain, hiru eta lau logelakoak geratzen zaizkigu; azkenaldian, argi ikusi da bi logelako eta garajea duten etxebizitzak erraz saltzen ari direla. Saltzeko geratzen zaizkigun hiru logelako etxebizitzek 87 metro koadro erabilgarri dituzte eta laukoek, aldiz, 94 metro".

Ernai kaleko 39. atarian etxebizitza bakarra geratzen zaie salgai. "Hiru gelako duplex bat da. Kasu honetan, ez da azken solairuan kokatutako duplex bat, behe solairuan kokatutakoa baizik. Pisu pilotu moduan jarrita dago, altzari eta guzti. Hala ikusita edo hutsik ikusita, alde nabaria dago".

Bezero berriek finantzatzeko erraztasunak izan dituzten, erosketa eskubidedun alokairuak eskaintzen dituzte: "Bezeroek etxebizitzaren %10 aurreratzen dute, gutxi gorabehera, eta ondoren, hiru urterako alokairu



Alokairuan erosteko aukerarekin. Etxebizitzaren prezioaren %10 sarrera emanez. Informa zaituz!



Bergara
grupo eibar
www.grupoeibar.com
650 442 159 • 943 31 66 11

Handiagoak. Merkeagoak. Partekatutako gunegehiago. Gozamen gehiago. BIZI gehiago.


3 ETA 4 LOGELAKO ETXEBIZITZAK TERRAZA HANDIEKIN!

www.lorentxoko.com

carrascaladapt
sukaldeak bainuak armairuak

**ZEURE NEURRIRA,
ZEURE GUSTURA**

Ekutio 4, Pab. 14-15 • Uribarri Auzoa • 20500 Arrasate
Tel.: 943 79 01 82 • scarrasc_1@infonegocio.com
<http://carrascal.arotzgi.net/>





Gelmako azken etxebizitzak, Arrasaten.

kontratua sinatzen dute. Alokairuaren prezioa merkatuko prezioaren antzerakoa izatena da, orokorrean".

Gelmako azken etxebizitzak

Gelma "indarra" hartzen hasi da Arrasateko guneko edo auzo bezala. Askotariko zerbitzuak daude bertan, eta Bibai agentziako Zigor Aginagaldekin dio hori igarri egiten dela etxebizitzak saltzeko momentuan. "Gel-

mako plazak sekulako indarra hartu du, eta oso bizirik dagoen auzoa da. Irailean egin dituzten bigarren auzoko festak dira horren adibide. Duela gutxi, farmazia bat ireki dute bertan, eta 1990 taberna-jatetxeak sekulako bizitasuna eman dio plazari. Horrez gain, ingeles akademia eta halako zerbitzuak ere hor daude, eta horrek guztiak asko laguntzen digu etxebizitzak saltzeko orduan; etxebizitzaren era-

kargarratasuna handitzen du. 445 familia daude hemen bizitzen une honetan, eta horrek auzo giroa sortzen laguntzen du, eta negozioak erakartzen ditu".

Zenbat etxebizitza dauden salgai galdetuta, hona Aginagaldere erantzuna: "Gaur egun, azken etxebizitzak geratzen zaizkigu salgai; ez dira hamabostera heltzen. Bi logelako bakarra geratzen zaigu, beste bloke batean etxebizitza bakar

bat, beste batean bi... Saltzeko ditugun etxebizitzaren %70 hiru logelakoak dira eta gainontzeko gehienak, lauakoak". Hori-tako gehienak seigarren pisuan kokatutako etxebizitzak dira eta gainontzekoak, aldiz, lehen solairuetakoak. "Lehen solairuan daudeneko prezio baxuagoak dituzte, eta saltzeko dituguneko prezioa oso erakargarria dela esango nuke. Seigarren pisuan kokatutakoak garestiagoak dira. Normala da hori, kontuan izanda ikuspegi zabalagoa eskaintzen duten etxebizitzak direla".

Gelmako etxebizitzez gain, bigarren eskuko etxebizitzak ere saltzen dituzte Bibai agentzian. "Orain arte, oso ondo saldu ditugu, batez ere, erdialdean kokatutakoak eta garajea eta igogailua dituztenak. Badago beste bezero segmentu bat, erdialdetik urrunago dauden etxeak merke erosten dituenak, ostean zaharberritze handia egiteko. Baina, horretarako, etxebizitzaren prezioa oso baxua izan behar da, honen eta zaharberritzearen kostu totala erdialdeko etxebizitzaren azpitik geratzeko".

BI LOGELAKO ETXEBIZITZAK ASKO SALDU DIRA; HIRU ETA LAU LOGELAKOAK BAINO GEHIAGO

EROSKETA AUKERAKO ALOKAIKURAK ESKAINTZEN DIZKIE BEZEROEI GRUPO EIBAR TALDEAK

GELMAKO PROMOZIOAN, 15 ETXEBIZITZA DAUDE SALGAI; GEHIENAK, HIRU LOGELAKOAK

ERDIALDEAN DAUDEN BIGARREN ESKUKO ETXEBIZITZAK OSO ONDO SALDU DITU BIBAI AGENTZIAK

445 ETXEBIZITZA SALDU ONDOREN

GELMAKO AZKENAK

ATIKOA

11, 6.A

13, 6.B

15, 6.A

21, 6.B

9, 4.B

9, 1.B

15, 1.B

21, 1.C

Engidatzena: QRE/CAPV/2019/00152653T

C

84

17

obenerreka

www.inmobibai.com

Nire etxea saldu behar badut?

EZ KEZKATU zurea saldu arte ez duzu eeskrituraturako

%100eko arrakasta azkeneko 5 urteetan

3 logela

4 logela

atikoa

100,00 m² barneko azalera
120,00 m² barneko azalera
140,00 m² barneko azalera

BIBAI

Tel 943 25 38 21

E-mail: info@inmobibai.com

Deba kalea 3 - 20500 Arrasate (Gipuzkoa)



Olarte kalean egin behar dituzten ia kontsumorik gabeko etxebizitzaren irudia, laster salgai egongo direnak.

Etorkizuneko etxeak, ia kontsumo gabekoak

Diseinu egokia aukeratuta %80 murriztu daiteke etxebizitza baten energia kontsumoa. Lan horretan urteetako esperientzia du Ekitermik kooperatibak, eta, hain zuzen, etorkizuneko erronka apenas kontsumituko duten etxeak direla azaldu dute

Ekitermik Arrasateko Garaia Berrikuntza Gunean kokatuta dagoen kooperatiba da, bailara osoko lantaldeak osatua: arkitektoak, teknikariak eta ingeniariak. Etxebizitza, baserri eta lokalak zaharberritzen dituzte eta efizientzia energetikoan adituak dira.

Garrantzi handia ematen diote eta argi dute soluzio eta diseinu egokiek "80% aurreztu daitekeela" energia kontsumoan. Hain zuzen, etorkizuneko joera bide horretatik datorrela adierazi dute: "Ia kontsumorik gabeko etxeak izango itugu etorkizuneko; gaur egun, jada posible dira. Gainera, behar duen kontsumoa energia iturri berriztagarrietatik lortzen da". Ekitermik Andoni Altubek azaldu ditu gakoak.

Leihoak, beira hirukoitzarekin

"Orain arte, beira bikoitza duten leihoak jarri izan dira etxeetan, baina, azken urteetan, hirukoitzekin hasi gara lanean". Era horretara etxebizitza ondo isolatuta geratzen da eta ez da energiari galtzen. Horrela, etxebizitzak barruko beroa gor-

detzen du neguan, eta, era berean, freskotasuna udan. Isolamendu termikoaz gain, akustikoa ere badute leiho hirukoitzek. Hala, isolamendu termiko handia lortzeko, leihoez gain, hormen isolamendua "14 bat zentimetroko lodierakoa izatea komeni da".

Eraikin hermetikoak

Etxebizitzek hermetikoak izan behar dute, aire filtraziorik egon ez dadin. Helburu horretan, lamina espezializatuak erabiltzen dira. Airearen kalitatea ona izan dadin, aireztapen sistema bereziak jartzen dira, energiari galduta gabe etxebizitza barrua aireztatzeko: "Orain arte erakitako etxeetan, zenbaitetan, airea filtratu eta energia galtzen da. Lamina bereziak jartzen ditugu, etxea hermetiko egiten dutenak".

Eraiberrizetan ere bai

Eraikin berrietan soilik ez, etxebizitza berrizterakoan ere ezarri daitezke energia aurrezteko bide hauek: "Eraikinaren aurreko egoerak baldintzatzen duen arren, lan hauekin %80 murriztu daiteke energia kontsumoa".



Ixotuk bio-instalazio elektrikoak egiten ditu, eta espazio osasungarriak eraiki

ZERBITZUAK:

Bio-instalazio elektrikoak

Instalazio eta mantentze lan industrialak

Argiztapenean adituak

Barne arkitektura proiektuak

Gorka 629 73 90 16

Oihana 661 64 13 14

San Lorenzo 207. pol., Haitz iturri 1, 7. lokala • Bergara • 943 04 47 28



Argia eta elektrizitatea, zaindu beharreko arloak

Bergarako Ixotu enpresak esperientzia handia du etxebizitza eta lan inguruneak osasuntsuago bilakatzen. Horretarako, argiaren eta elektrizitatearen indarra baliatzen dute, eta instalazioen erabilera egoki eta, batez ere, arduratsua bultzatu

Bergarako Ixotu enpresa instalazio elektriko osasuntsuetan eta argiaren banaketa zentzuzkoan aditua da, eta, hain zuzen ere, etxebizitza partikularrak eta lan inguruneak espazio osasuntsu bilakatzen esperientzia handia du.

Talde "dinamikoa" osatzen dute Ixotuko langileek, eta une oro teknikak eraberritzen eta proiektu berriak bultzatzen aritzen dira. Bezeroen beharretara egokitzen direla azaldu dute lantaldeko kideek, eta "soluzio pertsonalizatuak" eskaintzen dituzte, eraikin bat autosufiziente izatera irits dadin.



Eremu elektro-magnetiko eta uhinak neurtzeko gailuak, logela batean.

Puntako teknologia

"Kutsadura elektrikoa murrizteko ezinbestekoa da lurrerako hargune on bat; hau da, 5 ohm baino gutxiagokoa. Etxebizitzan kasuan, instalazio guztia; entxufe, luminaria, etengailu eta atal metalikoak bertara konektatuta egon behar dute".

Hori guztiori posible egiteko, ikerketa geoteknikoa egitea komeni da, eta, gerora, ikerketa geoelektrikoa, lurraren erresistentzia ezagutzeko. Era horretara, gune neutroak bilatzen dira: eraikinaren hargune elektrikoan eragozpenik izango ez duten guneak, hain zuzen.

Logelak, "bereziki zainduak"

"Lo egiteko espazioetan arreta bereziarekin egiten ditugu instalazio elektrikoak. Izan ere, oso garrantzitsua da ahalik eta gehien murriztea kanpo magnetikoen eta elektrikoen presentzia lo gaudela". Hala, helburu horrekin, zirkuitu bereziak jartzen dituzte logela bakoitzean, estantzia bakoitzak nahi duen unean bere instalazioa deskonektatu ahal izateko, *bioswitch*-a baliatuz.

Era berean, profil teknikodun profesionalak gai horrekin konzentzatu beharra azpimarratu dute: "Arkitekto, aparejadore edota diseinatzaileek argiaren banaketa osasuntsuagoa egin behar dute, bai eraikin berrietan, baita eraberritukoetan ere. Esate baterako, logelak sukaldeetatik urrun kokatu beharko lirateke, azken hauetan mugimendu elektriko handia egoten baita".

Eguzki izpien garrantzia

Hirietan bizi diren pertsonen eguneroko denboraren %80 eguzki argi gutxiko guneetan igarotzen dute. Hala, eraikinen barnealdeko argia ongi diseinatu egoteak "berebiziko garrantzia" du: "Eraikin barnealdeetan ordu asko igaro ohi ditugu, eta, gaizki diseinatutako argi instalazio baten ondorioz, depresioa, atentzio falta edota estresaren areagotzea sufritu ditzakegu".

Espazio bat diseinatzekoan, teknikariek argi kantitate biodinamikoa eta honen kalitatea -bereziki, kolore eta kontrastea- aztertu behar dituzte espazioen banaketa aproposa egiteko.

eki termik

efizientzia energetikoa

ETXEBIZITZEN ERREFORMA INTEGRALAK

Gu arduratuko gara guztiaz

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe



☎ 688 870 219

🌐 www.ekitermik.com

✉ ekitermik@ekitermik.com



Norberaren estiloa, ezinbesteko dekorazioan

Bergarako Ugarte Aroztegiak eta Bastida Sukaldeak-ek dekorazioko azken tendentzien erreposoa egin dute, baita Arrasateko Carrascal Aroztegiak ere. Berrikuntzak berrikuntza, nork bere estiloari "eutsi beharra" azpimarratu dute hirurek

Etxebizitza dekoratzerakoan gure identitateari fidela den espazio bat sortzea beharrezkoa dela diote adituek. Aulki batek, mahaiak edota argiak berak eroso sentiarazi behar dituzte espazio hori bete eta bertan biziko diren pertsonak. Hala azpimarratu dute Bergarako Ugarte Aroztegiak eta Bastida Sukaldeak-eko kideek, baita Arrasaten kokatuta dagoen Carrascal Aroztegiak ere.

Estilo minimalista nagusi

Ugarte Aroztegiaren kontatu dutenez, higigarrietan, estilo minimalista eta modernoa asko erabiltzen da, estilo industrialarekin nahastuta. Estetikaz gain ere, gauzak gordetzeko espaziodun altzariak eskatzen dituzte bezeroek, erosoak eta praktikoak direnak. Gaur egun, gainera, egurimitazioko altzari sintetikoaren aldeko apustua egiten da, tonalitate ezberdinetan; zuri, beltz edo gris koloreekin nahastuta.

Logela eta egongeletan, espazio ahalik eta gehien aprobetxatzea bilatzen da, eta antolamendu egokia ezinbestekoa da: "Erosotasunaz ahaztu gabe, espazioaren mugetara ahalik eta ondoen egokitzen gara".

Sukalderako tendentziak

Bergarako Bastida Sukaldeak-ek, lehen mailako prestakuntza eta kalitatea bermatzeaz batera, pertsonalizatuak eta bezeroendako etxebizitzara egokitutako sukaldeak egiten ditu, profesional talde handi baten laguntzaz.

Azken tendentziak, gaur egun, sukalde ilunak direla adierazi du bertako Ione Bastidak. "Egia da gehien jartzen dena sukalde zuria dela oraindik ere, baina, azkeneko urteetan Milango ferian ikusi denez, sukalde iluna furtu dator. Tendentziak denboratxo bat behar izaten dute jendea animatzen den arte". Materialei dagokienez, sukalde zeramikoak dira nagusi, bai estalkietan eta bai altzarietan".

Bastidatik diotenez, funtzionalitatea da, batez ere, bezeroek eskatzen dutena. "Azken finean, sukalde bat ez da egunero erosten dugun zerbait, urte asko iraun behar du; beraz, oso garrantzitsua da kalitatezko materialak erabiltzea".

"FUNTZIONALITATEA DA, BATEZ ERE, BEZEROEK ESKATZEN DUTENA, KALITATE ONAREKIN BATERA"

Lanerako tresnak, gertu

Lanerako gune erosoak izateko elementu guztiak gertu egotea ezinbestekoa dela adierazi dute: "Garrantzitsua da lanerako sua, harraska, hozkailua eta elikagaiak manipulatzeko gunea elkarren artean gertu egotea. Horretan oinarrituta diseinu polit bat izateko, arkitekto baten eskuetan jarri eta daukagun produktu eskaintzarekin, diseinu bikainak lor daitezke".

Neurrira egindakoak

Arrasateko Carrascal Aroztegiaren ere mota askotako altzarietan lan egiten dute; armairuak, dekorazio elementuak, baita sukalde eta komunetako armairuak ere. Kontatu dutenez, zuri kolorea da azkenaldi honetan arrakastatsua, bai sukaldeetan, baita komun espazioetan ere. Armairuei dagokienez, bezeroaren beharrei egokitutako aukerak dituzte, etxe bakoitzaren neurrira moldatuta: "Hauen kasuan, ate irristakor, tolesgarri, estratifikatu, melamina, lakatu, eta abarrekin lan egiten dugu, aukera ezberdinak eskainiz". Ate eta burdin fabrikatzaile desberdinekin ere harremanetan jartzen dira, eta, ondorioz, kolore eta akabera sorta zabala eskaintzen dute Carrascal-en.



Bastida sukaldeak eskaintzen dituen azken tendentziak, kolore ilunetan.



Ugarte aroztegiaren altzari zuridun logela, azken moda jarraituz.



Carrascal Aroztegiak egindako armairua.

UGARTE
AROTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoak
Horma-Armairuak
Altzariak neurrira
Ateak · Eskailerak ·
Leihoak · Tarimak ·
Egur lanak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

AROTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com



"Bakea da Ruandan, baina bake behartua da"

JUAN CRUZ JUARISTI ELGETAKO PARROKOA

25 urte dira Ruandan genozidioa gertatu zela. Elgetako abadeak 37 urte egin zituen han, eta abuztuan egon da berriz. Zauriek itxi barik jarraitzen dutela dio

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Juan Cruz Juaristik (Zarautz, 1932) hamazazpi urte daramatza Elgetan abade. Aurretik, etapa luzea egin zuen Ruandan, eta 1994ko genozidioaren lekuko izan zen, handik irteteko agindua jaso zuen arte. Laster itzuli zen, eta 2001era arte gelditu zen han. Orain, bisitan joaten da aukera daukanean.

Ruandako zein eremutan egon zara 37 urtez misiolari?

Mugina izeneko eremuan egon nintzen. Zazpi abade egon ginen, eta bi parrokia sortu genituen. Ruanda oso menditsua eta berdea da, eta Mugina lautada moduko bat da. 40.000 bat lagun biziko dira han, eta nekazariak dira, gehienbat. Biztanleria handia eta gaztea du Muginak, Ruandak moduan.

25 urte dira genozidioa gertatu zela. Zauriak itxi dira?

Oso zaila da zauriak ixtea. Genozidioa izan zen, eta oihartzun handia izan zuen, baina nik beti



Juan Cruz Juaristi, Ruandan egon zen urteetan ateratako argazki batekin. L.Z.L.

esaten dut kontra-genozidio bat ere egon zela, eta horren inguruan gutxi hitz egin dela. Hilketa asko izan ziren, eta bada jendea oraindik ere kartzelan edo erbestean dagoena. Gaur egungo Gobernuak genozidioa

azaltzen du munduaren aurrean, eta gelditzea lortu zutenak bezala aurkezten dira, baina armadak ondoren eragindako hilketak ez dituzte aipatu ere egiten. Bakea da Ruandan, baina bake behartua da. Gobernu

autoritarioa da, eta oso indartsua, AEBen babesa duelako. Hautes-kundeak egiten dituzte, baina ez dira demokratikoak, eta oposizioa kartzelan edo erbestean dago. Ez da benetako bake prozesurik egin, eta, horrela, zaila da zauriak ixtea.

Segurtasun aldetik Afrikako herrialderik seguruena dela diote.

Izan daiteke; izan ere, kontrola oso zorrotza da. Gero, hilketa politikoak ere badaude. Horien berririk ez zaigu iristen, baina duela gutxi hil dute oposizioko beste kide bat. Victoire Ingabire kartzelatik atera dute, baina alderdikide bat hil dute.

Gauza askoren lekuko izan zara, eta ikusitakoak idatziz jaso dituzu.

Bai. Amaitzear nago eta laster eramango dut dokumentazioa misioetarako elizbarrutiko artxibora. Ruandako nuntziatura ere bidali nahi dut, baina geroago beharko du. Gaur egungo Gobernuarekin ezin da. Mugina eta inguruan gertatutakoak jaso ditut. Nire artxiboa da; nik ikusitakoak eta ezagutzen ditudan beste lekuko batzuen testigantzak daude bertan. Prentsak gauza asko zabaldu zituen, eta, nik ditudan datuen arabera, guztiak ez dira benetakoak. Irakurri izan dugu, esaterako, bombardaketa baten eraginez eliza jakin bat jausi zela eta bertan babesa hartuta zeuden hainbat lagun hil zirela. Hara joan, eta eliza osorik zegoen... Ruandan gauza asko gertatu dira eta ika-

ragarriak, baina kazetari batzuek fundamenturik gabe egin dute beraien lana.

Bi hamarkada hauetan herrialdeak aurrera egin du?

Garapen handia egon da Ruandan, eta horretan zerikusia du kanpotik jasotzen duen babesak. Nire ustea da AEBei ez zaiela interesatzen Ruandan istilurik egotea, eta indarrean dagoen Gobernuak laguntzen ari direla. Ekonomia oso ondo doa, azpiegitura aldetik garapen handia egon da, errepedeak eta eskolak egin dituzte, argindarra ere leku askotara zabaldu dute... Hori horrela da, baina mikroekonomia datuak zein eskoletan edo unibertsitateetan dagoen maila begiratzen badugu, beste irakurketa bat egin daiteke. Hiri-buruari, Kigaliri, *Afrikako Singapur* esaten diote, eta ikusgarria da, baina, Ruandako beste eremu batzuetara begiratzen badugu, oso bestelako egoerak ikusiko ditugu. Gizarte mailan gero eta arrakala handiagoak daude. Abuztuan astebete egin dut han. Zazpi apaiz eta hiru diakonoren ordenaziora joan nintzen. Eskola profesionala sortzen ari gara. Ikustera ere joan nintzen.

"MUGINA-N ESKOLA PROFESIONALA SORTZEN ARI GARA ETA IKUSTERA ERE JOAN NINTZEN"

Marrazki lehiaketa eta ipuin saio bereziak liburutegian

Eguenean eta barikuan izango dira ipuin saioak, eta marrazkietarako gaia da: 'Nork irakurtzen du etxean?'

L.Z.L. ELGETA

Urriaren 24an izango den Bibliotekaren Egunaren harira hainbat ekintza antolatu ditu Elgetako Udal Liburutegiak, eta saio gehienak hurrengo aste bukaeran izango dira.

Ipuin saio bereziak

Eguenean, urriak 24, *Beldartxo jatuna* familia ikuskizuna egingo du Didau antzerki faktoriak, 18:00etan. Amaieran, liburu bat zozketatuko du Udal Liburutegiak, mailegu zerbitzuko erabilzaileen artean.

Hilaren 25rako, berriz, ipuin saio berezia dago iragarrita. Saio bakarra izango da, eta 17:25ean hasiko da.

Marrazki lehiaketa

Bestalde, urtero moduan, martxan da liburutegiko marrazki lehiaketa. Zazpigarren urtez egingo dute eta aurten gaia da: *Nork irakurtzen du etxean?* Parte hartzaile bakoitzeko marrazki bakarra onartuko dute, eta hiru adin tarte izango dira: 5-8 urte, 9-12 eta 13-16. Urriaren 31rako aurkeztu behar dira lanak.

Domekan, mendi irteera Urbasako Maiza tontorrera

Kantsatzeke mendi taldeak irteera iragarri du domekarako. "Urbasa aldera joango gara, Maiza tontorrera (1.182 metro). Udazkena izanik, eta eguraldiak laguntzen badu, bertako pagadiez eta goi larreez gozatzeko aukera izango dugu, goitik izango ditugun ikuspegi paregabeaz ahaztu gabe -Aratz, Aizkorri, Aralar, Beriain...-. Iaz Barbagainera egindako buelta ederra izan bazen, aurten ekialderago dagoen Maiza bisitatuko dugu, eta honek ere emango digu beste gozatu bat hartzeko aukera".

Jakinarazi dute lau bat orduko ibilbidea izango dela. Taldea 08:00etan abiatuko da, autoz, Elgetatik.

Funtzio kognitiboak lantzeko memoria tailerra, abiatzear

Bideberri mankomunitateak antolatuta, memoria lantzeko tailerra egin dute, laugarren urtez, Elgetan. Ordu eta erdiko hamahiru saio izan dira azaroaren 6an hasi eta otsailaren 12ra bitartean. Aurrekoetan moduan, kultura etxean izango dira, eguaztenetan, 09:30etik 11:00etara. Askotariko funtzio kognitiboak landu dituzte, eta parte hartzaileek etxean lanketarekin jarraitzeko erremintak jasoko dituzte. Tailerra doan da eta plazak mugatuak dira. Interesatuak urriaren 31ra arte dute udaletxeko Gizarte Zerbitzuetan izena emateko. Argibide gehiagorako, 943 76 80 22 telefono zenbakira deitu behar da.

OHARRAK

Pilota txapelketa

Gaur, barikua, emango diote hasiera binakako pilota txapelketari. Lau norgehiagoka daude iragarrita, 19:30ean hasita.

Irteera Gernikara

Xalbadorpe erretiratuen elkarteak Gernikako azokara antolatu duen irteerarako izen-ematea domekan da, 11:00etatik 12:00etara, Ozkarbi elkartearen.

Iruzur ohikoenak

Kontsumobideko hezitzaile batek *Ez zaitzatela engaina: iruzur eta engainu ohikoenak* delako hitzaldia egingo du eguaztenean, hilak 23, 17:00etan, udaletxean.



Adin askotariko bergararrak Deba ibaiaren Bideberriko tartean, erreka garbitzeko auzolanaren berri ematen. ERREKA GARBIKETA BATZORDEA

Erreka garbitzeko, iaz baino 100 lagun gehiago

Iaz partaidetzan egon zen beherakadari buelta eman, eta 175 bat lagun lortu ditu erreka batzordeak biharko auzolanerako, eta nobedade nagusia da umeendako tailerrak egongo direla Usondo parkean; hamaiketako Seminarioko patioan izango da (13:30)

Jokin Bereziartua BERGARA

Atzo izen-ematea itxi aurretik erreka garbiketarako batzordeak emandako azken datuaren arabera, 175 bat lagun elkartuko dira bihar erreka auzolanean garbitzeko deialdian. "Iaz, jaitziera izan zen partaidetzan, 80 bat lagun bakarrik elkartu ginen-eta. Eta orduan pentsatu genuen aurtengora begira joera

horri buelta eman behar zitzaio-la", adierazi du erreka garbiketarako batzordeko Arienne Kareagak. 2013an egin zen lehenengoz, eta, beraz, aurten zazpigarren urtez egingo da jarraian.

Hiru puntutan elkartzeko gonbidapena egin dute, urtero moduan: Seminarioko patioan, Labegaraietan eta Osintxun. Iaz ez zuten talderik sortu Osintxun;

aurten, azken orduan izan bada ere, lortu dute Osintxu ingurua garbitzeko taldea osatzea. Aipatzekoa da erreka garbiketarako batzordeak 17 tramutan banatu duela Deba ibaiak Bergaran egiten duen tartea; ahalik eta hedadura zabalena hartzen saiatzen diren arren, ezinezkoa izaten da goiz baten tramu horietan guztietan erreka jaistea.

Epeletik Osintxura, 17 zati zehaztuta

Erreka garbiketarako batzordeak 17 zati zehaztu ditu aurten ere auzolanari begira. Zati bakoitzak arduradun bat izango du eta arduradun horiek walkie-talkie bidez, komunikatuko dira garbiketa ahalik eta eraginkorrena izan dadin. 2013an egin zen garbiketa lehenengoz, eta, orduan, tamaina handiko zaborra kendu zuten, bereziki; hala ere, egungo sentsazioa da, batzordearen arabera, gero eta zabor gutxiago dagoela. Erdigunea, adibidez, urtero garbitzen dute: "Herritarrak kalean daudenean jendea erreka garbitzen ikustea irudi indartsua da sentsibilizaziorako; erdigunean litxarrerien poltsa edo bestelako plastiko asko batzen dira, lurrera bota eta haizeak erreka eramanda", gaineratu dute. Puntu beltzak ere badira; ortuen inguruak, kasu: "Horiek guztiak salatu egiten ditugu gero udaletxean".

Familian gozatzeko plana

Familian gozatzeko auzolana da askorentzat, Kareagak aitortu duenez: "Belaunaldi berrien sentsibilizaziorako ekintza oso egokia da, eta umeei asko gustatzen zaie, gainera. Badakigu familia batzuek ezingo dutela parte hartu beste konpromiso batzuegatik, eta esan digute umeak haserretu zaizkiela ezingo dutelako parte hartu".

Tailerrak eta hamaiketako

Horrez gain, jaisteko punturik errazena erdigunean egoten dira, eta, horregatik, ume gehienak Usondo egongo dira bihar. Hain zuzen, aurtengo nobedadeetako bat da tailerrak ere antolatu dituztela umeentzat, Usondo bertan. 11:00etatik 13:00etara izango dira: 3 eta 5 urte artekoek mural bat margotuko dute eta kareak egingo dituzte eta 5 urtetik gorakoek ibaiaren ekosistema berrekitzeko ariketa bat egingo dute.

Errekan batutako zaborra Seminarioko patioan jartzen dituzten edukiontzietara botako dute: errefusaz harago, egurra eta burdina bereizten dituzte. 2013an, adibidez, San Martin plazan egon

zen zaborra ikusgai asteburuan: "Orain, ez dugu egiten, zabor asko batzen delako eta arazo bihur daitekeelako". Auzolana borobiltzeko, ohikoa denez, hamaiketako egongo da parte hartzaile guztiendako, Seminarioko (13:30). Izan ere, garbiketarako lantaldeaz gain, badago hamaiketako prestatzeaz arduratzen den taldea ere.

Ohar praktiko batzuk

Erreka batzordeak hainbat ohar eman dizkie biharko garbiketaren parte hartuko duten bergararrei: zapatila edo mendiko bota zaharrak katiuskak baino egokiagoak direla, baina katiuska altuak dituenak eraman ditzala; daukanak eskularruak etxetik eraman ditzala; eta tramuetan ur botilak egongo diren arren, ahal duenak etxetik eraman dezala bere kantinplora edo ur botila, besteak beste.

AURTEN LEHEN ALDIZ UMEENDAKO TAILERRAK EGONGO DIRA USONDO PARKEAN

GOIENA TELEBISTA
UDAZKENEKO PROGRAMAZIO BERRIA

**DEBAGOIENETIK
NDANK NDANK SENEGALERA**

GOIENA TELEBISTA, ERREPORTAJEA

URRIAREN 24AN, EGUENEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN

NDANK NDANK ELKARTEAREKIN ELKARLANEAN EKOIZTUTAKO ERREPORTAJEA.



goiena
Zu hemen zaude.

"Dena ematera irtengo naiz, ez dago aitzakiarik"

FERNANDO COBOS TXAKUR KROS LASTERKARIA

Belgikan jokatu den Europako txakur kros txapelketan lehiatuko da Cobos bihar eta etzi, beteranoetan: "Motza eta azkarra izango da; lehen bosten artean amaitzea da helburua"

Jokin Bereziartua BERGARA

Lehiatzen jarraitzeko gogotsu dago oraindik ere aspalditik Bergaran bizi den Fernando Cobos (Beasain, 1959), Pol-Pol taldeko txakur kros korrikalaria. Chevatogne-n (Belgika) dago martitzena ezkerro, bertan jokatuko duelako asteburuan zehar Europako txakur kros txapelketa. Beste bi euskaldunekin batera joan da Belgikara, Kimetz eta Iurgi Etxaberekin batera.

Belgikan zaude martitzena ezkerro. Zertarako joan zinen horren goiz?

Proba ahalik eta ondoen prestatzeko asmoz etorri gara, zirkuitua ondo ezagutu nahi genuelako. Normalean, hala egiten dut kanpora natorrenean, lasterketa baino lau egun lehenago etorri ohi naiz. Europako txapelketarako probak zapatuan eta domekan izango dira eta nire helburua da nire modalitatean [Master 3] lehen bosten artean amaitzea.

Ze proba izango dira, zehazki?

Bi lasterketa dira, eta bakoitzak bost kilometro eta 400 metro izango ditu. Beraz, oso motzak eta azkarrak izango dira; hasieratik bukaerara, dena ematera. Helburua ziurtatzeko, kilometroa hiru minutu eta hamar segundoren bueltan egin beharko dut. Baina denok izango dugu era-



Asturiasko proban, urtarrean. LEIRE ZIARRETA

gozpen aipagarri bat: azken egunotan euria etengabe ari du hemen [Belgika] eta zirkuitua lokatzez beteta egongo da. Horrek asko atzeratuko du buruan ditugun denborak egitea.

Europako txapelketa bukatutakoan ez da ezer amaitzen zuretzat, ezta?

Orduan hasiko da nire denboraldia, txakur krosa neguko kirola da eta. Azaroan hasiko da eta martxoan bukatu, lurrean zein elurrean. Espainiako txapelketa barruko probak izango ditut martxora bitartean, lasterketa bat bestearen atzetik.

Kimetz eta Iurgi Etxaberekin batera joan zara. Nola ikusten dituzu?

Bereziki, Kimetz ikusten dut indartsu; baldintza normaletan, kilometroa egiteko hiru minutu baino gutxiago behar izaten ditu, eta uste dut podiuma egingo duela junior mailan.

Nola joan dira zure azken probak?

Espainiako txapelketako proba puntuagarrietan ondo ibili naiz, bestela ez ninduten-eta Europako txapelketarako aukeratuko. Beraz, azken lasterketetan eman dudana mailarekin gustura nago.

Kirol gutxitua denik zalantzarik ez. Badago Pol-Polen zure bidea jarraituko duen txakur kros zalerik?

Oraingoz, bakarrik nago. Pol-Pol barruan neguko kirolen adarra irten zenean aprobetxatu nuen federatu moduan lehiatzeko. Duela zazpi urte hasi ginen horrela, baina orain, bakarrik nago.

Noiz arte jarraituko duzu lehiatzen?

Txakurkume bat prestatzen ari naiz oraindik, eta, beraz, gogotsu nago jarraitzeko. Belgikan Rai-rekin ibiliko naiz; txakurra Bergaran ondo prestatzeko hamar gradu gutxiago beharko nituen, giro beroegia egin du. Suediarrek eta finlandiarrek ez dute arazo hori izango... baina ez dago aitzakiarik; hasieratik dena ematera irtengo naiz, eta ea helburua lortzen dudana.

GORA ETA BEHERA



E.A.

Autokarabanen gunea, sarritan, "negargarri"



Labegaraietako autokarabanen gunea "negargarri" egon ohi dela dio herritar batek: "Udalak edo dagokion erakundeak ez ditu batzen zaborrontzietako hondakinak behar den maiztasunez".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

OHARRAK

Ndank Ndank protagonista duen erreportajea

'Debagoienetik Ndank Ndank Senegalera' izenburu duen erreportajea ikusi ahalgo da urriaren 22an, Irizarren (19:00).

Lubaki Langile Elkartasun Sarearen aurkezpena

Bihar, urriak 19, Lubaki aurkezteko batzar informatiboa egingo dute Irizarren (17:00); 20:00etan hasita, kontzertuak gaztetxean.

Kirol Argazkien Lehiaketa, azaroaren 6ra arte

Parte hartzeko, Agorrosinera bidali behar dira argazkiak, posta arruntez. Sariak azaroaren 15ean banatuko dira.

Oparitu Zuhaitz Bat ekimenaren beste saio bat

Urriaren 24an egingo dute hurrengoa, Udal Liburutegian (19:30).

1937an eta 1964an jaiotako ospakizuna

1937koek azaroaren 9an Sirimiri jatetxean bazkalduko dute. Izena emateko Sirimiritik pasatu beharra dago azaroaren 5a baino lehen, eta 20 euro kostatzen den txartela eskuratu. 1964koek azaroaren 23an batzokian afalduko dute; Ariznoa parean elkartuko dira, 20:00etan. Izena eman behar da azaroaren 9a baino lehen, Ikuz garbategian, azokan edo Zerkauzi dendan.

Aitor Zabaleta
Tel.: 606 58 18 10
www.txipi.com

TXIPI
LEIHO ISOLATZAILEAK

Amillaga 5, behea - BERGARA

TELEIXA BILTEGIAK

Eraikuntza materialak

Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

BERGARA MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enjimerak

Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

Gizarte arloko eskaeren %13 dira atzerritarrena

Gizarte zerbitzuetako azken memoriaren arabera, erabiltzaileen %87 Espainiakoa da, etorkinak zerbitzu horiez aprobetxatzen direla dioten esamesak gezurtatuz; gero eta jendetsuagoa den hirugarren adinaren beharrei erantzutea izango da erronka nagusia

Jokin Bereziartua BERGARA

Gizarte zerbitzuak dira Udalaren zutabe nagusietako bat, eta gizarte gero eta zaharragoa dela ikusita etorkizunean zutabe are garrantzitsuagoa izango direla aurreikus daiteke. Hain zuzen, hirugarren adinaren beharrei erantzutea izango da, dagoeneko ez bada, Udalaren politikaren etorkizuneko erronka nagusietako bat. "Ukaezina da Bergara ere zahartzen ari dela, eta garbi daukagu hirugarren adinari eta menpekotasunari begira politikak sustatu behar ditugula. Ez du balio hamar urte barru, egoera horretan gaudean, lanketetan hastea. Are gehiago, uste dut honezkero berandu ari garela", uste du Ongizate zinegotzi Ainhoa Letek.

Baina Bergarako gizarte zerbitzuen zehar-lerroko helburuak ere badira, besteak beste, garapen sozioekonomikoa eta berdintasuna sustatzea. "Ber-



Gizarte zerbitzuetarako leihatila den Bergararren Arreta Zerbitzua, martitzenean. J.B.

dintasuna gizarteko arlo guztietan txertatu behar dugu. Horretarako, baina, baliabideak jarri behar dira: Berdintasun teknikari bat beharko dugu, gainerako teknikariek eta beste eragile batzuekin jardun osoz lan egingo duena", gaineratu du Letek.

Gastuak eta espedienteek behera Udalak gizarte zerbitzuen memoria aurkezteko agerraldia egin ohi du urtero, eta aurten ere 2018ko hainbat eta hainbat datu eman zituzten. Adibidez: Udalaren 2018ko gastu orokorra 24.857.040 eurokoa izan bazen, horietatik 1.825.331 euro (%7,34)

Eguneko zentro berrirako datarik ez

Menpekotasun egoeran dauden bergarrei begirako eguneko zentro berria noiz irekiko den galdetuta, gizarte zerbitzuek diote ez dagoela datarik, oraingoz: "Obra amaituta eta Diputazioaren ikuskaritza eginda dago, eta orain, jabetza kontuekin ari dira; gero, Diputazioak zerbitzua esleituko du", dio teknikariburu Xabier Legorburuk. 35 erabiltzaile artatuko dira zentro berrian, gaur egun San Joxepen-Boni Laskurain kalean- dagoen zentroan baino hamar gehiago. Hain zuzen, Ernaikoa irekitzen denean, San Joxepekoa erabili da menpekotasun arriskuan dauden edota menpekotasun maila baxua edo arina duten erabiltzaileentzat. "Intentsitate baxuko zentroa izango da San Joxepekoa; erabiltzaileak ez dira zertan egunero joan beharko eta bi edo hiru orduz egongo dira. Eman beharreko zerbitzua da guretzat".

bideratu ziren gizarte zerbitzuetara. Gizarte zerbitzuen gastuan jaitsiera nabarmena izan zen iaz, urte hartan hasi zelako Diputazioaren Kabia erakundea Mizpirualde egoitza kudeatzen; 1.800.000 eurokoa izan zen 2018ko gastua eta %7,34 jaitsi zen 2017koarekin alderatuta. Artatutako pertsonak, berriz, 8.305 izan ziren, 2017an baino 1.222 gutxiago. Eta tramitatutako espedienteetan ere jaitsiera bat izan zen 2018an, 2017arekin alderatuta; 1.544 izan ziren iaz, duela bi urte baino %5,01 gutxiago. Aipatzekoa da espedienteen %55,63 menpekotasunarekin lotutakoak izan zirela 2018an.

%87 ez da atzerritarra

Memoriak utzi dituen datuen artean, nabarmentzekoa da zerbitzuen erabiltzaileen %87 ez

dela atzerritarra. Hau da, gizarte zerbitzuetara jotzen duten herritarren %13 dira Espainiatik kanpokoak: "Etorkinak gizarte zerbitzuek aprobetxatzen direla dioten esamesak gezurtatzen dituzte datuok", esan du teknikariburu Xabier Legorburuk.

Egun, bederatzi langile dituzte gizarte zerbitzuek eta txanda har daiteke udaletxeko sarreran dagoen Bergararren Arreta Zerbitzuan. Posta elektronikoz edo telefonoz ere jo daiteke gizarte zerbitzuetara: ongizatea@bergara.eus edo 943 77 91 00.

2018AN TRAMITATU ZIREN ESPEDIENTEEN %55 DAUDE LOTUTA MENPEKOTASUN EGOERAREN BATEKIN

Azken traka bizi izango du San Joxepe elkartearen Kulturaldiak

Jose Mari Larrañagak Bergarako historiaren gainean gaur emango duen hitzaldiak ikusmin handia piztu du

J.B. BERGARA

Jon Maiaren *De Extremadura al bertsolarismo* hitzaldi arrakastatsurekin hasi eta atzoko San Joxepeko koruaren eta Oñatiko abesbatzaren kontzertura arte, San Joxepe erretiratu elkartearen 23. Kulturaldia oso martxa onean doa. Azken traka bizi izango du orain, eta izango da zertaz gozatu. Gaur, bete egingo da San Joxepeko askotariko erabilere-tarako aretoa. Horixe aurreratu dute antolatzaileek Jose Mari Larrañagak emango duen Bergarako historiaren gaineko hi-

tzaldiaren inguruan: "Iaz, lehen parte egin zuen eta sekulako ikusmina piztu zen. Ziur bigarren zatia ere arrakastatsua dela".

Bazkaria Kulturaldia borobiltzeko Bihar, zapatua, bolo, toka eta igel txapelketak jokatu dituzte (18:00). Kulturaldia borobiltzeko, ohitura dutenez, bazkaria egingo dute domekan. San Joxepeko Aitonak jatetxean egingo dute bazkaria, 14:00etan, eta, bazkalostean, opariak banatuko dituzte. Amaieran, musika emanaldia eta dantzaldia izango dute.

EAJk "hutsuneak" ikusten ditu ordenantza fiskalen zirriborroan

Gobernuaren proposamenaren aurrean euren ekarpenak aurkeztu dituzte asteon, urriaren 21eko osoko bilkurarako

J.B. BERGARA

Urriaren 21ean ezohiko osoko bilkura egingo da 2020ko ordenantza fiskalak onartzeko, eta EAJk agerraldia egin du, asteon, Udal Gobernuaren zirriborroaren aurrean euren proposamenak aurkezteko. Jeltzaleek "hainbat hutsune" ikusten dituzte, eta hiru zutabetan oinarritu dituzte euren ekarpenak: herritarren bizitza hobetu eta herritarren arteko oreka lortzeko asmoarekin proposatzen dituzten neurriak; jarduera ekonomikoa babestekoak; eta lurraldea babesteko

eta zaintza horren inguruan hoberiak sortzeko neurriak.

EAJk Gobernuari proposatu dizkion aldaketan artean dago, adibidez, 65 urtetik gorakoei Ondasun Higiezinaren Gaineko Zergan %50eko hobari berri bat sortzea, baldin eta ondasunaren jabea 65 urtetik gorakoa bada, familia unitatearen diru-sarreak 15.000 euro azpitik baditu, eta zerga familiaren ohiko etxebizitzaren gainekoa bada. Helburu zehatza dute jeltzaleek: "Bergarako gizarte, aktibitatea eta lurraldea zaintzea nahi dugu".

OHARRAK

Pop Up azoka

Bedelkarrek eta Udalak denboraldi berriko arropen azoka antolatuta dute Oxirondon: bihar 18:30etik 22:00etara eta etzi 11:30etik 14:00etara egongo da zabalik. Pintxo-potea eta 300 euroko zozketa egongo dira.

Banda Osintxun

Osintxu Gaztañatan ekimeneko lehen ekintza izango da etzi Bergarako Bandak emango duen kontzertua; frontoian, 12:30ean.

Berriketan egitasmoa

Berbalagun taldeetan izena emateko, Jardun elkartearekin harremanetan jarri: 943 76 36 61 edo 605 71 24 69.

Bazkideei eskainiko die emanaldia Orfeoiak

'Sing to the spirit' kontzertua eskainiko dute Orfeoiak eta Orfeoi Gazteak Mariaren Lagundiko elizan. Musika erlijiosoa oinarri duen emanaldia 'Freedom Trilogy' piezarekin amaituko dute. Sarrerak ordubete lehenago jarriko dituzte salgai

Arantzazu Ezkibel Galdos BERGARA
Bazkideei eskainitako emanaldia egingo dute Bergarako Orfeoiak eta Bergarako Orfeoi Gazteak lehenengo aldiz. Domekan izango da, 19:00etan, Mariaren Lagundiko elizan. Bazkideek doan izango dute sarrera eta gainetako 3 euro ordaindu beharko dute –sarrerak ordubete lehenago jarriko dituzte salgai Mariaren Lagundiaren kanpoaldean–.

Hain zuzen, 75 minutu iraungo du emanaldiak eta taularen gainean 70 abeslari, Eli Mendiaraz eta Anabel Henao piano joleak eta Ander Zulaika perkusionista izango dira.

Musika erlijiosoa oinarri

Musika erlijiosoa oinarri duen emanaldian, garai eta estilo askotariko piezak landuko dituzte. *Freedom Trilogy* pieza bereziarekin amaituko dute kontzertua, Eli Mendiarazen eta Ander Zulaikaren laguntzarekin. Angelis-

en *Kyrie, Halleluya, Pelo Tsa Rona & Siyahamba* eta *Amazing Grace* lanak batzen dituen konponketa da *Freedom Trilogy* pieza. Emanaldia Orfeoi Gazteak hasiko du, Aitor Garitanoren zuzendaritzapean; *Messe Brève* obra abestuko dute. Ondoren, Bergarako Orfeoiak hamar pieza eskainiko ditu, Aitor Biain Bidarteren aginduetara. Bi taldeek elkarrekin abestuz amaituko dute emanaldia.

135 bazkide ditu Orfeoiak

Orfeoiko bazkide izateko 12 euroko ekarpena egin behar da, gutxienez, urteko; eta bazkide izatearen onurak dira: bazkide kontzerturako sarrera bat; loteria-txartel bat; kontzertu berezietarako deskontuak; eta Gabonetako saski baten zozketa.

Gaur egun, 135 bazkide ditu Orfeoiak. Bazkide egiteko interesa duenak bergarakoorfeoia@gmail.com helbidean eska dezake informazioa.

'Lo mejor de Yllana' ikuskizunak barrez jarri nahi ditu ikusleak

Yllana taldeak bere 25 urteko ibilbidean sortutako onena eroango du Seminarixora. *Lo mejor de Yllana* ikuskizuna eskainiko dute bihar, zapatua, 19:00etan –sarrera 8 euro da–.

Sormenaren eta umorearen artean maisuak dira Yllana taldekoak. 2016an, 25 urte bete zituzten, eta, urteurren borobila ospatzeko, ordura arte egingako esketx onenak batu zituzten ikuskizun bakarrean. Yllana-zaleek gustura hartuko dute emanaldia: taldearen momentu dibertigarrienak jasotzen dituen ikuskizunak ikusleak barrez jartzea du helburu. 14 urtetik gorakoei gomendatutako ikuskizuna da *Lo mejor de Yllana*.

Oscar Candedo organistak Santa Marinaran joko du

Organo Erromantikoaren Nazioarteko zikloaren bigarren emanaldia egingo dute bihar, zapatua, 19:00etan Santa Marinaran. Gertuko txanda izango da oraingoan; izan ere, Oscar Candedo organo jole antzuolarrak eskainiko du emanaldia Easo Araoz Gazte abesbatzarekin batera.

Candedo Donostiako Artzain Onaren katedraleko organo jolea titularra da; eta, Katalunian organo irakaslea. Easo Araoz gazte abesbatza 2004an sortu zen, Easo abesbatzaren bosgarren talde moduan. 12 eta 17 urte bitarteko neskek osatzen dute: Gorka Miranda da abesbatzaren zuzendaria.



Aitor Garitano, Aitor Biain eta Idoia Juldain –Orfeoiko lehendakaria–. BERGARAKO ORFEOIA



Pop Up Merkatua
Urriak 19-20

Zapatua: 18:30-22:00 Igandea: 11:30-14:00

Moda
Osagarriak
Dekorazioa

ZOZKETA eta pintxo potea egongo da
Zozketa igandean 14:00etan





Anfibioek bizitoki berria izango dute Belatxaran

Iturrigorri eta Olapoton dauden moduko beste putzu bat egingo dute auzolanean Belatxara inguruan anfibioendako, Natur Eskolak antolatu duen Ibai Lagun programaren barruan. Dokumentalak, erreka garbiketa eta irteera ere egongo dira

Oihana Elortza OÑATI

Anfibioendako hiru putzu egin dituzte azken urteetan Iturrigorri eta beste bat Olapoton. Orain, Belatxara inguruan egokituko dute beste bat, hilerriaren azpian eta Ulmaren egoitza zentralaren atzean dagoen lursailean. "Anfibioek ura behar dute ugaltzeko, baina denak ez dira erreka-joaten, putzuetara baizik. Ez dira toki askotan ikusten eta naturako beste elementu bat dira. Belatxara gune horretan lehen bazegoen hezegune bat, lehortu egin zena industria erakitzeke. Eta gune hori berreskuratu aldera egingo dugu hor putzua", dio Natur Eskolako Aimar Uribesalgok.



Emakume bat Olapotoko putzuari begira. O.E.

Auzolanean

Egindako beste putzuetara animaliak hurbiltzen hasi direla esan du Uribesalgok: "Iturrigorrikoetan, esaterako, txantxikuak eta ugandreak sarri ikusten dira. Udaberri eta uda aldera bete-

beteta egoten dira. Dena dela, putzu horiek ez dira bakarrik anfibioendako. Inguruko landaretza ere berez sortutakoa izango da, guk ez dugu ezer landatzeko asmorik. Naturak sortzen dituen landareak egongo dira,

edo animaliek beste nonbaitetik ekarri dituzten hazietatik hazitakoak".

Natur Eskolak antolatu duen Ibai Lagun astearren barruan egingo den lehen ekintza izango da hori. Auzolanean egingo dute,

urriaren 26an, zapatuan. "Datorren astean, hondeamakinak joango dira zuloa egitera eta putzua prestatzen hastera. Zapatuan, auzolanean egingo dugu beste guztia", dio Uribesalgok.

Izena eman behar da

Ugarkaldetik Zubillagara bitarteko erreka zatia garbituko dute, bestalde, erreka garbiketa egunean. Taldeka banatuko dira tarte horretan. "Azken urteetan, hobetu egin da uraren kalitatea. Duela 40 bat urte, ez zegoen ia bizitzarik eta usaina ere txarra zuen. Egun, askoz hobea da egoera, perfektua ez bada ere. Lehen, pisu eta tamaina handiagoko gauzak egoten ziren errekan, gurpilak eta etxeko tresnak, esaterako, eta egia da gaur egun horrelakoak ez direla ikusten. Egun, plastikoak eta oihal zatiak bai, baina ez lehen adina".

Era berean, irteeran parte hartzeko gonbidapena egin du Uribesalgok: Arantzazuko errekan zehar izango da, Iturrigorritik Gesaltzaraino. Kareharrizkoa da ingurua, urak disolbatu egiten du eta forma ezberdinak sortzen dira. Iritegiko surjentziak, Okolako potoloa, sorgin erreka eta Gesaltzako kobazuloa ere ikusiko ditugu".

Ibai Lagun asterako antolatutako ekintzak herritar guztiei zuzenduta daude eta doan dira. Irteerarako, baina, aurrez eman behar da izena Natur Eskolara deituta: 943 71 64 04.

Antolatutako ekintzak

Urriak 26

• **Anfibioendako putzua auzolanean.** Belatxara inguruan egokituko dute. 10:00etan Foruen plazan elkartuko dira.

Urriak 27

• **Erreka garbiketa eguna.** Taldeka, Ugarkaldetik Zubillagara garbituko dute. 09:00etan Foruen plazan.

Urriak 30

• **Dokumentala.** *Watermark* izenburua duen dokumentala. 19:00etan zinema aretoan.

Azaroak 1

• **Irteera.** Arantzazuko errekan zehar, Iturrigorri hasi eta Gesaltzaraino. 09:00etan Foruen plazan.

Azaroak 5

• **Dokumentala.** *Barbacana, la huella del lobo* lana. 19:00etan zinema aretoan.

Oharra: Ekitaldi guztiak doan izango dira.

Datorren urteko zergak %0,67ko igoera izango dute, orokorrean

EAJ abstenitu egin zen bozketan, eurek egindako sei proposamenak ez direlako ordenantzan jaso

O.E. OÑATI

2020ko udal zergak %0,67 igoko direla onartu du udalbatzak. KPIaren, Kontsumo Prezioen Indizearen, igoera izan du kontuan Udal Gobernuak proposamen hori egiteko. Igoera orokorra izango da hori, baina badaude salbuespenak, hobariak. Adibidez, %50erainoko hobaria lortu ahal izango dute, Hiri Ondasunen Zergan, autokontsumorako eguzki-endarra baliatzeko sistema dutenek. Etxebizitza sozialetan egiten diren obren gaineko zergak ere hobaria izan-



Irailaren 10eko osoko bilkura. O.E.

go du, 24.000 euro arteko errenten kasuan.

Proposamena ondo iruditu arren, EAJ abstenitu egin zen, berak egindako sei proposamenak ez direlako jaso. Tartean, ibilgailu elektriko eta hibridoak aplikatzen zaien hobaria handitzea eta babes ofizialeko etxebizitzek higiezin zergan duten hobaria luzatzea eta jarduera ekonomikoen zergan eta zabor bilketa tasan merkatari eta ostalariei zuzendutako hobari batzuk. Udal Gobernuak, baina, ez ditu onartu, "gutxi landuta" daudela argudiatuz. EAJ kexu agertu zen, erdibide bat adosteko hitz egiteko gertu ere ez delako agertu Gobernuak, jeltzaleen esanetan.

Kiroldegikoak gelditu dira zehazteke, lanketa berezia behar dutelako, obregatik.



NIRE USTEZ

ONEKA ANDUAGA GARAI

Gutxienez, bi minutu

"Bi minutu baino gutxiagoan egin badezakezu, egin". Horixe jartzen du gure etxeko sukaldean itsatsita dagoen paperean. Izan ere, momentuan egin daitezkeen gauza erraz asko uzten ditugu gerorako, baina gero, nagikeria sartzen zaigu eta gauza erraza zena astunago bilakatzen da.

Bada, gaurkoan, esaldi honi buelta batzuk ematera nator. Bi minutuan egin badaitezke, gauza errazak diren seinale; baina zer gertatzen da bi minutuan pentsatu daitezkeen ekintzekin? Eta are gehiago, zer gertatzen da gutxienez bi minutuan pentsatu beharko liratekeen baina pentsatu gabe egiten diren ekintzekin? Gaur egun, horrelako gehiegi daukagu, gauza onerako. Eta bestela, galdetu Zaballan preso daudenei.

Hurrengoan –eta benetan espero dut hurrengorik ez egotea–, Altsasuko herriari horrenbeste buruhauste eta min eragin dietenek, gutxienez, eta asko eskatzea ez bada, bi minutuz pentsa dezatela zer ondorio dakartzan horrelako astakeria batek.

Edo dena ondo pentsatua zegoen?



Itzal-txotxongiloen saio bat. ZURRUNKA TEATRO

Musika eta antzerkia ere bai Udal Liburutegian

Herritarrekin batera ospatuko dute aurten ere Liburutegien Nazioarteko Eguna eta ume zein nagusiendako ekintzak antolatu dituzte datorren asterako. Ikastetxeetako gaztetxoak ere joango dira liburutegira, eskaintzen dituen zerbitzuak ezagutzera

Oihana Elortza OÑATI

Urriaren 24a da Liburutegien Nazioarteko Eguna eta Oñatin ere ospatuko dute hori. Ume zein nagusiendako ekitaldiak egongo dira, liburutegia "herritar guztiendako espazio" bat delako, Arantzazu Ibarrendoren esanetan, "herriko topaleku bat izan behar delako".

Topalekua

Kontsumo digitala analogikoaren gainetik dagoen garaia izanda ere, irakurri eta sortu egiten eta egingo dela dio Udal Liburutegiko zuzendariak: "Edozein ikerketa egiteko nahitaezkoa da aurretik zer egin den jakitea, irakurtzea. Jakintza idatziz jasota dago eta hori irakurri egiten da garatzen joateko, aurrera egiteko. Irakurtzen duen gizartea, gizarte garatua da. Berdin da zein euskarritan irakurtzen den, baina irakurri egin behar da aurrera egiteko, arloa edozein izanda ere. Eta liburutegiak gune garrantzitsu dira prozesu

horretan. Egokitu egin behar dira, bai, baina gune garrantzitsuak dira".

Egokitu behar horretan, liburuaren euskarrietan ez ezik liburutegiak urteetan izan duen funtzioa ere moldatzen ari dela dio Ibarrendok: "Gero eta gauza gehiago antolatzen dira liburutegietan. Egia da Oñatin herri mugimenduak indarra hartu duela azken urteetan eta gauza asko egiten direla, eta liburutegia beste topaleku bat gehiago da, bai Oñatin, baita edozein herritan ere. Uste dut Debagoieneko beste herrietan ere gero eta ekintza gehiago egiten direla liburutegietan, eta bidea hori dela uste dut. Ez dira liburuak dauden tokia bakarrik".

URRIAREN 24AN DA LIBURUTEGIEN NAZIOARTEKO EGUNA ETA OÑATIN ERE OSPATUKO DUTE

Saio linbikoa eta txotxongiloak

Herriko beste topaleku bat gehiago dela sinistuz eta aldarrikatuz, era askotako ekintzak antolatu dituzte beste behin udal liburutegian. Datorren egunean, urriak 24, esaterako, itzalekin jolas egiten duten txotxongiloen saio bat egongo da umeendako, Zurrunka Teatro taldearekin. Herriko ikasle gaztetxoek, gainera, bisita gidatuak egingo dituzte liburutegira datorren astean. Haurren zein nagusien guneak ezagutuko dituzte herriko ikastetxeetako adin ezberdinetako umeek egingo dituzten bisitetan.

Nagusiendako, Javier Corcobado musikariaren saio linbikoa egongo da egubakoitzean, hilak 25, 19:00etan. "Alemanian jaio-tako musikari eta poeta da bera. 1980ko hamarkadan Madrilen egon zen mugimendu kulturala bertatik bertara bizi izan zuen. Bizkaian bizi da egun eta uste dut oso saio polita izango dela. Bilboko Alondigan egindako saioa ederra izan zen".



Felix Ibarrendo, kultura etxeko lorategian. GOIENA

Saria "konposatzen jarraitzeko indarra" da Ibarrendorendako

Espainiako Musika Sari Nazionalen, konposizio atalean, saritu dute Felix Ibarrendo oñatiarra

O.E. OÑATI

Felix Ibarrendo oñatiarra Espainiako Musika Sari Nazionalen, konposizio atalean, saritu dute. Espainiako Kultura eta Kirol Ministerioak antolatzen ditu sariak eta saridun bakoitzari hogeita hamar mila euro dagozkio. "Orain arte jaso ditudan sarietatik garrantzi handiena duena da sari hau, gehien bete nauena. Pozik hartu dut saria eta asko poztu nau nire ingurukoengatik ere. Sari honek konposatzen jarraitzeko indarra ematen dit", esan du Ibarrendok albiste jakin eta gutxira.

Epaimahaikideek Ibarrendok ahozko musikaren, orkestra musikaren eta musika elektroakustikaren eremuan egin duen ekarpena saritu nahi izan dute, baita Espainiako eta Europako hainbat orkestrak bere lanak interpretatu izana ere. Oraindik jardueran jarraitzen duela ere azpimarratu izan nahi dute.

Joan den urtean, Arte Ederretako dominarekin saritu zuten konpositore oñatiarra. Aurten, Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona saria jasotzeko hautagaietako bat ere bazen. Xabier Amurizari eman diote sari hori.



M.U.

Saiak zauritutako behorra

Saien talde batek eraso egindako behorra da argazkian ikusten dena. Buetraitz inguruan gertatu zen duela egun batzuk. Bizirik zegoela egin zioten eraso putreek, eta behorrak odol asko bota zuen zaurien ondorioz. Hain zuzen ere, hurrengo egunean hil zen behorra, gertaera ikusi zuen herritar batek esan duenaren arabera.

Finalerdien "tentazioari" uko ez egiteko lehiatzera

Maidar Arregi bertsolari oñatiarra Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako bigarren final-laurdenean arituko da, hilaren 20an, domeka, Irungo Amaia kultur zentroan, 17:00etan. Bertsokak hainbat ikuspuntutatik abestea du helburu Arregik

Maialen Regueiro OÑATI

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako final-zortzirenak jokatu, asteburu honetan hasiko dira final-laurdenetako saioak, eta Maidar Arregi bertsolari oñatiarra horietako batean arituko da. Domekan, Irungo Amaia kultur zentroan eta 17:00etan hasita, beste bost bertsolariarekin jardungo du oñatiarrak: Agin Laburu, Beñat Lizaso, Haritz Mujika, Iñigo Izagirre eta Unai Gaztelumendi.

Domekako saioa

Arregi beste bost bertsolariarekin batera arituko da domekako final-laurdeneko saioan, eta hu-

rringo fasera pasatzeko aukera "tentagarria" dela adierazi du. "Hala ere, ez nago lehiari eta sailkapenari begira", aitortu du oñatiarrak. "Txapelketa hau bozgorailu gisa ulertzen dut, herritar askorengana iristeko aukera dugulako. Horregatik, nire helburua da bertsokak diskurtso eta ikuspuntu ezberdinetatik abestea; feminismitik, besteak beste" aipatu du.

Domekako saioan aurkari izango dituen bertsolariei dago-kenez, hauxe esan du Arregik: "Nirekin batera arituko diren bertsolari gehienak ez ditut eza-gutzen, baina oso onak direla uste dut eta horrek, zelanbait,

urduritasuna sortzen dit. Edozelan ere, saio ona egingo dugulakoan nago".

Txapelketan "gustura"

Irailean hasi zen aurtengo Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa eta Arregik "gustura" dabilela aitortu du: "Nire bertsokera baloratzen dutela sentitzen dut".

Finalurreko saioak

Txapelketa honetan, guztira, hiru finalurreko saio izango dira: Arrasaten -azaroaren 17an-, Oiartzunen -azaroaren 24ean- eta Tolosan -abendua- ren 14an izango da, Donostian.

Sei urteren ostean estreinako partidua gaur Zaldibian

Denboraldiko lehen jardunaldian atsedena izan eta gero, gaur izango du Ingou Aloña taldeak estreinako partidua, Ausa Zaldibiren aurka. Zaldibiako Resti pilotalekuan jokatuko dute, 20:30ean. Izan ere, Aloña Mendiko areto futbol sailak gizonezkoen senior mailako taldea izango du, sei urteren ostean, eta Gipuzkoako hirugarren mailako ligan arituko da, Aitor Sanchezen gidaritzapean.

Ingou Aloña taldean 17 eta 28 urte bitarteko hamasei jokalaria arituko dira, gehienak aurreko denboraldian -gazte mailan- jokatzetik datozenak. Hala ere, taldekide berriak batu dira: lau jokalaria eta entrenatzaile laguntzaile bat, hain zuzen.

"Taldea gaztea daukagu, baina kontziente gara zein mailatan jokatu behar dugun", adierazi du Sanchezek. Julen Carr taldeko jokalaria, bestalde, hauxe esan du: "Taldea gogorra eta kalitatezkoa sortu dugu eta denboraldi polita egin dezakegu".

Denboraldia hasteko emanaldia, Maddi taldearen eskutik

Maddi talde ataundarrak kontzertua eskainiko du domekan, hilaren 20an, Itturri tabernan, 19:30ean hasita. Denboraldiari hasiera emateko lehen emanaldia izango da. 2018ko urrian aurkeztu zuten talde gisa *Ying Yang* lehen lana, hamar abestiz osatuta dagoena, eta horiek entzuteko aukera izango da domekako emanaldian.

Trikiti jaialdirako eta afarirako sarrera guztiak saldu dira

Urriaren 26an, zapatua, izango den XI. trikiti jaialdirako eta ondoren egingo den afarirako salgai jarritako txartel guztiak bi egunean saldu dira. Jaialdia 17:30ean hasiko da, Santa Ana antzokian, eta, guztira, zazpi talderen emanaldiaz gozatzeko aukera egongo da. Jaialdia amaituta, Pago Uso elkartearen izango da afaria.

Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK



ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER

ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

AHOLKULARITZAK

ANDRA MARI AHOLKULARITZA

ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

GARRAILAN

BERGARA / Mabilategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Pablo Uranga 3, behe
Tel.: 943 79 51 25
Faxa: 943 71 19 85
uribesalgo@uribesalgo.es

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK

ARRASATE / Usaelxe plaza 1, behe
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

LARRAITZ VALENCIA AZKARGORTA

Arkitektoa eta tradesperson formazioa
Tel.: 636 89 92 11
larraitz.arkiestudioa@gmail.com

GOIENA TELEBISTA

UDAZKENEKO PROGRAMAZIOA



HEMEN DEBAGOIENA
ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA
18:00/20:00/22:00

Datoren astetik aurrera berrietasunekin:

EGUAZTENETAN:
Zirikatzen: Umorea oinarri hartuta, heritarrak euren abileziak erakustera gonbidatuko dituen tarteak.

EGUENETAN:
Debagoiendarrak munduan: Skype konezioek Malta, Zaira, Singapur, Mexiko, Suedia, AEBekin... kanpoan dabilen herrikideen bizipenak ezagutzeko.


Eguraldia: Ikus-entzuleek ateratako argazkiak ikusi eta, Euskalmet-en eskutik, asteburuko itzarpene ezagutzeko. Bidali argazkiak Whatsapp edo Telegram bidez **688 69 00 07** telefono zenbakira eta sari bat zozketatuko dugu. Hilaro.



GIPUZKOAKO BERTSOLARI
TXAPELKETA 2019
EGUAZTENETAN ETA EGUBAKOITZETAN
21:00ETAN ETA 23:00ETAN



ALBISTEAK
ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA
14:30/16:15/17:00/17:45



ELKARRIZKETTAP
EGUAZTENETAN ETA EGUBAKOITZETAN
21:30EAN ETA 23:30EAN



HARMAILATIK
ASTELEHENETAN
21:30EAN ETA 23:30EAN



HARIRA
ELKARRIZKETA (HAMABOSTEAN BEHIN)
MARTITZENETAN 21:30EAN
EZTABAIDA (HAMABOSTEAN BEHIN)
MARTITZENETAN 21:00ETAN



HALA BAZAN
EGUENETAN
21:30EAN ETA 23:30EAN



HUHEZINEMA
EGUENETAN
21:30EAN ETA 23:30EAN



OSOKO BILKURAK
ARRASATE, OÑATI ETA BERGARA
ZAPATUETAN: 19:00ETAN
DOMEKETAN: 12:00ETAN ETA 22:00ETAN



DEBAGOIENETIK NDANK NDANK
SENEGALERA
URRIAK 24, EGUENA
21:00ETAN ETA 23:00ETAN

"Kirola guztien esku jartzea da helburua"

AITOR REMENTERIA ETA PATXI TORRES ANTIXINTXIKA TALDEKO KIDEAK

ATLETISMOA Debagoieneko triatloi taldea ekimen sozialetan dabil buru-belarri. 'Zure irrifarra, nire indarra' ekimenean murgildu dira, eta boluntarioak behar dituzte

X.U. ARRASATE

Azaroaren 2an egingo dute azken 15 urteotan Sorraluze eta Bergara herriak lotu dituen lasterketa, Antxintxika krosa. Eta, aurtengo nobedadeetako bat da *Zure irrifarra, nire indarra* ekimenaren barruan urritasun funtzionala duten haurrek ere lasterketan parte hartuko dutela, azkenaldian beste herri lasterketa batzuetan egin duten moduan. Horretarako, aulki berezi batzuk erabiliko dituzte, Orkli enpresan sortutako ekimen bati esker erosi dituztenak, baina aulkiei bultzatza egingo dieten boluntarioak behar dituzte.

Aitor, ekimen solidarioetan buru-belarri dago aurten Antxintxika.

Aitor Rementeria: Halaxe da; taldearen filosofiari jarraipena emanez kirola herritar guztiei gerturatzeko lanean jarraitzen dugu Antxintxikan. Eta proiektu konkretu hau da garun paralisia edo mugikortasun arazoak dituzten umeei halako lasterketan parte-hartzea ahalbidetzeko. Hala, Orkli enpresatik egin zuten donazioari esker aulki berezi hauek Gipuzkoako Kirol Egokituko elkartera iritsi ziren –hamalau dira, guztira– eta dagoeneko hasi dira gurea moduko herri lasterketetan erabiltzen.



Aitor Rementeria eta Patxi Torres, Joseba Azkarateren aldeko zozketarekin. X.U.

Eta Antxintxika krosetan ere irteera puntuan egongo dira.

Patxi Torres: Hori da asmoa, baina boluntarioak behar ditugu. Urtero moduan, lasterketa hasiko dute gurgil aulkian eta handbike-an dabilzan kirolariak; ondoren, patinatzaileen txanda izango da; eta gainontzeko korrikalariak lasterketa hasten dutenean, azken taldetxoan, gazte hauek joango dira boluntarioek lagunduta.

Duela hilabete inguru egindako lasterketan estreinatu ziren gazte hauek.

A.R.: Lazkaoko herri lasterketan izan zen, eta bertan atletismoan urteak dabilzan hainbat lagun boluntario lanetan ibili ziren. Eurek esaten zutenagatik, Lazkaon bizi izandako esperientzia ez dute berehalakoan ahaztuko, eurak ere hunkituta geratu zirelako. Izan ere, aulkitik bultzatza egiten dabilen boluntarioa konurtatzen da haurrak ze erreakzio izaten dituen, zelan dabilen gozatzen, eta eman baino jaso egiten da gehiago. Horregatik da, hain zuzen, proiektuaren izena *Zure irrifarra, nire indarra*.



Igor Albeniz bergararra, aulkian, senitartekoekin, Lazkaon. A.REMENTERIA

Lazkaon egin zuten lehen irribarrea

Urritasun funtzionala duten zenbait gaztetxok –tartean, debagoiendarrak– Josetxo Imaz memorialean hartu zuten esku lehenengoz, irailaren 29an, eta bertan jarri zuten abian *Zure irrifarra, nire indarra* ekimena. Antxintxika krosetan ere izango dira.

Debagoienean badaude behar bereziak dituzten eta lasterketetan parte hartu gura duten gaztetxoak?

A.R.: Bai; hain zuzen, Lazkaoko lasterketan bailarako hiru gaztetxo izan ziren euren gurasoekin, eta asmoa da Antxintxika krosetan hamalau aulki erabiltzea, eta horietako lau Debagoieneko neska-mutikoak eramateko izango dira. Gainontzekoak Gipuzkoa osotik datozen beste hamar gazterendako izango dira.

Boluntarioek zelan eman behar dute izena?

P.T.: Lasterketan parte hartzeko jarraitu beharreko pausoak berdin-berdin eman behar dira, *Kirolprobak*-en izena eman behar da. Ondoren, bi telefono zenbaki hauetako batera deituta: 652 76 86 66 (Aintzane Arana) eta 688 63 51 53 (Aitor Rementeria). **Hau ez da, baina, esku artean duzuen proiektu solidario bakarra. Kirol**

egokituko taldea sortu duzue Antxintxika barruan, eta Joseba Azkarateri handbike-a erosten laguntzeko zozketa jarri duzue abian. Zer moduz doa zozketa hori?

A.R.: Oso ondo. Herri Egunean Oñatin jaso genuen babesak sekulakoa izan zen, zozketa mordoa saldu genituen, eta bailarako enpresa, komertzio eta talde asko dabilza esku hartzen. Oraindik posible da ekimenarekin kolaboratzea. Helburua ez da Josebari bakarrik laguntzea, kirola egiteko zailtasunak dituzten horiek taldera erakarri gura ditugu.

"KIROLA EGITEKO ZAILTASUNAK DITUZTEN HORIEK TALDERA ERAKARRI GURA DITUGU"

Oñati Arrasate lasterketa, euskarari bidea egiteko

ATLETISMOA AEDko lagunek gertu dute urriaren 27an egingo duten lasterketa. Aurtengoa domekan izango da

X.U. ARRASATE


Orain arte Oñati eta Arrasate batzen dituen lasterketa zapatu arratsaldean egin badute ere –bi noranzkotan–, aurtengo edizioa domeka goizera aldatzea erabaki dute AEDko lagunek: "Korri-

kalarietako ordutegi egokiagoa delakoan eta sari-banaketa ekitaldia egun argiz egin ahal izateko". Eta, kirola euskararekin uztartze aldera, lasterketari *Euskaraz egin bide* leloa jarri diote. Hala, hilaren 27an Oñati-

ko Foruen plazan abiatuko da lasterketa, 11:00etan, eta lasterkariak, gehienez, ordu eta erdi izango dute 12 kilometro pasatxoko bidea egiteko –lasterketaren errekorra Aitor Mimentzak du: 37.35–.

Izen-ematea, zabalik

Lasterketarako izen-ematea Internetez edo Arrasateko Lora-mendi kirol dendan egin behar da, eta, gehienez, 300 lagunendako tokia egongo da (www.herrikrosa.eus, 12 euro). Hala,



Korrikalariak iazko helmugan. GOIENA

proba egunaren bezpera izango da izena emateko azken eguna –dendan urriaren 24ra arte hartuko dituzte izen-emateak–.

Antolatzaileek jakinarazi dute hainbat erakunde publikok eta pribatuk egingo diotela lagun, beste behin: "AED elkartearen izenean eskerrik asko guztiei. Hala, herritarrek animatu gura ditugu lasterketa herriko eta euskaltzalean parte hartzera edo korrikalariak animatzeko Oñati eta Arrasateko kaleak betetzera".

Hasi dira dagokien lekurako bidea egiten

FUTBOLA Aretxabaletak eta Mondrak bosgarren jardunaldian lortu dute ligako lehen garaipena, eta ligako hasiera txarrari buelta eman diotela sinistuta jokatu dute asteburuan. Bergarak, azkeneko postuan, Ordizian eman gura dio buelta egoerari

Xabier Urzelai ARRASATE

Bost jardunaldi behar izan dituzte, baina Mondrarendako eta UDarendako iritsi da ligako lehen garaipena. Aretxabaletak 3-1 irabazi zion oraingo asteburuan Bergararen kontrario izango den Ordiziari –UDak aurretik hiru partidu berdinduta zituena– eta Mondrak are zailagoa dena egin zuen, Erreterian Touringi 1-3 irabazi.

Garaipenak emandako hauspoaz baliatuta, zuri-moreek bi partidu irabazi dituen Mutriuren bisita izango dute zapatuan (16:30). Aretxabaletak, berriz, Real Unionen zelaian jokatu dute, Galen, domekan (16:00).



Mondrako jokalaria, Erreteriarako aldagelan, joan den astean. @MONDRAGONFC / TWITTER

Bergara, zorte barik

Sailkapenean azken postuan dagoena ez dago zorte txarragatik hor. Baina egia da joan den astean Barkeroren taldeak Euskaldunaren aurrean gol aukera politak izan zituela norgehiagoka irabazteko, eta jokaldi erabakigarrietan zorteak bizkarra eman ziela. Aretxabaletakoa, baina, sinistuta dago egoerari buelta emateko taldeak duen gaitasunean: "Ez daukat zalarrik segituan hasiko garela emaitzak batzen". Zapatuan, Ordizian, 15. postuan dagoen taldea izango dute aurrean.

MONDRA DA OHOREZKO ERREGIONALEAN ETXEAN JOKATUKO DUEN BAKARRA

Aloña Mendi bigarren dago jada Erregional preferentean Aloña Mendi bigarren postuan dago jokatu dako bost partiduetatik hiru irabazi eta beste bat berdindu eta gero. Oñatikoek atzealdeko postuetan dabilen Tolosa-

ren zelaian jokatu dute domekan (11:45).

Antzuolak, berriz, Idiazabalen jokatu du domeka arratsaldean (18:00). Antzuolarrek lau puntu batu dituzte, eta bi gutxiago dituzte Idiazabalgok.

Leintz Arizmendi, lider

Emakumezkoetan, berriz, Leintz Arizmendiko neskek lau partiduak irabazi dituzte, eta lehengo postuetan daude jada; Zarautzen jokatu dute zapatuan (15:30). Bergarak, berriz, Zumaian jokatu du domekan (16:00).

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONAL

Real Union-Aretxabale.

Domeka. 16:00. Gal

Mondra-Mutriku

Zapatua. 16:30. Mojategi

Ordizia-Bergara

Zapatua. 16:00. Altamira.

ERREGIONAL PREFERE.

Danena-Mondra

Zapatua. 17:45. Zizurkil.

Idiazabal-Antzuola

Domeka. 18:00. Alegia.

Aretxabaleta-Orioko

Domeka. 16:30. Ibarra.

Tolosa-Aloña Mendi

Domeka. 11:45. Usabal.

LEHEN ERREGIONALA

Aretxabaleta-Eibartar.

Domeka. 18:00. Ibarra.

Bergara-Ikasberri

Zapatua. 18:00. Ipintza.

OHOREZKO GAZTEAK

Aloña Mendi-Bergara

Zapatua. 18:00. Azkoaga.

Aretxabaleta-Tolosa

Zapatua. 16:30. Ibarra.

Mondra-Anaitasuna

Zapatua. 18:30. Mojategi.

EMAKUMEZKO OHOREZ.

Zarautz-Leintz Arizme.

Zapatua. 15:30. Zarautz.

Zumaiaiko-Bergara

Domeka. 16:00. Zumaia.

ARETO FUTBOLA

MAILA NAZIONALA

Eskoriatza-Sasikoa

Zapatua. 18:00. M. Muñoz

EUSKADIKO TXAPELKE.

Arcada-Mondrate

Zapatua. 19:30. Amurrio.

Leioa-Aretxabaleta

Domeka. 12:30. Leioaz

SENIOR NESKAK

Eskoriatza-Samaniego

Gaur. 22:00. Eskoriatza.

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPEL.

Ford Mugarri-Basauri

Zapatua. 16:00. Iturripe.

Fagor Indust.-Muskiz

Zapatua. 18:15. Zubikoa.

EUSK. TXAP. EMAKUM.

Const. Aloña-Usubil

Zapatua. 16:30. Zubikoa

GIPIZKOAKO SENIOR.

Eibar-Soraluce BKE

Zapatua. 16:15. Eibar.

SASKIBALOIA

EBA

MU (atsedena)

EUSKADIKO TXAPELKETA

Lakua-Mekalki Aloña

Zapatua. 18:00. Gasteiz.

Alkideba Ointxe-Aritzti

Zapatua. 18:30. Iturripe.

GIP. SENIORRAK

Getariako-Bergara Sor.

Zapatua. 18:00. Getaria.

SENIOR EMAKUMEZKOAK

Take-Eskoriatza

Zapatua. 18:00. Tolosa.

ERRUGBIA

EUSKADIKO TXAPEL.

Kanpanzar ART-Funes

Zapatua. 16:30. Mojategi.

Leintz Arizmendikoak euskal derbian

Joan den domekan, 28.367 ikusle izan ziren Realaren eta Athleticen arteko partidua jarraitzen. Partidu berezia izan zen, bereziki, Realeko jokalarien eskutik berdeguna salto egin zuten Leintz Arizmendi Eskolako hamaika jokalarirendako.

Realaren gonbidapena jaso, eta zozketa bidez aukeratu zituzten klub barruan hamaika jokalaria.



Leintz Arizmendi eskolakoak, Reale Arenan. ARIZMENDI KE

OÑATI ARRASATE
HERRI LASTERKETA
EUSKARAZ EGIN BIDE
 2019-10-27 // 11:00etan // Foruen Enparantzatik
 Izen-ematea: www.herrikrosa.eus eta Loramenai Kirolak denda

AVIOLAZKADA: aed, arrasate euskal kulturaren dazargan, LANGUETIKERAK, INTERSPORT, LORAMENDI, ARIZMENDI, ANTONIARRAZ, ONAI.

SABITUAK: MAIXXA, IRZATI, ibai-arte, BERGARA, ZELAI ZABAL, LIZARRALDE, KIBOLEK, OLGETA, sustrai, KALOR, EREINGA JAN, MUXIBAR, goiena, berria, LANA.



Facio, Robeda, Seron, Loeschbor, Estivariz, Battiston eta Besser artistak, ekimenaren bultzatzaileekin Eskoriatzan. XABIER URZELAI

Trenbidea, arte areto bihurtuta

Kultur ACT elkartearen ekimenez, nazioarteko puntako artistek Vasco-Navarro trenaren ibilbideko hainbat zatitan askotariko margolanak egingo dituzte azaroaren 21era bitartean; Bergaran, Arrasaten, Aretxabaletan eta Eskoriatzan ere izango dira

Aitziber Aranburuzabala ESKORIATZA *Nomadak El Trenico, Bizikleta & artea* sorkuntza artistikoko eta kultura kudeaketako proiektua da. Kultur ACT elkarteak garatu du eta arte garaikidea, bide berdea eta bizikleta batzen

ditu. "Egoitza artistiko nomada da, ekintza artistikoa erdigunean jarriko duena. Errealitatea eraldatzea du azken helburu; kulturak norbanakoaren eta taldearen garapenari laguntzen dion printzipioan oinarritzen gara.

Hainbat eremutako proposamen artistiko eta kolektiboen arteko lankidetzan eta hibridazioan oinarritzen da ekimena. Artista eta eragile ezberdinekin elkarlanean ari gara", azaldu du Kultur ACT elkarteko Iñaki Landak.

"Trenaren kontakizun berria"

Proiektuaren jarduera guztiak espazio publiko eta irekietan garatuko dira: kalean eta garai bateko Vasco-Navarro trenak hartu zuen ibilbidean gaur egun dagoen bidegorri-sarean. Askotariko arte-ekintzak egingo dituzte: instalazio artistikoak, grafitiak, muralak...

Sorkuntza artistiko eta kultur kudeaketaren bitartez, iraganaren eta etorkizunaren arteko lokarria izan nahi duen proiektua dela dio Landak: "Memoria berreskuratzeko xedea dauka proiektuak, *El trenico*-ren historia orainaldiarekin elkartzeko bide berdearen bidez; horretarako, historia eta gaurkotasuna lotuko dira, hainbat eremutako proposamen arteko lankidetzaren bidez. *Storytelling* ariketa egingo dugu, hau da, irudien bidez gure trena zenaren kontakizun garaikidea".

'Nomadak', 'Hara!' eta 'Aztarnak'

Hiru jardueraren bitartez gauzatuko dute programa; *Nomadak* da bat: "Herri batetik bestera bizikletekin bide berdeetan bidaiatzeko egunei jarri diegu izen hori. Batez beste, 40 kilometroko etapak dira, eta parte hartzaileek egun osoa dute helmugara iristeko. Hizkuntza eta lurraldea ezagutzen duen begirale bat izango dute lagun."

Hara-ren asmoa ikuslea harritzea dela dio: "Arte esperimentalak, kaleko ekintza, performance sorta bat... halakoak izan daitezke. Halako lanak ez dugu aurrez aurreikusita non eta zer egingo dugun, unean-unean sortzen dira".

Hirugarren jarduera mota *Aztarnak* da, eta denboran iraungo duten lanei deitzen diete horrela. "Paretetan margotutako

artelanak dira horiek, muralak edo bestelako teknikekin osatutako sormen-lanak. Debagoienean lau herritan egingo ditugu; bartzuk artista bakarrak egindakoak izango dira, eta taldean sortutakoak beste hainbat".

Nazioarteko artistak

Zazpi dira parte hartzen ari diren artistak, askotariko jatorri eta profiletakoak. "Euskal Herrian zehar, burdinbideak, historia eta etorkizuna oinarritu dituen egoitza artistiko ibiltaria proposatzen zuen deialdia egin genuen eta mundu osotik jaso genituen eskariak. Epaimahaiak zazpi horiek aukeratu zituen gero, proiektuaren izaeratik gertuen zeudelako. Erabiltzen dituzten teknikari dagokionez, denetariokoak daude: bereziki, aerosolarekin margotzen duten grafitilariak, brotxa erabiltzen

Urriaren 26an Nomada Eguna

Debagoieneko hainbat herritan egingo dituzten margolanek gain, urriaren 26rako, domeka, bizikleta martxa antolatu dute. "Bergarako San Martin plazan elkartuko gara, 10:00etan, eta handik Eskoriatzaraino bizikletan joatea da asmoa. Ekimeneko artistak izango dira gurekin, eta egindako adierazpen artistikoetan geratuko gara euren ahotik entzuteko sortutako lanen azalpenak. Poliki joango gara; hortaz, heldu zein haur, animatu etortzera!".

GOIENA TELEBISTA

UDAZKENEKO PROGRAMAZIO BERRIA

HARIRA

GOIENA TELEBISTA, EZTABAIDA SAIOA

URRIAREN 22AN, MARTITZENEAN, 21:00ETAN ETA 23:00ETAN

GONBIDATUA: REBEKA UBERA (LEGEBILTZARKIDEA, EH BILDU), AITOR URRUTIA (LEGEBILTZARKIDEA, EAJ), JULEN BOLLAIN (LEGEBILTZARKIDEA, PODEMOS) ETA ENEKO ANDUEZA (LEGEBILTZARKIDEA, PSE-EE)

GOIATZ ARANAK ZUZENDUTAKO SAIOA



goiena
Zu hemen zaude.



Jens Besser alemaniarra Eskoriatzako bidegorrian margotzen. XABIER URZELAI

duten muralistak ere bai; eta baita bestelako teknikekin lan egiten dutenak ere; esaterako, *Pasteups* teknika, hau da, material birziklatuekin artelanak sortzen dituzte eta toki ezberdinetan itsasten dituzte gero".

Tantaka heldu dira Euskal Herrira artistak, eta eguaztenean elkartu ziren guztiak Azpeitian. "Apenas ezagutzen dugu elkar, baina egun asko ditugu aurretik", dio Veronika Seron *Bronik* artistak. Orain dela zortzi urte Bartzelonan bizi den grafitilari perutarri asko gustatu zitzaion Kultur ACT elkartearen proposamena: "Halako ekimenetan parte hartu izan dut aurrez, baina honako hau berezia da, duen gaiagatik eta, normalean, hirietan egiten dituztelako. Atzo hasi nintzen margotzen, Azpeitiko zezen-plazatik gertu dagoen kale batean. Ez daukat guztiz definituta, baina nire asmoa da bizikleta gainean dauden eta gauza garrantzitsuak daramaten hainbat pertsona margotzea".

Azpeititik Iruñera

Azpeitian abiatuko dute, gaur, egubakoitza, ekimena, Burdinbidearen Euskal Museoa, eta azaroaren 21ean bukatuko dute,

NAZIOARTEKO ZAZPI ARTISTAREN ESKUTIK, MARGOLAN UGARI IZANGO DIRA BIDEGORRIAN

EGOITZA ARTISTIKO NOMADAREKIN, ARTE GARAIKIDEA ETA BIDE BERDEA BATU DITU KULTUR ACT-EK

Iruñeko 948 Merkatuan; bitartean, honako herri hauetatik pasatuko dira: Bergararik, Arrasate, Aretxabaletatik, Eskoriatzatik, Landa urtegitik, Legutiotik, Gasteiztik, Trokoniztik, Maeztutik, Kanpezutik eta Lizarratik. "Azpeitiko Trenaren Museoa bisitatu, herrian buelta bat eman, eta herriko hainbat eragilerekin egotea da gaurko gure plana. Zapatuan, lana egingo dugu eta domeka osoa izango dute ondoren, bizikletan ibili eta gura dutena egiteko; hori bai, gauerako Bergaran egon behar dute".

Debagoienean egunotan

Talde osoa bihar iritsiko da Bergarara, eta astelehenean, herria eta herritarrak ezagutu eta lanerako ideiak lantzeko eguna izango dute. "Udaletxean izango gara eta beste eragile batzuekin ere elkartuko gara, arlo ofiziala eta herrikoia uztartuko ditugu. Martitzenean hasiko gara Bergaran margotzen; ertzain etxearen ondoan dagoen bidegorri zatian zerbait kolektiboa egingo dugu".

Eskoriatzan aurreko asteburuan hasi zen Jens Besser alemana kanposantu azpiko bidegorri ondoan margotzen. "Paretaren erdia egin du eta beste erdia Tomas Facio argentinarrek egingo du, eta beste aldean lan kolektiboa egingo dugu; apur bat aurrerago dagoen beste horma batean, berriz, Esteban Loeschborek beste lan bat.

Arrasaten eta Aretxabaletan ere hainbat aztarna utziko dituzte: "Bergararik Arrasatera joango gara, eta han Belen Robeda argentinarrek Musakola auzoko horma bat margotuko du; eta Aretxabaletan, ez dugu guztiz zehaztuta, baina lan kolektibo bat egiteko asmoa dugu".

Artistak

JENS BESSER
ALEMANIA

2009tik, Ameriketako, Europako eta Asiako horma asko margotu ditu bizikleta gainean bidaiatzen duen muralistak.

VERONICA SERON 'BRONIK'
PERU

Kolorez betetako lanak egiten ditu, naturarekin harmonian, bereziki espraia eta akrilikoa erabiltzen dituen Limako grafitilariak.

YONE ESTIVARIZ
GASTEIZ

Argazkilaritzan jarduten du, bereziki, Estivarizek. Askotariko erakusketak egin izan ditu, bakarka zein taldean.

BELÉN ROBEDA
ARGENTINA

Arte plastiko irakaslea da, pinturan eta eszenografiaren aditua da, bereziki, baina askotariko diziplinetan jarduten du.

ELISA BATTISTON 'SECLE'
ITALIA

Bartzelonan bizi da orain dela zazpi urte. Gizarte hezkuntzan ikasketak ditu eta *pasteups* teknikekin kaleak margotzea du maite.

ESTEBAN LOESCHBOR
'PESK' ARGENTINA

Hamabost urte daramatza kaleak kolorez betetzen. Artista nomada izatearen ametsa betetzen ari da azken hiru urteetan Europan.

TOMAS FACIO
ARGENTINA

2014an hasi zen muralak margotzen, eta Argentinan, Txilen, Euskal Herrian eta Zaragozan egin izan ditu. Estilo askotako lanak ditu.

Goiena Klubaren txokoa

Goiena Klubeko urriko sariak!

Telebista
LG 32"

Parte hartzeko sariaren izena: Telebista



Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak.

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz

ARRIKUTZ
